

Urriaren 8an
hasiko du
saskibaloia liga
Iker Barberok,
Valentzian | 11

Arrasate Hiria
torneoa, UDA
eta Amaiak
Bat taldeak
gonbidatuta | 30

ANDRAMAIXAK 2016
Aretxabaleta eta Leintz Gatzaga | 18 eta 20



Beritasunekin datoz Osintxuko
Kofradixak oraingo asteburuan | 14



Oñatiko jaiak, segidan eta
aldaketekin, irailaren 28tik | 24



'BERGARAKO BESARKADA'

Bake Itun horri buruzko erakusketa
zabaldu dute Laboratorium museoan | 32

Elena Lete Bergarako alkatea, Mikel Alberdi erakusketako komisarioa eta
Xabier Paya, Donostia 2016ren kultur programazioko zuzendaria

UBANE MADERA

Heroinarengatik
kezkaturata dago
Arrasateko
Udala | 2

Leintz Gatzagan segituko du ikasgelak

Luis Ezeizaren gela desplazatuan bost ume ibiliko dira | 3

SINADURAK

	Beteko zaitu! 6 OSKAR ELIZBURU
	6 Oraindik horrela gabilta? TXOMIN MADINA
	Arisku kapitalik gabeko arriskua 10 AITOR OROBENKOA
	25 Errudun garen gaitzailentzat MIREN ZUBIA
	Azaltzen zaila 28 AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ
	40 Lehengo lepotik burua AGURNE BARRUSO

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 8
KIROLA 30 | KULTURA 32
ZURE IRAGARKIAK 33 | ZORION AGURRAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 35 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Andoni Larrabek, pokerra ogibide
- Erreportajea: adoptatzea, maitatzeko

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



97€
2 mō betaurreko
graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
School Visual TEST-a
(UMEEI zuzendutako proba bereziak)

www.multipopticasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezango da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Arrasateko Udala kezkatuta dago heroinaren kontsumoa dela eta

Ertzaintzak eta udaltzaingoak "areagotu" egin dute zaintza herrian

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Arrasateko Udal ordezkariak oso kezkatuta daude heroinaren kontsumoa dela eta: "Benetan kezkatuta gaude eta herritarren artean ere kezka sumatzen dugu. Horregatik, Herrizaingo Sailera eskutitz ofiziala bidaltzeko asmoa dugu harreman zuzena izateko horiekin", jakinarazi du Maria Ubarretxena alkateak astean, *Arrasate Irratian*, eta gaineratu: "Horrez gain, ikastetxeetara joko dugu eta, seguru asko, lanketa bereziren bat egin. Informazioa behar-beharrezkoa dela uste dugu".

Zaintza areagotu

Arrasateko udaltzain batek esandakoaren arabera igarri dute "heroinaren kontsumoak gora" egin duela azken urtean, besteak beste, hainbat gunetan agertu izan direlako xiringak: San Andresen, Obenerrekan, Monterron inguruan... Hala ere, xiringekin dabiltzanak "ez direla asko" uste du, lau bat. "Erre, oster, gehiagok" egiten dutelakoan dago, eta aurkitu izan dituzte kalean "txinoak erretzen". Kezkatu dituen beste datu bat adina dela jakinarazi du. Izan ere, dio, oso gazteak direla batzuk, 16 urte-ekin-edo hasiak, ez diotela batere beldurrik, eta ez direla jabetzen heroinak eta beste droga batzuek dakarten mendekotasunarekin eta arriskuarekin. 1980ko hamarkadan Arrasaten, Elgoibarren, Bermeon eta beste hainbat herritan gertatutakoa gogorarazteko haiekin berba ere egin dutela dio, baina oso urrun ikusten dutela 80ko hamarkada hura gazteek. Gaineratu du heroina bakarrik ez, sukua, hau da, heroina eta kokaina amoniakoarekin nahastuta ere kontsumitzen dutela.

Bestalde, Amaia Frontaura udaltzainburu-ordeak jakinarazi du arreta areagotu egin dutela. Herriko komun publikoetatik, esaterako, "astean lau aldiz" pasatzen dira arratsalde-gau partean, xiringak, besteak beste, komunetan agertu izan direlako.

Ertzaintzatik ere adierazi dute zaintza areagotu egin dutela bai kontsumoari, bai salmentari begira, eta, adierazitakoaren arabera, "Arrasaten bakarrik" atzeman dute egoera hori.

Kiten salmentek gora

Xiringen salmenten adierazle, Arrasateko erdigunean dagoen botika batean adierazi dute hiesaren kontrako kiten salmentek gora egin dutela azken urte eta erdian. Hiesaren prebentziorako Eusko Jaurlaritzak banatutako kit hori osatzen dute, besteak beste, xiringa batek eta preserbatibo batek. Kopuru zehatzaren berri ez dute, baina guardiako ordutegian bi eta hiru artean saltzen dituztela egunean jakinarazi dute, eta ohiko ordutegian bat eta bi artean. Botikariak baieztatu du "oso gazteak" direla horiek erosten dituztenak.

Etengabeko jarraipena

Edozein modutan, eta datuak datu, Ai Laket! -droga erabiltzaileak arrisku murrizketaren alde-elkarteko kideek jakinarazi dute heroinaren kontsumoak gora egin duen baieztatzeko daturik ez dutela eurek. Dena den, Dro-

gen eta Toxikomanien Europako Behatokiak azken txostenean dioena gogorarazi gura izan dute; hau da, munduko hainbat herrialdetan sortutako heroinaren epidemiak adierazten duela etengabeko jarraipena egin beharreko kontua dela.



Maiatz inguruan, Arrasateko txoko batean agertutakoa. | GOIENA

LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

	IKASTAROAK	ORDUAK	DATAK
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
MF0089_2	UF0876: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. PLANOEN IRAKURKETA	60	2016/09/19-2016/10/25
	UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO KOSTUAK KALKULATZEA	40	2017/04/24-2017/05/22
MF0091_2	UF0882: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA ETA OPTIMIZATZEA. TORNU FANUC	70	2016/09/19-2016/11/09
	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA.	30	2017/01/16-2017/02/02
	UF0878: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA. FRESAGAILU KONBENTZIONALETAKO MEK.	80	2016/11/02-2016/12/21
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA. HEIDENHAIN FRESA	80	2017/02/13-2017/04/03
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS	40	2017/01/16-2017/02/09
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2017/02/13-2017/04/06
KATALOGOZ KANPO			
	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA. MCOSMOS	30	2016/10/17-2016/11/15
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
MF0820_2	UF0885: ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	2016/10/17-2016/12/05
KATALOGOZ KANPO			
	OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA	40	2016/09/19-2016/10/11
	AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN EKIPO ETA ELEMENTUAK INSTALATZEA	60	2017/03/06-2017/04/06
	AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMAK ABIAN JARTZEA	60	2017/04/27-2017/06/01
	ABB ROBOTIKA	30	2017/01/16-2017/02/02
	INDUSTRIA-KOMUNIKAZIOAK	24	2017/02/13-2017/02/23
	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK I. MAILA	30	2016/10/17-2016/11/08
	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK II. MAILA	30	2016/11/14-2016/12/01
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA			
MF0233_2	UF0320: TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	30	2017/03/20-2017/04/06
	UF0321: EXCEL	50	2017/05/29-2017/04/24
MF0237_3	UF0343: SOLDATA-ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	90	2016/10/17-2016/12/15
	UF0346: KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA TALDE-LANA	60	2016/10/17-2016/11/22
	UF0044: TARTEKO AGINTARIAREN EGITEKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAN	30	2016/09/19-2016/10/06
ADGD0108 IKUSKAPENERAKO KONTABILITATE- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA			
MF0231_3	UF0314: KONTABILITATE-KUDEAKETA	90	2017/01/16-2017/03/09
BESTE BATZUK			
ORGA-JASOTZAILEREN ERABILERA		10	2016/10/17-2016/10/20
		10	2016/11/14-2016/11/17
		10	2017/01/23-2017/01/26
		10	2017/03/06-2017/03/09
ZUBI-GARABIEN ERABILERA		10	2016/10/24-2016/10/27
		10	2016/11/21-2016/11/24
		10	2017/01/30-2017/02/02
		10	2017/03/13-2017/03/16

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.

Tel: 943 76 70 49 // **Mug:** 688 81 50 70 // **Eposta:** ikastaroak@imaltuna.com // **www:** imaltuna.com

Leintz Gatzagako neska-mutikoak gela desplazatuan geratuko dira

Eskatutako moduan eskolak hartzeko ez dute Eskoriatzara joan beharrik izango

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ikasturtea hastear dela berri pozgarria jaso dute Leintz Gatzagan: herrian bertan emango dizkiete eskolak haur eskolako neska-mutikoei. Horren alde jardun dute borrokan azken hilabeteotan, eta baita lortu ere. Ikasturtea datorren egunean, hilaren 8an, hasiko dute bost umek.

Pozik eta eskertuta

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegazioak esan zien ekain inguruan ez zela bideragarria Eskoriatzako eskolako "irakasle bat Leintz Gatzagara bideratzea hain ikasle gutxi izanik". Hori horrela, Luis Ezeiza herri eskolako gela desplazatu hori arriskuan ikusi zuten gurasoek zein herri-tarrek, eta Gurel guraso elkar-tearen gidaritzapean horren aldeko borrokari ekin zioten. Sinadurak bildu zituzten, elkarretaratzeak egin eta hainbat elkarte, erakunde eta sindikaturen atxikimenduak bilatu. Zenbait alderdi politikotako ordezkariak ere eman zieten euren arazoaren berri eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuari gutuna bideratu zioten. Bailara-



Gela desplazatuaren alde egindako elkarretaratzea. | IMANOL SORIANO

ko zenbait udaletan mozioak aurkeztu zituzten, gainera, eta babes osoa jaso zuten udalbatza horien aldetik.

"Oso pozik gaude", jakinarazi du Joanes Mendizabal zinegotziak, eta gaineratu: "Herri guztiak hartu du parte borroka horretan, eta ingurukoetakoek ere bat egin dute gurekin. Herri eskolaren beraren babes handia izan dugu, gainera". Horregatik guztiagatik eskerrak eman gura dizkie horiei, eta, era berean, zoriondu egin ditu.

Ikasturte hasiera jaian

Bost umek -2 eta 5 urte artekoak- hasiko dute ikasturtea datorren egunean. "Herrian jaiak ere badira eta hurrengo astelehena izango da benetako hasiera", dio Mendizabalek. Irailean goizez bakarrik jardungo dute, 09:00etatik 13:00etara, eta ondoren ohiko ordutegira itzuliko dira: 09:00etatik 12:30era eta 14:15etik 16:15era. Eguazten guztietan, oster, Eskoriatzara joango dira aurreko ikasturteetan legez, hango umeekin hartu-emanak estutzeko.

MUk hamalau master eskainiko ditu aurten

Gastronomia Zientzietako graduondokoa berria da eta 90 kredituko iraupena du

JOSU BILBAO | ARRASATE

Gradu-ikasketak bukatutakoan master bat egitea erabakitzen duten unibertsitate tituludunak gero eta gehiago dira. Hori dela eta, datorren ikasturteari begira, Mondragon Unibertsitateak unibertsitate-masterren eskaintza handitu eta guztira hamalau unibertsitate-master eskainiko ditu, lau jakintza-arlotan banatuta: ingeniari (5 master), enpresa-kudeaketa (5 master), hezkuntza (3 master) eta gastronomia (master 1).

Gastronomian trebatu

Gastronomia Zientzietako graduondokoa da berriena. 90 kredituko iraupena du eta ikertze-ko bokazioa duten hainbat diziplinako unibertsitate-graduadun edo lizentziadunei zuzendua dago. Ikerketan espezializatzeko lehen masterra da, gastronomia, ostalaritza eta elikaduraren sektorerak eta irakaskuntza zein doktoregora bideratuta dagoena. Arlo horietako ikerkuntzan eta berrikuntzan jarduteko profesionalak heztea du helburu.

Foru aurrekontuen gaineko ekarpenak egin ditzakete gipuzkoarrek urriaren 14a artean

M.A. | DEBAGOIENA

Aurrekontu Irekiak izeneko partaidetza prozesua jarri du abian Aldundiak, eta horren bitartez, 16 urtetik gorako gipuzkoarrek aurrekontu proposamenari buruzko iritzia -diru-partida eta proiektu garrantzitsuenen gainekoa- emateko aukera izango dute urriaren 14a artean. Horretara-

ko hiru bide egongo dira: etxe etxe banatutako esku-orriak beteta, Internet bidez eta irail bukaeran hasita eskualdez eskualde ibiliko den partaidetza-karpara joanda. Guztira hamasei udalerriri bisitatuko ditu karpa horrek hilaren 26tik urriaren 13ra; Debagoienera izango da Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZION ESKOLA, GUZION ARTEAN"



IRAILAREN 2tik 16ra
605 77 39 92 goieskola@gmail.com



HELDUEN HEZKUNTZA Matrikula 2016-2017 ikasturtea

EPA ARRASATE HHI

www.epaarrasate.hezkuntza.net
Arrasate Pasalekua 1, 3 eta 5. Tel.: 943 77 11 72

- I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA / EUSKARA
- II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU
- III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (A eta D ereduak)
- INGELESAREN HASTAPENA
- FRANTSESAREN HASTAPENA
- PSIKOLOGIA
- EUSKAL HERRIKO HISTORIA
- INFORMATIKA
- UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAKO SARBIDEA

EPA BERGARA HHI

www.epabergara.hezkuntza.net
Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52

- I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA
- II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU
- III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA
- INGELESAREN HASTAPENA
- FRANTSESAREN HASTAPENA
- PSIKOLOGIA
- EUSKAL HERRIKO HISTORIA
- INFORMATIKA
- EUSKAL ARTEA AZTERGAIA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAKO SARBIDEA

Irailaren 25erako makinak martxan, gaur zortzi hasiko da boto eskea

- Debagoienez hasi dira kanpainaurreko zein kanpainako ekitaldiak iragartzen
- Posta bidezko botorako bidea zabalik da; hainbat alderdi hasi dira laguntza eskaintzen

T. MADINA / U. MADERA | DEBAGOIENA

Azken urte eta erdian laugarren aldiz, erakunde publiko bateko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Kasu horretan Eusko Legebiltzarra osatuko duten 75 kideak aukeratzeko emango da botoa irailaren 25ean, eta horretara daude deituak 1.778.776 herritar. Debagoieneko kasuan (Aramaio barne), 50.400 herritar pasa dira.

Baldintzatutako hauteskundeak izango dira, EH Bildu koalizioaren lehendakari Arnaldo Otegiaren hautagaitza kanpo utzi du eta Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak. Hain justu, astelehenean aldarrikatu zituzten hauteskunde-zerrendak, Otegiaren izena zerrendatik kanpo utzita. Honen bestez, zerrendako bigarrena den Maddalen Iriarte dago orain EH Bilduren zerrendaren lehen postuan Gipuzkoatik.

Edozein modutan, atzo, egue-na, Donostiako epaitegietara iritsi zen auzia, errekurtoa aurkeztu zuen eta EH Bilduk, eta bihar, zapatua, erabaki beharko luke epaileak. Behin bide hori ere agortuta, Otegiaren hautagaitzaren inguruko azken erabakia Auzitegi Konstituzionalak hartu beharko luke; hain justu ere, hauteskunde-kanpaina hasi aurretik jakin beharko da Otegi Legebiltzarrerako zerrendetan egongo den ala ez.

16 hautagaitza

Guztira 17 alderdi politiko aurkeztu dira hiru lurralde historikoetan. Baina, Partido Libertario alderdiarena, Bizkaian bakarrik aurkeztu zena, ez du aldarrikatu batzordeak, ez baititu zuzendu hauteman ziren irregularitasunak; horrela, 16 dira onartutakoak. Gipuzkoari dagokionez, hamahiru hautagaitza aurkeztu dituzte (orain lau urte baino bi gutxiago).



75 politikarik osatzen dute Eusko Legebiltzarra; argazkian bertako osoko bilkuretako bat. | EUSKO LEGEBILTZARRA

Kasuak kasu, onartutako hautagaitzako bat den Elkarrekin-Podemos koalizioa izango da oraingo hauteskundeetan Eusko Legebiltzarraren argazkia eta ondorengo gobernua definituko duen aldagaitzako bat, erreferente moduan hartuta Espainiako hauteskundeetako emaitzetan, bototan, koalizioa izan zela lehen indarra Euskadin.

Debagoiendarrak EH Bildun

Bestalde, alderdien zerrendetan hainbat debagoiendar daude.

EH Bilduren Gipuzkoako zerrendan, azken agintaldian legebiltzarkide izan diren ibarreko hiru hautagai daude (guztien ordena Otegiaren kanporatzeak baldintzatuko du): zerrendan 3.a Pello Urizar arrasatearra da; 4.a, Rebe-ka Ubera elgetarra; eta Maider Otamendi eskoriatzarra, 8.a. Urizar EAko idazkari nagusia da 2009az geroztik, eta hainbat urtetan Arrasateko udaleko zinegotzia ere izandakoa da. Ubera, bestalde, 2014tik Aralarko idazkari nagusia da, legebiltzarkide izan aurretik, Elgetako zinegotzi eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide ere izandakoa. Otamendi urtetan izan da Eskoriatzan zinegotzi, eta Aldundiko Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari kargua ere izan du.

Zerrenda berean daude baita ere Larraitz Ugarte oñatiarra (6.) eta Arrasateko zinegotzi ohi Ander Rodriguez (10.). 2011 eta 2015a bitartean, biak ere Aldundiko diputatu izan ziren; Ugarte, Azpiegiturak eta Mugikortasuneko; eta Rodriguez, Gizarte Politikakoa. Antzu-

HAUTESKUNDEEN KRONOLOGIA

Irailak 1-3

Hauteskunde mahaletan egongo direnei jakinarazpenak helarazteko epea.

Irailak 15

Botoa posta bidez eman ahal izateko eskaria egiteko azken eguna.

Irailak 21

Botoa posta bidez bidaltzeko azkeneko eguna.

Irailak 9-23

Hauteskunde kanpaina

Irailak 25

Hauteskunde eguna

ITURRIA: "HAUTESKUNDEAK.EUS"

DATUAK

13

HAUTAGAITZA

Gipuzkoan hamahiru hautagaitza aurkeztu eta onartu dituzte; Euskadin, berriz, 16 dira onartutako hautagaitzak.

20

DEBAGOIENDAR

Alderdi zein koalizio politikoen zerrendetan 20 debagoiendar daude, politikan eskarmentudunak gehienak.

Lau sozialista Gipuzkoakoan

PSE-EEEn, aldiz, Gipuzkoako zerrendan hirugarren dago Rafaela Romero arrasatearra. 1995 eta 1998 artean Arrasateko Udaleko zinegotzia izan zen, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere badu eskarmentua: 2007 eta 2011 artean berauen lehendakari izan zen, esaterako. Gaur egun Debagoieneko bi herritan zinegotzi diren beste bi ere badaude sozialisten zerrendan: Antzuolako udalbatzako kide eta 2009tik legebiltzarkide den Miren Gallastegi (4.) eta Arrasateko Udalean zinegotzi Oscar Garcia (16.). Urtetan Arrasateko eta Oñatiko zinegotzi izandako eta 2001etik legebiltzarkide izan den Blanca Roncal, bestalde, 24.a da sozialisten zerrendan.

PPko Arabako zerrendan

2003tik 2011ra arte Arrasateko zinegotzia izan zen Itziar Lamarain, bestalde, PPren Arabako zerrendan dago, 15. postuan. 2011n ere lortu zuen zinegotzi izateko boto adina, baina karguari uko egin zion, Arabako aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatu izendatu zuten eta.

Elkarrekin-Podemos-en ere bai

Bukatze, Ahal Duguk, Equok eta Ezker Anitzak sortu duten Elkarrekin Podemos koalizioan, hiru bergarar daude Gipuzkoako zerrendan: Farmazian lizentziaduna eta Bergarako Zirkuluko Berditasun Arduraduna den Maite Unamuno 12.a da; Jose Maria Sasieta, Bergarako Zirkuluko kidea, 18.a, eta Antonia Galiot, 21.a. Galiot Ezker Batua-Berdeak-en Bergarako zerrendaburua izan zen 2011ko Udal hauteskundeetan.

Posta bidezko botoa

Irailaren 9an hasiko da hauteskunde kanpaina; ordura arte, hautagaiek debekatuta dute botoa eskatzea. Hauteskunde egunean botoa ematera joan ezin dutenek, posta bidez eman ahaliko dute. Irailaren 15era arte egin daiteke hori, posta bidez bozkatzeko eskara-inprimakia beteta eta sinatuta. Hura postetxe guztietan dago, eta *euskadi.eus*-en ere deskarga daiteke. Behin inprimakia beteta, Correo-sen aurkeztu behar da. Horrez gain, hainbat alderdik ere eskaintzen dute posta bidez botoa emateko laguntza (inf. gehiago, *Herriak* atalean). Eskaera egin duenari irailaren 5etik 18ra bidaliko zaizkio posta ziurtatu bidez botoa emateko behar dituen agiriak, eta irailaren 21a du botoa bidaltzeko azken eguna.

Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

- Zaharberritzeak
- Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
- Ziurtagiri energetikoak (CEE)
- Diru laguntzen gestioa
- Igogailuen proiektuak
- Barne dekorazioa
- Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57
email: amaiigartua@gmail.com
www.aiarkitektura.wordpress.com
Oñati

lako alkate ohi eta Gipuzkoako Diputazioko Lurralde Garapeneko zuzendari izandako Pedro Iturbe (12.a), Bergarako Udaleko kirol teknikari Unai Asurmendi (17.a) eta Arrasaten bizi den eta MUn irakaslea eta kooperatibigintzan ikerlaria den Igor Ortega (19.a) ere badaude EH Bilduren Gipuzkoako zerrendan.

EAJn ere bertakoak

EAJri dagokionez, Gipuzkoako zerrendan 9.a da Aitor Urrutia eskoriatzarra. 2015ko irailaren amaieraz geroztik legebiltzarkidea

izan da Urrutia, eta aurretik, 2007tik 2014ra bitartean, Eskoriatzako udaleko zinegotzia ere izandakoa da. Gipuzkoako zerrenda ixten beste bi debagoiendar daude: 24.a Maria Ubarretxena da, egungo Arrasateko alkatea eta Jaur-laritzako Gizarte Ekonomiaren zuzendari ohi, eta 25.a, Igor Oiarbide, Bergarako kirolleko zinegotzia. Jeltzaleen Arabako zerrendan ere bada debagoiendarrak: azken lau urteotan ere legebiltzarkide izan den eta gaur egun Antzuolako Udalean zinegotzi den Luis Javier Telleria 4.a da.

Lantegi berria urrian egokituko du Ederlanek

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Fagor Ederlanek urriaren leian hasiko ditu Bergarako pabiloi berria bere jarduerara egokitze-ko lanak. Hain zuzen, San Juan industrialdean iaz arte Fagorrek (gero Fagor CNAk) erabilitako Geyserren pabiloian ipiniko du bere produkzioaren zati bat. Helburu horrekin errentan hartu zion Fagor CNAr pabiloi hori, erosteko eskubidearekin.

Fagor Ederlanek baieztatu du "dena aurreikusi bezala" doala eta "epeak betetzen" ari direla. Iraileko egun hauetan, lan horiek egiteko azken baimenak tramitatzen zebilen Eskoriatzako koo-



Geyserrena zen lantegia, Bergaran.

peratiba, urriaren 1erako dena gertu izateko.

Hazkundearen ondorioa

Bergarako pabiloi berria egokitu egin behar da presio txikiko fun-
dizio bat egongo delako bertan. Fagor Ederlanen plan estrategi-
koan aurreikusten zen presio txikiko aluminioaren negozioa handitzea. Hazkunde horren ondorioz behar berriak sortu zaizkio Ederlani, eta behar horiei erantzuteko eskuratu zuen iaz Geyserren lantegia. Presio txikiko aluminioaren ekoizpena Arrasaten dauka gaur egun Fagor Ederlanek. Datorren urtean hasi nahi dute Bergaran lanean.

Mexikon, ia bukatuta

Bestalde, Mexikon lantegi berria egiten dabil ere Ederlan, eta hango lanak oso aurreratuta daude; bukatzetik gertu, hain zuzen ere.

Maider Ruiz | ElkarEkin taldeko kidea

"Diru laguntzaz gain, elkarlana eta ardura bultzatu gura ditugu"

L.K. | ARETXABALETA

2015eko otsaila ezkerro, gizarte eraldaketa arloko taldea du Copreci kooperatibak, bertako langile batzuek sortua: Elkar Ekin.

Zelan sortu zen ElkarEkin?

Copreci-ko langile bat Lankik eskaintako Kooperatibagintzan Aditu titulua atera zuen, eta bazeukan egonezin bat; Kontseilu Sozialean dauden kezka, galdera eta ekarpen kopuruen arabera aldaketa baten behar zela pentsatu zuen. Deialdia egin zuen Coprecin, eta horrela sortu zen taldea.

Gizarte eraldaketa oso zabala da; zeintzuk dira zuen helburuak?

Hausnarketa horrekin luzaroan egon gara, eta hamabostean behin elkartu gara, ipar hori jartzeko. Kontzientziazioa oinarri gisa hartuta eta beste kooperatibetako eraldaketa taldeak egiten ari direna eta nola egiten ari diren jakin nahiarekin, hainbat hitzaldi antolatu eta egin ditugu azken hilabeteotan. Ederlan, Mundukide, Ba Gara, NER, Goiener, Fiare... izan ditugu gurekin, eraldaketaren inguruan hainbat arloz hitz egiten. Azkenean, gaur egun gure kooperatibak ematen dituen diru laguntzak ez ezik, elkarlana eta



Maider Ruiz. | L.K.

ardura bultzatu nahi ditugu. Jendea eraldaketaren gorpilean sartu nahi dugu.

Ekintza zehatzak ere egin dituzue, ezta?

Aurreko Gabonetan, elikagai bankuarekin lan egin genuen eta Coprecin diru-bilketa egin genuen. Horrez gain, Copreciren karbono-aztarnaren eta denon onurako ekonomian non dagoen gaineko txostenak egin ditugu. Ze pauso emango dituzue orain? Proiektu bila gabilta, eta gizarte eraldaketa proiektuetan parte hartzen dabiltzan Copreci-ko langileen bila ere bai; euren proiektuetan lagundu nahi dugu, eta hauetan langileen partze-hartea sustatu nahi dugu.

2014an baino %7,1 gehiago saldu zuen iaz Ulmak

L.K. | OÑATI

2015eko ekitaldia oso ona izan da Ulma Taldearendako; 712 milioi-ko salmenta kontsolidatuak egin zituen, aurreko ekitaldian baino %7,1 gehiago. Horrela nabarmendu du Ulma Taldeko zuzendari orokor Iñaki Gabilondok, txosten baten.

Honako beste zifrak batzen dira: nazioarteko salmentak %5,7

handitu ziren, 540 milioi eurotaraino, eta produktu eta zerbitzu salmenten %76 dira. Barne merkatuan, 172 milioi-ko salmentak egin zituen, %13 gehiago 2014an baino. Azken zortzi urteetan lehenengo aldiz, barne-salmentak handitu egin dira urte batetik bestera.

Emaitza bateratueta, 18 milioi-ko mozkina lortu zuen iaz

Ulmak, 2014ko lorpenak erreplikatz. Horrenbestez, bost urte jarraian lortu ditu Taldeak emaitza positiboak.

Enpleguari dagokionez, 2015 bukaeran, 4.396 langile zituen Ulma Taldeak, 2014an baino 99 gehiago. Horietatik lan-bazkide ziren %80 baino gehiago. 90 langile zeuden birkokatuta, gehienak Fagor Etxetresnetatik.

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Har ezazu parte!

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 8tik irailaren 18ra arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean.

• Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.eus helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoiengan jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 14an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan beharko dute.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera *Puntuak* aldizkarian eta blogak.goiena.eus/argazkiak foto-blogean. Epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzetik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

Epaimahaia aukeratzen dituen 3 argazki onenen artean, 3 sari hauek zozketatuko dira.



- Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.
- Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

Herritarren saria



Herritarrek aureratutako argazki-rik onena munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK



EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zapoak
karibumundukosapoeak.com

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
goiena.eus/komunitatea/



Beteko zaitu!

Abuztua joan da eta, gehienontzat, oporrak ere bai. Berriro martxa hartzeko garaia da hau, motorra ralentian jarri eta apurka-apurka abiadura hartzekoa. Oporren bueltan pilak kargatuta etorri garela ere esaten dugu, eta horrela da nork bere gustuko lanean badihardu, behintzat. Sasoi honetan, urte hasieretan bezala, asmo berriren bat izatea egokia da opor osteko beherakadari aurre egiteko, depresio moduko horri.

Ikasturte berria gogor datorkigu, gainera; alde batetik, estatuko gobernua eratu ez eratu dabil lerro hauek idazten nabilean, eta bestetik, Jaurlaritzarako hauteskundeak izango ditugu hilabete honetan bertan. Agian, beste gairik ez dugu izango irailean, baina beste zerbaiten garaia ere bada hilabete hau, matrikula berriak egitekoa. Lehen aipatu ditudan asmo berriei ekiteko izena emateko aukera orain izango dugu, zenbat aukera!

Euskara ikastea edo hobetzea beteko zaituen aukera izango da, ez izan dudarik. Euskaltegietan giro apartan hartuko zaitugu eta lagun giroa izango duzu; irakasleak, ikaskideak eta lagunak, denak batera norabide berean. Afektibitatea da, zalantzarik gabe, gehien laguntzen duena ikasten eta hobetzen; modu praktikoan elkarrekin ikasteak eta euskaraz bizitzen jartzeak bizipoza eman-goz ditzute.

Uda honetan AEKren barnetegi ibiltarikoekin egin nuen etapa eder bat, Elantxobetik Lekeitiora, paraje bikaina, eguraldi ederra... Baina ederrena konpainia izan zen, ezagutzen ez nituen horiekin elkartu eta taldean zegoen giro aparta, elkarri laguntzeko, zirikatze eta ikasteko konplizitatea. Egoera afektibo horrek dakarren efektibotasuna da, nire ustez, azpimarratzekoa; nola bestela bertara joan diren asko hiruzpalau urtez apuntatu bertara, nola urtez urte euskaltegira etorri?

Gurean euskara ikasteak beteko zaitu, %100 afektiboa!

Afektibitatea da
gehien laguntzen
duena ikasten eta
hobetzen

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.eus

Oraindik horrela gabiltza?

Egun, edozein "arazorendako" dago konponbidea: jendaurrean hitz egiteko zailtasunaren kontra, ikastaroak; udako jan-danen ostean sabel inguruan pilatuta geratu direnak kentzeko, gimnasioa; haserrea kontrolatzeko, terapiak. Eta homosexuala izateari utzi gura dionarentzat, *coach* profesional baten laguntza. Zerbitzu hori eskaintzen duen webgune baten kontrako salaketa jarri berri du Madrilén Arcopoli izeneko elkarteak. Elena Lorenzo Rego da zerbitzua eskaintzen duena; dio aldatzea erabaki askea dela, eta eskatzen dionari ematen diola laguntza. Eta, zori-txarrez, ez da kasu isolatua. Baina izatekotan, nork du arazoa? Homosexualak, edo arazoa duela sinestarazi dion gizarteak?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



TEGI

Unai Busturia

HANDIK ETA HEMENDIK

Gure burkak

Imanol Epelde Pagola
http://goo.gl/BqEcZX

Ikusi duzue inoiz zuen aita biluzik? Ama, bai? Zuen lagunak kiroldegitik kanpo? Auskalo noiztik kendu ezinik gabiltzan burka bat daramagu jantzita guk ere. Eliza handiegiek zelatatzen dituzte gure bekatuak. (H)amen.

Akaso, horregatik ibiliko gara gehienak toailari heldu ezinik ekilibristarena eginez hondartzan, bainujantziak erantzi eta kantzontziloak janzten. Horregatik sentitzen naiz arraro etxean biluzik egiten dudanean sukaldean edo esertzen naizenean mahaira. Arraroa zait zakila hain libre barrabilak dantzari ibiltzea. Bitxia egiten zait zintzilikarioa hain lotsagabeki ikusgarri egotea. Babesgabe sentitzeraino. Ustekabeko metamorfosiekin jo eta ma.

Kostatu behar zait ederkir hainbeste urteetako tapatu beharra gainetik kentzea.

Zaila zaigu barruak biluztea. Nor garen zintzotasunez aitortzea munduari. Badirudi barrutik biluzteko ahaleginean hilko garela gehienak. Baina ez arropak erantzten.

Gilda jainkoa

Manex Agirre
http://goo.gl/mqCQWs

Sare sozialetan ikusi dut, non bestela, gero eta ahots sudurkariagoa duen (adinarengatik izango da?) Alfonso Alonsok kamioi batetik gildak banatzen egin behar duela kanpaina, "benetako arazoez hitz egitera" gonbidatzen zaituen bitartean eta, nahiz eta denbora pasatzeko gutxienez hogeimodu hobe izan, pentsatzen hasi naiz zein den kamioi bat horrela tuneatzaren benetako helburua.

Kanpainaren logikak eskatzen duen "begira nazazue" efektuaren bila joan da, noski ("Begira zer egin duen txoropito horrek" esateak "entzun duzu zein proposamen zentzuduna egin duen?" komentatzeak beste balio duen garaietan bizi gara), eta jendeak hitz egin du horri buruz, eta lortu du arrakasta, beraz.

Akats bat badu, ordea: ez du jolaserako aukerarik ematen, sare sozialen bidez pentsamendu kolektibo informala txikleaz bezala modulatzeko dugun egunotan. Hau da, proposamena bera

barregarritzat aurkezten baduzu, eta pailazoa beharrean politikaria bazara, jende gutxi egingo dizu barre. Denis Itxasoren kubo-jantziaren antzeko efektua lortzen duzu, azkenean: memeak sortzeko helburua duten ekintzek sortzen dute meme gutxi.

Beraz, eta iraila gaur hasten dela eta hostozko tunelak (edo errutinak, edo deitu nahi duzuen bezala) ematen duen adimen-argitasuna oraindik ez zaidala iritsi aprobetxatuz, zeren eta argitasun hori banu Rita Hayworthekin edo asmatuko nuen zerbait landuagoa, Larrepetit honen izenburuko txiste txarra oparitzen diot berarekin lurralde historikoa baino gauza gehiago partekatzen ez dudana Alonsori, ia errukiz, bere kamioiari buruzko zera barregarri usteko hau eta orain urte batzuetako arrautza-zaplatzekoarekin egindako hogeitaka gif-en efektua inoiz ezingo dela berdindu jakinda. Guk desio ez dugunarengatik egiten digute barre, Alfonso.

Umorearen historian behin eta berriz errepikatzen den topiko tristea da, behin eta berriz barregura ematen diguna.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Uliane Madera
Sailietako ardura-dunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiniano, Zierza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko
Jaurlaritzak
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HANDIK ETA HEMENDIK

Hondartzara esku hutsik joaten ginen sasoi baten!

Leire Narbaiza Arizmendi
http://goo.gl/HIS4XA

Non ote dauden hondartzara toalla hutsarekin jotzen gineneko sasoiak!
Ez krema, ez giltza, ez ezer!
Beraneanteak ginen eta nerabeak; gu etxeratu orduko beti zegoen norbait etxean.
Gaizki ikusita zegoen kamiseta luze bat baino arropa gehiago eramatea hondartzara.
Eskupainua sorbaldan ezarri, eta txankletei tirriki-tarraka eraginez abiatzen ginen.
Esandako moduan, kremarik ere ez genuen eroaten; izan ere, eguzkitik babesten gintuzten kremak ez genituen ezagutzen. Amen kontua zen Nivea –pote urdinekoa, ez zegoen beste Nivearik– ematea.
Azenario eta "behiaren krema" ere bazeuden. Baina

horiek beltzarantzeko baino ez zuten balio, olio hutsa baitziren. Azala frijitzeko, alegia.
Gero, gutxira etorri ziren babeserako kremak.
Orduan, kapazua erabiltzea beste erremediorik ez zitzaigun geratu.
Gainera, trenean joanez gero hareatzara, dirua eta giltza ere behar genituen. nerabezaroa pasata genuen! Behin lastozko kapazua hartuta, nik liburua ere sartzen nuen. Sekula ez dago-eta soberan.
Urik ere ez genuen eramaten!
Lehen egarririk ere ez genuen izaten.
Ez dakit nola egiten genuen. Iturriak bazeuden, baina ez dut gogoan bertaraino joatea edatera (ez zeuden hondartzan bertan). Orain nork pasa lezake plaia egun bat ur barik?
Hurrengo pausua krema gehiago eramatea izan zen: 50eko babes gradukoa, 30ekoa, aurpegirako. Ezpainetako kakaoa ere sartu genuen orduan.
Zerbait jateko ere behar da. Batez ere egun-pasa joanda.

Bainujantzia aldatzeko ere sartzen dugu poltsan. Nerabezaroan barre egiten genion horri, atsoen kontua zelakoan.
Orain denok kanbioarekin!!
Zapia/pareoa ere badaezpada. Erretzeko arriskua badugu, freskatzen badu, *txiringitora* joateko jantzi barik...
Buruan jartzeko ere zerbait: kapelu, zapi edo bisera.
Pintza/gomak ilerako luzetxo izanez gero, batu ahal izateko.
Hau bakarrik bakarrik edota lagunekin egun-pasa joateko!
Umeak sartuz gero txangoan, ia guztia biderkatuta, gehi palak, pilotak, eskuarea, kubo eta abarrak!
Ez nau harritu jendea ikustea gurditxoarekin (errekaduetarako erabiltzen duguna) hondartzara joaten. Oso praktikoa! Batez ere, nik orain, aulkia eta eguzkitakoa eroaten hasi naizenetik! Ez da sinplea *señora* eibartarra izatea!
Zelan konplikatu dugun bizitza!

Bejondeizula, ama!


Marijo Deogracias Horrillo
http://goo.gl/KpGqbE

Erretiroa hartu du gure amak. Bere 65. urtebetetzearan eskuratu du erretretarako eskubidea; ofiziala, alegia.
Domekan ospakizun bikoitza izan genuen, eta zein pozik zegoen!
Baina are ilusio handiagoa egin zion aitaren opariak: gitarra! Ez edozelakoa, gainera! "Gitarra española", zioen amak; horixe jotzen jakin nahi izan duela betidanik eta orain, astia izango duela horretan hasteko!
Harrezkero bueltaka nabilkio bizitza-asmoei. Egunerokoak garamatza denboran aurrera, eta burua altxatu artean ez gara ohartzen zenbat buelta oso eman dituen erlojuak.
Geroko, atzoko, udako oporretarako, hurrengo urterako... Zenbat holako esamolde bete gabeko asmo bakoitzaren atzetik?
Gure amak 70eko hamarkadan ama izateko

etxetik kanpoko lana, bulego-lana, laga zuen beste hainbat emakumek bezala.
Anaia eta biok hazita, berriro ekin zion etxetik kanpo lan egiteari: garbitzaile aritu zen urte luzez.
Zer diren gauzak: bulego-lanean jarraitzeko aukera galdu zuen umeak hazteagatik; eta gero, gure ikasketak ordaintzen laguntzeko, atzera ekin zion etxetik kanpo lan egiteari, enpresa bateko garbitzaile gisa, orduan.
Afaltzeko orduan iritsi zen etxera urte luzez, eta beti lantegi bera garbitzen ibili bazen ere, hainbat enpresak azpikontraturik aritu zen behar horretan, harik eta "errentagarri" izateari utzi zion arte.
Orain, azkenean bai, beretzako denbora hartuko du gure amak.
Eta asko poztzen nau horrek, baina, era berean, lotsa ere eragiten dit orain arte horretarako astirik ez duela izan ohartu izanak.
Bejondeizula, ama!
Gozatu erretiroa, eta ea noiz izaten dugun hainbesteko ilusio egin dizun gitarra entzuteko aukera!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxe: 943 25 05 00

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxe: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTEA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxe: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

HERRIAK

ONATI

Atzeko kale osoan, oinez

- Obrak asko aurreratu dira abuztuan, eta jaietarako bukatuko direla espero du Udalak
- Kaleko bizilagunek iritzi ona agertu dute, eta Udalak dio aldaketa "onerako" izango dela

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Abuztuan asko aurreratu dituzte Atzeko kaleko beheko aldea oinezkoendako egiteko obrak. Dagoeneko, lehen errepidea zegoen lekuan, oinezkoendako harbidea ikus daiteke. Asfaltoaren ordez, izan ere, galtzada-harriak ipini dituzte kalean barrena. Oraingo fasean, Ramon Irizar kaleko kantoitik Udaletxe osterara arteko zatia egokitzen dabilta, eta bi kantoi ere bai: Ene Badadendatik Atzeko kalera doana eta Kirrineneko. Obra horiek 209.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Gipuzkoako Urendako azpiegitura batzuk berritzeko lanek, horiekin batera egiten dabiltzanak, 80.000 aurrekontua dute.

Udaleko Hirigintza batzordeburu Irati Etxeberriak honako hau dio: "Obrak egiten dabilen enpresak hornidura arazo batzuk izan ditu, baina Udal oso zorrotz jarraitzen dabil lanak, eta, oraingo martxan jarraituz gero, dena ondo bidean, herriko jaietarako bukatuko dutela espero dugu".

Sarrera, 12:00ak arte

Peatonalizazioa bukatzen denean, baimendutako ibilgailuak bakarrik 12:00ak arte pasa ahal izango dira bertatik; udaltzainek zainduko dute hori. Gero, oinezkoendako bakarrik geratuko dira Atzeko kalea eta ondoko kantoiak. Orain arte bezala, udaletxe atzetik eta Portu kaleatik irteera izango dute ibilgai-luek. Puntu beltz bat desagertu egingo da: alondegiaren eta Kale Barriaren arteko bidegurutzea, hain zuzen ere; gaur egun, oinezkoek eta autoek konpartituta dute zati hori.

Peatonalizazioarekin batera, txandakako aparkaleku sistema hasiko da. Horretarako aparkalekuak honako leku hauetan egongo dira: Bakardadeko Ama kale bukaeran, Oñeren kaseta ondoan; Aita Madina kale osoan; batzoki atzean eta Portu kaleko bi aldeetan; Ramon Irizar kalean; Zubibarrin eta Motxon kale osoan. Atzeko kaleko bizilagunendako aparkalekuak ere egongo dira. Txandakako aparkaleku horietan ordu betez, doan utzi ahal izango da autoa. Horiek arautzen dituen udal ordenantza behin-behineko onartuta dago, eta iraileko osoko bilkuran behin betiko onartu gura du Udalak.



Alondegiaren eta Kale Barriaren arteko bidegurutzeak duen arriskua ekidingo da peatonalizazioarekin. | LK

ESANAK

"Txandakako aparkalekuak jarriko dira martxan, doan ordu betez"

IRATI ETXEBERRIA
HIRIGINTZA BATZORDEBURUA

"Gaur egun, autoak neurritz kanpoko abiadan joaten dira"

JOSE ANTONIO AZPIAZU
BIZILAGUNA

"Bezeroei sarrera itxiko zaie eta banaketan trabak jarri"

SAN MIGUEL KOOPERATIBAKO
LANGILEAK

Horrez gain, kiroldegi pareko lurpeko aparkalekuak orain arte bezala erabilgarri izaten jarraituko duela gogorarazten dute udal arduradunek.

Aparkaleku sistema berria hastearekin batera, bestalde, Kale Zaharreko eta San Anton kaleko bizilagunek salatu dituzten zarata eta mugikortasun arazoak neurri baten konponetzea espero du Udalak.

"Emitzak merezi izango du"

Atzeko kaleko behealdeko obrak bukatzearekin bat, Oñatiko erdigunearen zati handiena oinezkoendako soilik edo haiek lehen-tasuna duten gune bezala geratuko da. Hori da 2014an onartu zen Mugikortasun Jasangarri udal planaren helburuetako bat.

Peatonalizazioarekin, bestalde, Atzeko kaleko bizilagunek lasaitasuna irabaziko dute, ibilgailuen joan-etorritik libratuko baitira. Kaleko bizilagun Jose Antonio Azpiazuk honako hau dio: "Nire iritziz, proiektua ona da; zama-lanak goizean egin ahal izango dira. Gaur egun,

Kooperatibako langileei erantzunez

San Miguel Kooperatibako 13 langilek peatonalizazioaren kontrako iritzia agertu zuten GOIENARI bidalitako gutun bidez (haiek in kontaktuan jarrita, oraingo ez dute beste adierazpenik egin), esanez "bezeroei sarrera itxi eta etxetik etxeko banaketan trabak" jartzen dizkiela proiektuak. Irati Etxeberriak honako hau erantzuten du: "Aldaketa egongo da gero ezin izango delako kooperatiba aurrean aparkatu erosketak egiteko, baina 50 metrora aparkalekuak egongo dira". Gaineratu duenez, "Udalak gogoan du kooperatiba eta neurriak ez da euren kontra; gure ustez, azkenean, onerako izango da".

Kale Barrian ezin denez zirkulatu, Atzeko kaletik auto batzuk neurritz kanpoko abiadan joaten dira eta arriskua sortzen da; eta batzuetan autoak espaloira igota aurkitzen dituzte oinezkoek". Gaineratzen duenez, "obra luze samar doa, baina emaitzak merezi izango du".

Iritzi antzekoa azaldu du bizilagun talde batek GOIENARI bidalitako gutun baten: "Oso pozik gaude, azkenean, gure kalearen oinezkoendako obrak burutu izanagatik. Are gehiago, uste dugu obra hori, Kale Barrian egin zen moduan, kale guztia goitik behera hartuta egin behar izan zela bere garaian".

Irailean, Mugikortasun Astea egingo da, eta orduan, arlo horretako nahikotxo neurri eta ekintza aurkeztuko ditu Udalak, irailean eta urrian martxan jarriko direnak. Besteak beste, erdiguneko txandakako aparkalekuak, Atzeko kaleko bizilagunendako aparkalekuak, Herri Busaren proba pilotua, peatonalizazioa eta Txaketua eta Caixa banketxe arteko zatia 12:00etatik aurrera oinezkoendako uzteko proba pilotua ere.

Montrealgo GSEF2016 Foroan izango da Ubarretxena alkatea

- Arrasate mundu mailan aurkeztera eta bailarako eredu ekonomikoa defendatzera doa
- 2018. urtean Bilbok kongresua hartzeko hautagaitza babestea da bigarren helburua.

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Maria Ubarretxena Montrealen izango da irailaren 7tik 9ra ospatuko den Gizarte Ekonomiaren Mundu mailako III. Foroan parte hartzeko. Kongresua bi urte-tik behin egiten da eta bere helburu nagusia garapen ekonomiko iraunkorraren eta orekatuaren motor izatea da.

Horretarako, 2.000 pertsonatik gora batuko dira 35 herrialdetako gizarte ekonomiari buruzko 90 proposamen inguru jorratzeko. Foroan, Paris edota Rio de Janeiro bezalako hiriek hartuko dute parte, eta Arrasate aurkezteko eta bailarako gizarte ekonomia balioan jartzeko asmoz doa Ubarretxena Montrealera. Bi ekintzatan parte hartuko du. Horietako batean, Seul, Lille eta Montreal hirieta-ko alkateekin batera mahai boro-bila osatuko du.

"Montrealgo alkate Denis Coder gurekin kontaktuan jarri zen gonbidapena helarazteko. Kooperatibei esker Arrasatek mundu mailan duen oihartzuna guk uste duguna baino handiagoa da, eta oso pozik gaude era honetako kongresu batean parte hartzeko aukera izateagatik. Hori aprobetxatu nahi dugu, gure ereduaz harro gaudela esateko", adierazi du Ubarretxenak Arrasate Irratiko mikrofonoetan.

Bilbo 2018 defendatzera

Arrasate eta Bilbo izango dira aurtengo kongresuan izango diren hiri euskaldun bakarrak. Bizkaiko hiriburua, parte hartzeaz gain, 2018. urtean kongresua Bilbon egiteko hautagaitza aurkezttera doa. Hurrengo kongresua Euskal Herrira ekartzea lortuz gero, Arrasatek bertako ekintza batzuk hartzeko aukera izango luke; beraz, Bilbo eta Arrasate eskutik emanda joango dira.

"Bilboko Udalak proposamena egin zigun beraien kandidatura babesteko, eta gure erantzuna baiezkua izan zen. Guk ere apustua egin nahi dugu hemendik bi urtera kongresu hori Euskadin ospatu dadin, eta Arrasatek bertan parte hartze aktiboa eduki dezan", adierazi du Ubarretxenak.

Hori lortzeko, harreman zuzena mantentzen ari da Arrasateko Udala Bilboko eta Foroko ordezkariarekin. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Konfekoop bezalako erakundeek eman diote babesa Bilboren hautagaitzari. Goi-nara egindako bisitan kontu hauek ere landu zituen alkateak.

LKSri esleitu diote Aprendices eraikinaren diseinua

11 enpresaren artean puntuazio altuena jaso du kooperatiba arrasatearrak

Maiatzaren bukaeran Arrasateko Udalak akordioa lortu zuen SPRI erakundearekin Aprendices eraikinaren jabegoa lortzeko. Behin hori lortuta, lehiaketa publikoa abiarazi zuen eraikina birgaitzeko proiekturik egokiena aukeratzeko, eta LKS kooperatibak aurkeztutakoa izan da balorazio onena lortu duena.

"Sorpresa pozgarria izan da guretzat hain maila altuko lehiakideen artean enpresa bat garaile atera izana. Lehiaketa publikoa eta gardena izan da eta edonork irabazi zezakeen. Bisita bat egingo dugu LKSkoekin batera eraikina zein egoeratan dagoen ikusteko, eraikinaren horma eta pareta originalak ez direlako botako".

Guztira hamaika enpresa aurkeztu ziren, eta tartean zen, besteak beste, Victoria Eugenia antzokiaren berriztatze lanak egin zituen enpresa. Proiektuaren alderdi



LKS

teknikoaren eta kostuaren arteko orekak emandako puntuazioan LKSren proiektua izan da garaile 90,34 punturekin. Proiektu merkeen rankingean zazpigarrena zen, baina alderdi teknikoan balorazio onena lortu

izanak eragin du puntuazio orokor altuena izatea. Maier Velez Olabarria arkitekto arrasatearraren taldeak aurkeztutako proiektua izan da bigarrena (84,87 puntu), eta Maab estudio bilbotarrarena hirugarrena.



GOIENA

Salaketa adingabeei alkohola saltzeagatik

Herriko komertzio baten aurka salaketa jarri du Arrasateko Udalak, adingabeei alkohola saltzeagatik.

"Lokal horretan adingabeei alkohola saltzen zitzairen informazio genuen, eta, hori jakinda, praktika horiek saihesteko abisua pasa zitzairen behin baino gehiagotan. Hala ere, dendariak alkohola saltzen jarraitzen zuten. Beraz, hori juridikoki frogatzeko zerbait egin behar genuela erabaki genuen Herri Segurtasunerako arduradunarekin batera. Hala, kaletar jantzitako udaltzain bat bertara joan eta aurrez aurre ikusi zuen adingabe batzuei alkohola nola saltzen zieten", adierazi du alkateak. Salaketaren eraginez, 3.100 euroko isuna ezarriko zaio komertzioari eta hilabetez jarduna etetera behartuta egongo da.



IMANOL SORIANO

Zapatu goizero bertoko produktuen azoka

Arrasateko Udal Gobernuak beste egitasmo bat pentsatzen ari da tokiko merkataritzaren alde egiteko. Oraindik guztiz zehaztu gabe dagoen arren, zapatu goizero Euskal Herriko ekoizleen produktuak saltzeko azoka bat jarri nahi dute Biteri plazan.

"Badaukagu pentsatuta proba moduko bat egitea baserritarren produktuak laguntzen saltzeko. Ez dakit urritik aurrera izango den, baina nekazal produktuen azoka bat egitea pentsatu dugu Biteri plazan. Asmoa da larunbatero egitea, larunbat goizero. Jende askok esan digu lanean egoteagatik ezin direla asteazken eta ostiral goizetan azokara joan. Esperientzia pilotu bat izango da; ikusi egin beharko da zer erantzun duen. Hala ere, apustua egin nahi dugu ekoizle txikiei erraztasunak emateko", adierazi du Maria Ubarretxenak.



GOIENA

Heroina kontsumitzeko xiringak kalean

Azkenaldian xiringak agertu dira herriko hainbat lekutan eta baita droga hau erre ondoren utzitako arrastoak ere. Batez ere jende gazteak kontsumitzeak eragin ditu harridura eta kezka herritarrengan, eta baita Udal Gobernuarengan ere. (Informazio gehiago 2. orrian).

"Oso kezkatuta gaude eta kalean kezka sumatzen dugu. Kontsumoaren gorakadari buruzko datu zehatzik ez dugu, baina larria iruditzen zaigu ditugun aurrekariarekin era honetako droga bat berriz azaldu izana. Agian belaunaldi berriek ez dute bizi izan guk aurretik bizi izandako guztia eta zeintzuk izan diren droga honen kontsumoak utzitako eraginak. Eskutitz ofizial bat bidaliko dugu Herrizaingo Sailera, eta, gai hauetan adituak diren elkarleen laguntzarekin, ikastetxeetan gai honen lanketa bat egitea nahi dugu".

Trikitia eta gin-tonica, jarraipena duen nahasketa

Trikiti Eskolaren 25. urteurreneko ekintzen barruan, 'Trikigin'-aren II. edizioa antolatu dute

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasateko Trikiti Eskolak zilarrezko ezteiak egin ditu aurten. Zifra borobil hori ospatzeko trikitiak kalera atera eta herri-tar guztiekin gozatzeko asmoz, egitarau zabala prestatu dute irailerako.

Trikigin

Prestatutako ekintzen artean lehena izango da iaz lehen aldiz antolatutako *Trikigin*-aren bigarren edizioa.

Irailaren 8an, eguna, egingo dute. 18:00etan hasita, herriko plazan herriko tabernarien gin-tonic erakustaldia egingo dute, betiere, zuzeneko trikiti doinuekin girotuta. Erakustaldian parte hartzen duen taberna bakoitzak bospasei gin-tonic prestatuko ditu eta ondoren bat pasatuko die epaimahaiko kideei. Gin-tonicaren zaporea ebaluatzeaz gain, berau egiteko prozesuan erabilitako teknika,

estiloa eta garbitasuna ere hartuko dituzte kontuan. Eskolaren urteurrena dela eta, iaz baino taberna gehiagok izena ematea nahi dute antolatzaileek. Horretarako, irailaren 5a baino lehen 617 66 54 76 telefonora deituz eman dezakete izena orain arte egin ez dutenek.

Aurreko edizioko arrakasta ikusita, olagarroa dastatzeko postutxoia ere jarriko dute eta iazko pandero artisauak bere produktuak ekarriko ditu. Hori gutxi balitz, Txatxilipurdik gaztetxoentzako jolasak prestatuko ditu, eta Trikiti Eskolaren datorren ikasturtean izena emateko mahai bat jarriko dute.

Hitzaldia eta erromeria

Irailaren 16an Xabier Zabala eta Asier Gozategik hitzaldia emango dute Kulturaten, eta hilaren 23an, kalejira egin ostean, erromeria txiki bat egingo dute Herriko Plazan.



Trikitia eskolako kideak iazko ekintza baten. | GOIENA

EAJk eta EH Bilduk posta bidez botoa emateko aukera

X.G. | ARRASATE

Irailaren 25eko hauteskundeetara begira, EAJk posta bidezko botoa emateko lokal bat prestatu du. Maala kaleko 3. zenbakian dago, lehengo Zeziaga denda zegoen tokian. Irailaren 1etik 15era arte egingo da zabalik 17:30etik 19:00ak arteko ordutegiarekin, eta informazio gehiago nahi dutenek 943 79 12 26 telefonora deituz lor dezakete.

Koalizio abertzaleak ere emango du alde zuzenetik bozkatzeko aukera. Pablo Uranga kalean duten egoitzan izango dira ondorengo egun eta orduetan. Irailaren 5ean eta 12an arratsaldean, 18:30etik 20:30era, eta hilaren 6 eta 13an goizez, 11:00etatik 13:00etara. Horretaz gain, irailaren 8an Irati tabernan eta Portaloian ere jarriko dute botoa postaz emateko aukera, 18:30etik 20:30era.

Erlojuaren eraikina zaharberritzeko lehiaketa abian da

Aprendices eraikinarekin egin bezala, Arrasateko Udalak martxan jarri du erlojuaren eraikina birdiseinatze lehiaketa publikoa 272.000 euroko aurrekontuarekin.

Hainbat kultur elkarte eta udal euskaltegi berria hartuko ditu bere baitan eraikin berriak.



Alfontso VIII kaleko konponketa lanak aste honetan. | XABI GOROSTIDI

Alfontso VIII kalea eraldatzeko konponketa lanak martxa onean doaz

Uztailaren 12an hasi zituzten lanak eta azarorako amaitzea espero dute Hirigintza Sailekoek

X.G. | ARRASATE

Martxan da Takolo-Goiru proiektuko bigarren fasea, Alfontso VIII. kalearen bitartez Forueneko eta Takoloko biribilguneak lotzen dituen zatiarena, hain zuzen.

Sasoi Eraikuntzak enpresa da lanak egiteko arduraduna, eta bertako langileek adierazitakoaren arabera, konponketak aurreikusitako erritmoan doaz. Lanak uztailaren 12an hasi ziren eta Arrasateko Udaleko Hirigintza Sailak espero du azaroan amaituta egotea.

Bertako eginbeharrak errepidea estutu, espaloiak zabaltu eta aparkaleku gutxi batzuk gehitzea izango da. Horretaz gain, San Andres Herri Eskolaren ondoan autobus geltoki bat egitea ere aurreikusten du proiektuak.

Trafikoa desbideratuta

Lan hauek egin ahal izateko, trafikoa San Andres auzo barrutik desbideratzen ari dira. Hala, azarora bitartean, Foruenetik Takolorainoko norabideak erabigarri izaten jarraituko du; baina, alderantziz, Takolotik Foruenera joateko San Andres auzoa zeharkatu beharko da.

Konponketa lan gehiago

Beste konponketa lan bat Ferrerias kaleko Aroz plazan egin dute. Plaza berritzerakoan jarritako aulkiak egoera tamalgarrian zeuden. Egurrezko zatiak aulkiari lotzeko bisagrak agerian zeuden, eta biztanle batzuek euren kezka azaldu zuten. Uztailean haur batek zauria egin zuen –zortzi puntu eman zizkioten–, eta orain aulki berriak jarri dituzte.

Debaldeko pintxoak eta zezensuzkoa izango dira Zarugaldeko jaietan

Eguerdiko 12:00etan emango diete jaiei hasiera txupinaren jaurtiketarekin eta haurrentzako jolasekin eta triki bertso poteoan tabernei debaldeko pintxoak jarriko dituzte.

Mus txapelketak, bonba japoniarrek, afariak, zezensuzkoak eta zuzeneko kontzertuek osatzen dute egitaraua.

Ibai-artek antolatuta Merkemerkaua egingo da irailaren 17an

Martxoan antolatutakoaren ondoren, Arrasateko merkatarien elkarteak beste merkemerkau bat egingo du irailaren 17an.

Herriko hainbat dendak prezio erakargarriak dituzten produktuekin beteko dituzte Arrasateko kaleak, erosleek deskontuak aprobetxa ditzaten.

NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA



Arrisku kapitalik gabeko arriskua

Azkenaldian Euskadin bere egoitza duten enpresa nabarmen batzuk kanpotarren eskutan jausi dira. Garbi dago gure etorkizuna lantzeko jardura berriak sortzea ezinbestekoa dugula. Horretarako ideiak, teknologia, lana, ausardia eta bereziki, dirua uztartu beharko ditugu.

Duela gutxi Garaia Berrikuntza Gunean izandako “arrisku-kapitalaren egoera Euskadin” ideia orokor hau garatu zen: Euskadin diru gutxi erabiltzen da jardura berriak abian jartzeko. Alegia, bertako banketxeek eta funtsek ez daukate eskarmenturik arrisku-kapitalean inbertitzen, labur esanda, nahiago dutelako burtsan inbertitzea.

Egoera hau ez da berria. Esate baterako, Silicon Valley sortu zenean bertako inor ez zegoen prest enpresa berriak sortzen dirua inbertitzeko. Ondorioz, 1972. urtean, Kaliforniako Estatuak zerga kentariak eskaini zituen banketxeetan eta pentsio funtsetan lotan zegoen dirua jardura berriak sortzera mugiarazteko. Horrek ahalbidetu zuen gaur egun ezagutzen dugu mirari teknologikoa.

Antza denez, Espainiako estatuan erabiltzen den arrisku-kapitalaren %40 Katalunian kokatzen da, La Caixaren eraginez. Euriborra balio negatibotan dagoen honetan, banketxeek gero eta zailagoa dute mailegu arruntetatik etekin handiak ateratzeko. Beraz, 1972an Kalifornian gertatutakoaz badaukate zer ikasi.

"Euskadin gutxi inbertitzen da jardura berriak abian jartzeko"

arbolapeta



Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Iker Barbero | Saskibaloia jokalaria

"Ointxe! da nire familia, baina Valentziakoa ezin nuen galtzen utzi"

- Lehen Nazional mailan jokatu du Ontiyenten
- Urtebeterako kontratua sinatu du arrasatearrak

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Kamisetari zuri-morea gorriaren-
gatik aldatu du. Hamabi den-
boraldi Ointxe!-n egon ostean
Valentzian jokatu du Iker Bar-
berok. Abuztuaren 31n aurkeztu
zuten taldea eta urriaren 8an
hasiko dute liga txapelketa.
**Urtebeterako zoz Ontiyent herri-
ko taldera. Zorionak!**
Abuztu hasieran jaso nuen euren
eskaintza eta ezin nion ezetzik
esan. Bitan pentsatu barik onar-
tu nuen proposamena. Urtebete-
rako kontratua sinatu dut, baina
taldea EBArat igotzen bada, auto-
matikoki, beste denboraldi bat
geratuko naiz.
Izan ere, hori da taldearen helburua. EBArat igotzea.
Bai, hala da. Eta helburua lor-
tzeko asmoz fitxaketa onak egin
dituzte.
Deigarria izan daiteke askorendako EBAtik Lehenengo Nazional Mailara joango zarela jakitea. Atzera-pausoa dela esango dute askok.
Ez dut uste hala denik. Urte asko
egin ditut Arrasaten, oso gustu-
ra, baina erronka berriak beste
saskibaloia mota bat ezagutzeko

eta nire lana ezagutzera emateko
balio izango dit. Erakusleio
garrantzitsua izango da niretzat.
Bereziki, beste esperientzia bat
bizi izateko aukera paregabea
dela esango nuke.
**Taldea edo taldekideren bat eza-
gutzen duzu?**
Ez. Egoera berria izango da nire-
tzat. Taldea, taldekideak, herria,
kluba... Badakit herriko eta ingu-
ruko jokalariek direla taldearen
oinarri. Jokalari umilak direla
ere esan didate.

**"EBA mailara
igotzea da urteko
helburu nagusi eta
bakarra"**

**"Umeekin
entrenatzeko aukera
izango dudala esan
didate"**

Zer esan dizute etxean?
Oporretan nengoen proposamena
jaso nuenean eta nirekin zeuden
Mikel eta Gorka Arexolaleiba
taldekideak. Haiekin berba egin
nuen eta proposamena onartzeko
esan zidaten. Etxeok ere pozik
daude erabakiarekin.
**Ontiyenten saskibaloian jokatu
duzu bakarrik?**
Klubeko harrobiko jokalariek
entrenatzeko aukera izango nue-
la esan zidaten. Alor hori gustu-
ko dut. Bestalde, ikasketak buka-
tu ditut, eta lanen bat topatzen
lagunduko didatela ere esan
didate. Baina, poliki-poliki joan-
go naiz.
**Gogotsu ikusten zaitugu, baina
pena apur batekin ere bai.**
Urte asko egin ditut Ointxe!-n.
Hemen hazitako jokalaria naiz.
Esker oneko hitzak besterik ez
dut. Ointxe! familia bat da. Talde
bat baino askoz gehiago. Lagunak
ditut han. Lagun minak. Lerro
hauek aprobetxatu gura ditut
horiei guztiei eskerrak emateko,
bihotzez. Dena den, ez dakit noiz,
baina Arrasatera jokatzerat itzu-
liko naizela.



Iker Barbero, Ointxe!-ren kamisetarekin. | GOIENA

Jokalari garrantzitsuen hutsuneak

Iker Barberoren hutsuneaz gain, beste bi jokalaria garrantzitsuren falta izango du EBA mailako taldeak ligari aurre egin ahal izateko. Beñat Barberena eta Imanol Zeziaga, lan kontuengatik, Txinara joan behar dira. Hori horrela, Barberenak Gabonak pasa arte ezin izango du jokatu. Aldiz, Zeziaga liga hasierako hilabeteetan egongo da Larreategiaren aginduetara. Panorama ikusita, saskibaloia uzteko asmoa zuen Ander Atxak beste denboraldi batez kantxa jarraitzea erabaki du. Fitxaketak ere egin beharko ditu Ointxe!-k. "Harrobia lantzen jarraituz, aurrera egingo dugu", esan du entrenatzaileak.

Erakusketak, liburu aurkezpena eta zinema-emanaldiak iraileko egitarauan

'Buscando a Dory' 3D formatuan emango dute hilaren 17an eta 18an

M.B. | ARRASATE
Kultura Sailak kaleratu du irai-
leko kultura gida. Oporren oste-
ko ekintzen artean daude era-
kusketak, zinema-emanaldiak
eta liburu aurkezpena, besteak
beste.

Erakusketak
Muzibar-Arbolapeta-San Fran-
tzisko eremuaren antolaketa
berria izango da irailaren 13an
zabalduko den erakusketaren
oinarria. Zona hori eraberri-
tzeko dauden aukera ezberdinak
erakusten dituzten panelak
herriarren eskura ipiniko dituzte
Kulturaren, hilaren 28ra arte.
Bestalde, Harresi Aretoan
ikus daiteke oraindik ere Bixen-
te Barandiaran Arrasateko azken
errementariaren omenez egin-
dako erakusketa iraunkorra,
egunetan, egubakoitzetan eta
zapatuetan.



Bixente Barandiaranaren omenezko erakusketako irudi bat. | GOIENA

Liburu aurkezpena
Uztaileko eta abuztuko eten-
aldiaren ostean, zinemaz gozatzeko
aukera egongo da berriro ere
irailean. *Gernika* eta *Buscando
a Dory* egongo dira hilaren 17tik
19ra arte Amaia antzokian.

Azkenik, hilaren 14an, Santos
Jimenez idazlearen txanda izan-
go da. *Covalverde* delako liburu-
aren aurkezpena egingo du Kul-
turaren. Gerra zibilaren hasierak
bere jaioterrian eragindako sarras-
kia kontatuko du.

Eskalada ikastaroak egingo dituzte irailean, Arrasaten eta Aretxabaletan

Ibarran eta Uarkapen egingo dituzte saioak

M.B. | ARRASATE
Ikasturte berriaren atarian,
Debagoieneko eskalada eskolak
ikastaro bi egingo ditu eskala-
dan hasi gura dutenendako edo
duten ezagutza hobetu gura
dutenendako. Arrasaten eta
Aretxabaletan egingo dituzte.
Arrasaten irailaren 5ean, 6an,

7an, 12an, 13an eta 14an, Uar-
kapeko rokodromoan; eta, Are-
txabaletan, irailaren 20an, 22an,
27an eta 29an, Ibarra kiroldegian.
Biak ala biak 18:00etatik 19:00eta-
ra egingo dituzte.
Ikastaroan parte hartu gura
dutenak lehen egunean agertu
beharko dira.

Zabaldu berria!

Chic

ESTILISTAK

CERTIFIED ORGANIC

ECO FRIENDLY PRODUCT

SLS & DEA FREE

PARABEN FREE

NOT TESTED IN ANIMALS

Orduetgia:

Astelehenetik asteazkenera: 09:30 – 16:00

Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 – 19:00

Zapatuetan: 09:00 – 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

%100 beganoa

den linea organikoa

zure ilearentzat

Zaindu eta babestu

zure ilearen

pH egokiena



Konponketak Bergarako Haurreskolan. | IMANOL BELOKI

Normaltasunez hasiko dute ikasturte berria Haurreskolan

Uztail erdialdean sutea izan zen, eta udan konponketa lanetan ibili dira

I.B./M.T. | BERGARA

Uztailaren 15ean Matxiategi auzoan kokatuta dagoen Bergarako Haurreskolan eragindako sute batek kalteak sortu zituen instalazioetan, 2015-2016 ikasturtea bukatzeko astebete eskas falta zela. Hala, azken aste horretan ezin izan zuten zerbitzua eskaini, eta gurasoei umeak inguruko herrietako Haurreskoletara eramateko aukera eman zieten.

Hasiera, normaltasunez

Sutea gertatu zenean, uztailean, eskolako langile eta arduradunek ez zekiten irailerako kalteak konponduta egon ahal izango ziren. Azkenean, baina, astelehenean, irailak 5, normaltasunez hasiko dute 2016-2017 ikasturte berria Bergarako Haurreskolan matrikulatuta dauden 0 eta 2 urte bitarteko 15 neska-mutikoek. Oraindik

ez dakite zeintzuk izan ziren arduradunak, baina Udaltzaingoaren arabera, gaztetxoaren arteko jolas edo bihurrikaria izan zitekeen; eraikinaren atzealdeko jolastokian zeuden plastikozko jostailu batzuei sua eman eta azkenik uste baino gehiago zabaldu zen.

Sutearen ondorioz, eskola barruan, pertsianak, kristalak eta ondoko gelak kiskali edo hondatu egin ziren. Argindarra eta alarma, esaterako, hondatu ziren sutearen ondorioz.

Eraikinaren konponketa lanak berehala hasi zituzten, eta gaurko egunez ia bukatuta daude. Hala ere, oraindik fatxada eta kanpoko patioiko lurra konpontzea geratzen dira, eta hilabeteko epean amaituta egotea espero dutela adierazi du Elena Lete alkateak.

Egindako lanak

Udan zehar egindako lanen inguruko azalpenak eman ditu Elena Lete Bergarako alkateak: "Suak sortutako kalteak ziren; fatxada-koak, aroztegi lanak, lurra... baina barrualdekoak gehienbat keak sortutako kalteak ziren. Dena margotuta, garbituta, igeltsua emanda eta aldatuta dago, eta gaur egun ez dago erre usainik. Horrez gain, instalazio elektrikoak eta suaren aurkako instalazioak egokitu eta aldatu behar izan dira".

Lanen kostu osoa zehazteke

Konponketa lanak Bergarako Goitu enpresak egin ditu. 84.000 euroko hasierako aurrekontua zegoen prestatuta obra egiteko, baina benetako kostua oraindik zehazteko dago, artean hainbat konponketa egitea falta delako.

Datorren astean hasiko da eskola ikasturte berria

M.T. | BERGARA

Udako oporrak atzean utzi eta datorren astean ekingo diote 2016-2017 ikasturte berriari Bergarako ikastetxeek.

Hala, Aranzadi Ikastolan maila guztietako ikasleek, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino, irailaren 7an, eguaztenean hasiko dituzte eskolak. Gauza bera San Martin Herri Eskolan eta Ipintza institutuan, baita Migel Altuna institutuan ere.

Aldiz, Mariaren Lagundia ikastetxearen kasuan egun bat lehenago hasiko dira, irailaren 6an hain zuzen, martitzena.

Botoa postaz emateko bulegoak zabaldu dituzte

M.T. | BERGARA

Hainbat alderdik datorren irailaren 25eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan botoa postaz emateko bulegoak zabaldu dituzte. EH Bilduren bulegoa Irizar parkean dago, eta honako ordutegian egongo da irekita: asteleheneetik ostiralera; goizez 11:00-13:30 eta arratsaldez 18:00 - 20:30. EAJren bulegoa, berriz, Ibargarai ko 15ean dago. Ordutegia: goizez 11:00-12:30 eta arratsaldez 18:00-20:00. PSE-EEk Bidekurutzetako bulegoa zabalik dauka ordutegi honetan: 11:00-13:00 eta 17:30-20:00 Hilaren 15a da azken eguna.



JOSU BILBAO

Edukiontzia eta autoak sutan

Abuztuaren 17ko goizaldean hiru edukiontzi erre eta zortzi auto kaltetuta geratu ziren Irla kalean, Irizar parkearen alboan, izandako sute baten ondorioz, Kalteen ondorioz, eta segurtasuna bermatzeko, ondoan zeuden hiru zuhaitz ere bota behar izan zituzten. Asfaltoak berak ere kalteak izan zituen, eta gaur egun hainbat aparkaleku itxita daude, gunea konpondu eta txukuntzeko lanek iraun bitartean.

Turistei zuzendutako panel berriak jarri ditu Udalak

M.T. | BERGARA

Bisitariak herriaren erdiguneko interesguneetara bideratzeko seinalizazioa berritu du Udalak pasa den astean.

Aparkaleku nagusietatik edota autobus geltokitik datozenak herriko alde historikorantz eta Laboratorio museo-rantz edota Turismo bulegorantz bideratzeko panelak aldatu eta berriak jarri dituzte, lehen zeudenak "zaharkituta" zeudelako eta "informazio nahasia" eskaintzen zutelako. Guztira, hamar dira jarri dituzten seinale berriak.

Oraingo seinale berri hauek gain, herriko monumen-

tuetan zein historikoki interesgarriak diren txokoetan hainbat informazio panel aurki daitezke herriko alde zaharrean.



Bidekurutzetako seinale berria. | UDALA



Guadalupe Mentxakak eta Margarita Kerejetak ehun urte



ARGAZKIAK: BERGARAKO UDALA ETA MIZPIRUALDE EGOITZA

2016ko apirilaren 8az geroztik, Mariaren Lagundiako komunitateko moja den Guadalupe Mentxaka zorrotzarrak ehun urte bete ditu uda honetan. Bestalde, atzo, irailak bat Mizpirualdeko egoiliarra den Margarita Kerejetak ere beste hainbeste bete zituen. Hala, Udalak omenalditxo egin nahi izan die, eta alkatearen bisita eta oroigarri bana jaso dute.

Zabalik dago diru udal laguntzak eskatzeko epea

M.T. | BERGARA
Herriko elkarte edo taldeek Bergarako Udalarari diru laguntzak eskatzeko deialdi irekiaren epea zabalik dago. Eskaerak irailaren 30era arte aurkeztu daitezke, eta laguntzak 2016ko urtealdian egitekoak diren proiektuetarako izango dira.

Sail desberdinak
Udal interesekotzat jotako jarduerak sustatuko dituzte diru laguntza programa honen bitartez. Udal interesekotzat jotzeko, herri erakundeek lantzen ez dituzten ekimenak izan beharko dira, edo bestela, horiek landutako ekintzen osagarri.

Hainbat arlotako diru laguntzak eska daitezke, eta horietako bakoitzak bere oinarriak izango ditu: gizarte zerbitzuak, kirolak, kultura eta ingurumena.

Nola egin eskaerak
Esan bezala, irailaren 30era aurkeztu daitezke eskaerak, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara Udaletxeko Erregistro Orokorrean. Hala, horretarako eskatzaileak eskabide erdua bete eta sinatuta aurkeztu beharko du. Eskabide orri horiek www.bergara.eus webgunean daude eskuragarri, baita udal bulegoetan ere. Udalaren aldetik, erabakiak hartu eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da.

Janariekin kontserbak egiteko ikastaroa antolatu dute

M.T. | BERGARA
Kontserbak egiteko iastaroa egingo dute irailaaren 12an, 13an eta 15ean San Josepe jubilatuaren elkarteak. Bertan, era desberdinetako jakiak prestatuko dituzte, eta ondoren, ondo kontserbatzeko pototan sartzeko modu desberdinak ikasiko dituzte.

Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuneko Maite Argoitiak emango du ikastaroa. Barazkiekin, frutekin, haragiarekin edota arrainarekin egingo dituzte kontserbak. Hilaren 12an, 13an eta 15ean, 17:30etik 20:30era jardungo dute ikasten. Izena emateko 30 euro ordaindu behar dira. info@bizi-



Kontserba potoak. | WIKIPEDIA

kasi.com helbidera idatzita edo 943769394 telefonora deituta apuntatu daiteke. Migel Altuna Institutuak Bergarako Udalarekin batera antolatu du egitasmoa.

Baratzeko produktuen azoka San Juan auzoan

M.T. | BERGARA.
Ekaineko San Juan auzoko jaietan egindako VI. ortu lehiaketako produktuekin azoka egingo dute domeka honetan, irailak 4.

11:30ean izango da azoka elizako plazan, eta 12:00etan Arragoa taldeak kontzertua eskainiko du.

12:30etan azokako produktua dastatzeko aukera izango da. Hala, bost euroren truke plater konbinatua eta edaria eskainiko dute.

Horrez gain, aurtengo ortu lehiaketako argazkien erakusketa ere izango da ikusgai San Juango plazan.

Herriko hainbat gunetan konponketak egiten dihardu Udalak

Bergarako hainbat gunetan asfaltatze eta margoketa lanak egiten dihardute egunotan. Espoloian, Basarten, Leizeagan, Urdangarin pasealekuan, Matxiategin, autobus geltokian edota Zubiaurre kalean burutuko dituzte abuztu amaieran hasitako lanok, abuztu bukaeran, eta urrira arte luzatuko dira.

Astelehenean hasiko dira danborradarako entseguak

Hitzorduak irailaren 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an izango dira seminarioko karpan. Umeenak 19:00etan, eta helduenak, berriz, 20:00etan. Parte hartzeko beharrezkoa da lau urte baino gehiago izatea. Nagusien danborrada irailaren 15ean izango da, gauez, eta umeena irailaren 16an, arratsaldean.

Musika eskolako matrikulazioa zabalik dago irailaren 21a arte

Astelehenean, hilak 5, hasiko dute ikasturte berria Bergarako Musika eta Dantza Eskolan. Matrikula egiteko aukera irailaren 21a arte zabalik dago. Idazkaritzako ordutegia honako hau da: 15:30etatik 19:30etara. Informazio gehiagorako, idezkaritza@bme.e.telefonica.net, 943-765780, edo bertaratuta.

Pol Poleko beteranoak Pirinioetan izango dira datorren asteburuan

Irailaren 9, 10 eta 11n Pirinio aldean ibiliko dira Pol Pol mendizale taldeko beteranoak. Hain zuzen, Torlara joango dira, eta inguruetan mendi txangoak egingo dituzte. Bestalde, gazte taldearen ikasturteko lehen irteera hilaren 25ean izango da. Kanpazar-Besaide-Anbot-Urkiola ibilbidea egingo dute.

12 eta 13 urtekoendako deialdia egin du saskibaloia sailak

Saskibaloia gustuko duten 2003 eta 2004 urte artean jaiotako gaztetxoak deitu nahi dituzte Bergara Kirol Elkarteko saskibaloia sailekoek, datorren denboraldira begira egingo duten informazio saioetara. Bi hitzordu izango dira: irailaren 6an eta irailaren 8an. Biak 18:45ean Mariaren Lagundian.

Giartzu gimnasio eta karate klubaren ikasturte hasiera!

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
07:30	Zabalik	Zabalik	Zabalik	Zabalik	Zabalik
08:00		Easy zirkuitua	Body Balance	Body-Gym	
09:00	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea	Easy zirkuitua	Spinninga	Easy zirkuitua	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea
10:00	Hirugarren adinekoentzako gimnasia	Spinninga	Hirugarren adinekoentzako gimnasia	Spinninga	Hirugarren adinekoentzako gimnasia
13:15	Easy zirkuitua		Easy zirkuitua		Body-Gym
15:00		Easy zirkuitua		Easy zirkuitua	
16:00	GAP	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea	GAP	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea	GAP
17:00	Gazteentzako spinninga	Body Balance	Gazteentzako spinninga	Body Balance	Luzatze-ariketen eskola
18:00	Easy zirkuitua	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea	Easy zirkuitua	Hipopresiboak eta bizkarra indartzea	Entrenamendu bereziak
18:00	Umeentzako karatea	Gazteentzako spinninga	Umeentzako karatea	Gazteentzako spinninga	
19:00	Body Balance	Body Balance	Body Balance	Body-Gym	Nagusientzako karatea
19:00		Spinninga		Spinninga	
19:30	Easy zirkuitua		Easy zirkuitua		
20:00	Nagusientzako karatea	Defentsa	Nagusientzako karatea	Defentsa	
20:00		Spinninga		Spinninga	

Ordutegia:
Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 07:30etik 21:15era (jarraian)
Astearteetan eta ostegunetan 07:30etik 13:00etara eta 14:30etik 21:15era



BERRIA! Muskulu-elektroestimulazio bidezko lan-sistema berria dugu (EMS)!



GIARTZU gimnasioa / karate kluba

Boni Laskurain 3 behea BERGARA - 943 763005 - gimnasio@giartzu.com - www.giartzu.com

Informa zaitez!

Kofradixetan gelditu barik ibiliko dira osintxuararak gaurtik domekara arte

Gaur gauean, aurten lehen aldiz antolatu duten 'Osintxun Musikara!' musika talde eta bakarlariei zuzendutako lehiaketaren finala izango da plazan

M.T. | BERGARA

Udako oporretatik buelta leuntzeko, gaur hasi eta domekara bitartean Kofradixak ospatuko dituzte Osintxun.

Berrikuntzen artean, nabarmentzekoena musikarekin dago lotuta. Aurten, lehenengoz, Osintxun Musikara izeneko lehiaketa egin dute taula gainean izango diren taldeak aukeratzeko.

Gaur, mozorroak soinean

Gaur, egubakoitza, 18:00etan etxafuego jaurtiketak emango die hasiera jaiiei, eta jarraian Sorazuzerantz abiatuko dira bizikletak hartuta eta mozorroak soinean. Han mokadutxo egin eta Osintxura itzuliko dira, Bergarako Mokoloen aurka futbitoan jokatzera, mozorro eta guzti. Gero, buruhandiak izango dira

Zapatuko hitzorduak

Bihar goizean umeendako jolasak izango dira, eta eguerdian, berriz, 12:30ean, bertso baserri poteoa, Lekaixoka taldeko bertsolariek lagundutako luntx eta guzti.

15:00etan koadrilen bazkaria egingo dute frontoian. Norberak bere bazkaria eroan beharko

du, eta jai batzordeak suak jarriko ditu janaria berotzeko.

Arratsaldez elektrotxararak alaituko ditu kaleak, 18:00etan gastronomia txapelketa izango da. Patatak "osintxuar erara"

Osintxun Musikara!

Gaur gauean izango da finala, 22:30ean hasita. Lehiaketara aurkeztutako taldeen artean finalistak honezkero aukeratu ditu antolakuntzak, eta agertokian arituko dira seiak: Moon Shiners (Durango), Hoax Attack (Santurtzi), Oso Basatis (Plaentxi), Perlata (Arrasate), The Grace of Dionysus, (Zumaia) eta The Vartools (Eibar). Talde irabazleak 500 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 200 eurokoa.

prestatu beharko dituzte, txorizoarekin eta saiheskiarekin.

Gero, toka txapelketa izango da, eta 21:30ean herri afaria. Hainbat sari banatuko dituzte, eta gauez erromeria izango da. 03:00etan, berriz, "salda magikoa" egiteko, sua piztuko dute.

Azken eguna

Domekan, gaupaseroek kulero, galtzontzilo eta tanga lasterketa izango dute goizaldeko bostetan, eta gero salda banaketa eta gaupaseroen argazkia.

Ohera goiz joan direnek berriz, meza izango dute 11:00etan, eta 12:30ean zezenak izango dira. Arratsaldez pilota partiduak izango dira frontoian, eta iluntzean pintxo potea. 20:00etan Urrezko Kofradeari saria emango diote, 22:00etan etxafuegoekin agurtuko dituzte Kofradixak.

Taxi zerbitzua

Bergarako Udalak taxi zerbitzua jarriko du gaurko. 22:00tatik aurrera igo ahal izango da taxi geltokitik eta goizeko 08:00ak arte arituko da zerbitzua Bidaia bakoitzak sei euro balioko du.

Sardina jana, jolasak eta musika San Lorentzon

M.T. | BERGARA

San Lorentzo auzoan jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua, hilak 3. Horretarako, eguerdian hasi eta gauera arte adin guztietako jendeari zuzendutako egitarau oparoa prestatu dute.

Jolasak, musika eta sardina jan tradizionala ez dira faltako.

JAIETAKO EGITARAUA

12:00 Toka eta igel toka txapelketa. Gainera, jateko ogi mamiak, umeendako puzgarriak eta trikitilariak alaitutako poteoa auzoan zehar.

15:00 Kukaña jokoak, txokolate jana eta buruhandiak

19:00 Zuzeneko musika emanaldia Laino tabernaren kanpoaldean.

20:00 Meza San Lorentzoko ermitan.

21:00 Sardina jana egingo dute arkupetan. Ondoren, dantzaldia.

San Matei jaiak ospatuko dituzte bihar Ubera auzoan

M.T. | BERGARA

Ubera auzoan San Emeteri edo San Matei jaiak ospatuko dituzte bihar, irailak 3.

10:30ean hasiko dituzte ekin-tza, Ubera kaletik San Mateiraino kalejiran joanda. Bertan, meza, pintxoak eta jolasak izango dituzte, eta eguerdian auzo bazkaria egingo dute. Arratsaldez jaiak segiko du.

JAIETAKO EGITARAUA

10:30 Kalejira Ubera kaletik San Mateira.

11:30 Meza eta San Mateiko pinturei buruzko azalpenak. Ondoren, pintxoak Jaolatza elkartearen eskutik. Umeendako jolasak eta bola joko txapelketa ere bai.

14:00 Auzo bazkaria. Ondoren, abestiak.

Arratsaldez: Nagusiendako jolasak eta kalejira San Mateitik Ubera kalera..

Iluntzean: Berakatz zopa afaria.

ariznoa elkarte

2016-2017 KURTSO HASIERA

Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 5ean, 18:00etan, Labegaraian

Aurre-benjaminak I (2011n jaioak):

irailaren 20an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):

irailaren 20an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):

irailaren 20an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Antzuolako taldea:

irailaren 21ean, 14:30ean, frontoian



Matrikula berrientzako bilera informatiboa

Irailaren 13an, 18:30ean, Agorrosin guneko bilera gelan


Harremanetarako: ariznoa_ge@hotmail.com

Iraila osoan zehar
ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaitez
gu ezagutzera!



BERGARAKO SHOTOKAN KARATE - DO KE KLUB BAT BAINO GEHIAGO



**SHOTOKAN KARATE ESKOLAK
IRAILAREN 7AN HASIKO DIRA.
ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN.**

Umeak: 1. Txanda: 17:30etik 18:30era. 2. Txanda: 18:30etik 20:45era

Nagusiak: 19:30etik 20:15era

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo
zatoz Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasia orduetan.



Alberdi, Paya eta Lete Laboratorium museoko erakusketan. | U.M.

Bergarako Besarkadaren gaur egungo begirada

Azaroaren 1a bitartean historia berrikasteko erakusketa dago Laboratorium museoan

A.A./L.Z. | BERGARA

Eguaztenean, 177 urte bete ziren I. Karlistaldiaren bukaera irudikatu zuen Bergarako Besarkada izan zela. Hain justu, Baldomero Espartero liberalaren eta Rafael Maroto karlistaren arteko bake sinaduraren urteurrenean zabaldu zuten, Laboratorium museoan, gertaera historikoaren beste ikuspegi bat eskaintzen duen erakusketa. 1839. *Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa* du izena eta azaroaren 1era arte ikusteko aukera izango da.

Bake-ituna proiektua

Donostia 2016 ekimenaren Bake-ituna proiektuaren parte da. "Itunak aipatzen baditugu, zorionez, adibide asko daude gure lurraldean. Horien artean, esanguratsuenetako bat Bergarako Besarkada da", esan zuen Xabier Payak, Donostia 2016ren kultur programazioko zuzendariak, martitzenean egin zuten aurkezpenean.

Ormaiztegiko Zumalarrakagi museoarekin elkarlanean egindako erakusketa da. "Gogoetara gonbidatzeko proposamen bat da. Herrian fama txarra du *Besarkadak*, baina oso gertaera garrantzitsua izan zen, eta interesgarria da gaur egungo ikuspuntutik begiratzea", zioen Mikel Alberdik, erakusketako komisarioak. Elena Lete Bergarako alkateak ere erakusketara hurbiltzeko gonbidapena egin zuen. "Begirada ezberdin batekin egindako azterketa sakona da".

tzitsua izan zen, eta interesgarria da gaur egungo ikuspuntutik begiratzea", zioen Mikel Alberdik, erakusketako komisarioak. Elena Lete Bergarako alkateak ere erakusketara hurbiltzeko gonbidapena egin zuen. "Begirada ezberdin batekin egindako azterketa sakona da".

Bitxikeria ugari

Herriko Irizar Jauregitik ekarri zuten ituna sinatu zuten mahaia. Lizarratik, berriz, berunezko soldadu britainiarren miniaturak. Bilboko museotik, berriz, hainbat domina. Muñagorriren kanten material originala ere batu dute. Horiez gainera, grabatuak, margolanak, dokumentuak, liburuak...

Erakunde eta partikularrek utzitakoak dira guztiak.

DATUA

65

PIEZA

Partikularrek eta hainbat erakundek utzitako askotariko objektuak.

Berrikuntza handiekin dator iraileko kultur gida

Musika klasikoko kontzertuen zikloa antolatu dute lehen aldiz

XABI GOROSTIDI | BERGARA

Irailerako kultur eskaintza opa-roa osatu du Bergarako Udalak. Aurten berritasun garrantzitsuak ditu, baina nabarmenena lehen aldiz antolatu duten musika klasikoen kontzertuen zikloa da.

Musika estilo honek Bergaran izan ohi duen harrera ona ikusirik, ziklo berezi bat prestatzea proposa zela pentsatu zuten kultura sailekoek. Antolaketa lanetan laguntzeko Bilboko Koraleko gerente Iñigo Alberdiren laguntza izan dute. Honela azaldu ditu Alberdik zikloa antolatzeko erabilitako irizpide nagusiak: "Bergaran tradizioa den bezala, kontzertu bereziak toki berezietan antolatzea izan da helburua. Betiko ildoari jarraituz, euskal taldeak ekartzea lehenetsi dugu programa osatzeko. Orain artean musika klasikoko kontzertu solteak egin izan dira, baina oraingoan hiru astetan kontzentraturako emanaldi sorta prestatu dugu".

Gaur lehen kontzertua

Zikloa lau kontzertuz osatuta dago eta gaur bertan emango diote hasiera Euskadi Brass taldearen kontzertuarekin. Metal-instrumentuak jotzen dituen taldeak Alberto Urretxo arrasatearra du zuzendari lanetan. Zapatuan, Marta Urbietako sopranoaren, Jose Manuel Diaz baritonoaren eta Mariano Lerena piano jolearen txanda izango da. Irailaren 10ean



Iñigo Alberdi, Maite Agirre eta Edurne Korta aurkezpenean. | XABI GOROSTIDI

Kaabestri Ensemble taldeak joko du Mariaren Lagundiaren elizan eta azken kontzertua Kea ahots taldeak eskainiko du hilaren 17an.

Honela azaldu ditu egitarauaren ezaugarri nagusiak Iñigo Alberdik: "Errepertorio aldetik oso entzungarriak diren kontzertuak dira, musika ezaguna dutenak, eta kalitate maila altukoak".

Berritasun gehiago

Aurtengo programako beste berrikuntza nabarmen bat Kultura Kalean jaialdiaren eskutik dator. Bergarako kultur taldeen parte hartzearekin egiten den jaialdia, egun bakarrekoa izatetik hiru egunekoa izatera pasako da aurtengoa.

Irailaren 23tik 25erako asteburuan egingo dute, eta askotariko ikuskizun eta tailerrak izango dira bertan. Lehen egunean 31. dantza suelta txapelketa izango da ekitaldi nagusia. Zapatuan musikarekin lotutako herriko kultur taldeen txanda izango da eta domekan tailer ugari antolatuko dituzte San Martin plazan, zortzi guztira.

Kultur gidaren triptikoan herriko kultur talde guztien aurkezpena jarri du Udalak. Edonork Bergarako kultur taldeekin ekin tzaren bat antolatu nahi izanez gero, informazio praktikoa eskura jartzeko asmoz jarri dute. Aurten bi talde berrio gehitu dira: Batukada taldea eta Arakne parrailarien elkarte.

Murugarrenen musika abuztua agurtzeko

Eguaztenean, abuztuak 31, Txuma Murugarren musikari ezagunak kontzertua eskaini zuen bere taldearekin batera Labegarietan. Uda gaueko epeltasuna lagun, hainbat lagun gerturatu ziren abuztua musikaz agurtzera.



M.T.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



KRAV-ATTITUDE

IMPROVISER S'ADAPTER DOMINER

DEFENTSA PERTSONALA

KLUB BAT BAINO GEHIAGO



WE DO BAD THINGS TO BAD PEOPLE



DEFENTSA PERTSONALA

BERGARAKO KRAV MAGA ESKOLA

Entrenamenduak irailaren 8an hasiko dira Bergarako institutuko DBH eraikineko gimnasioan.

EMAKUMEAK (8 pertsona gutxienez): Astearteetan eta ostegunetan 18:00etik 19:00etara.

HELDUAK: Astearteetan eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era.

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasia orduetan.



Atzegi elkarteko kideek egin zuten pregoia sudur gorriak jantzita.



Ikurrinari egindako agurrarekin hasi zituzten jaiak herritarrek.



Alkateorde eta alkate txikiak.



Elizbira, udalbatzako hainbat kideekin.

"Pozik" andramaixek emandakoarekin

"Giro jator eta alaia" izan dela jaietan adierazi du Kultura zinegotziak eta nabarmendu ditu "parte-hartze handia" ekitaldietan eta taldeen "maila altua"



Kuadrillen Eguneko bazkariko protagonista paella izan zen.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Txupina bota zuten Atzegiko kideek herritarrek sudur gorria janztera animatu eta maitasuna eta umore ona eskatu zituzten jaietarako. Halaxe joan direla baieztatu du Joxe Migel Uribarenek, Kultura zinegotziak: "Giro jator eta alaia izan dugu eta handia izan da parte-hartzea. Taldeen maila altua nabarmenduko nuke, baita umeendako egunero egon izana zerbait ere". Eta arrakasta horretan lagun izan diren hainbat elkarteri eskerrak eman gura izan dizkie; besteak beste, Gazte

Ekimenari, txistulariei, abesbatzari, UDARI, ikastetxeei eta Udal-tzaingoari.

600 lagun paella jateko

Jaiak hobetze aldera egindako aldaketekin pozik azaldu da; horien artean dago haurrei eskaintzea bigarren eguna: "Haurren Egunarekin oso gustura gaude, ekitaldi ugari egon dira eta ume asko elkartu da horietan", dio. Arrakasta izan duten beste ekitaldi batzuk dira Deabru Beltzak taldeak sua lagun egindako kalejira, Andoni Calvo aretxabaleta-

rrak girotutako dantzaldia, Moulin Rougeren omenezko musika eta Kuadrillen Eguneko bazkaria; 600 lagunek jan zuten paella. Hain zuzen, Kuadrillen Eguneko giro beroak -kuadrillen arteko jokoak, sokamuturra, Roka-kalean taldearen kalejira...- boro-bildu zituen abuztuaren 13an hasitako jaiak.

Bideoak eta argazkiak ikusteko:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



'Su A Feu' ikuskizunarekin argitu zituen kaleak Deabru Beltzak taldeak.



Neska-mutikoak puzgarrietan gustura jolasean.

IOSU

harategia • taberna



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Arlutzen jarritako igerilekuan gustura aritu ziren gaztetxoak ur-jolasetan.



Buruhandia umeen atzetik.



Zaleak Pablo Berasaluze pilotariarekin, hura omendu ostean.



Kale bloka eraikin ezberdinetan.



Moulin Rougeren omenez, 'El Gran Musical de Paris' izan zen plazan.



Herriko bi gaztek Arkada Social taldearekin abestu zuten oholtzan.



Kuadrillen arteko jolasetan aulki jokoan.



Errekortaria bigantxa saihesten sokamuturrean.



Rockalean taldeak dantzan jarri zituen herritarak.



Aldarrikapenak ere izan zuen lekua jaietan; gaztetxea aldarrikatu zuten gazteek. | ARGAZKILARIAK: AITOR AGIRIANO, MIRARI ALTUBE ETA IBAI ZANGITU



Eramateko
**EGUNEKO
MENUA**
badago

ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 12
gertujanariak@euskalnet.net



JAIETAKO EGITARAUA

EGUAZTENA

07

18:00 Etxafuegoak eta bonba japoniarrak.

19:00 Bederatziurrena Dorletan. Ondoren, mokadutxo (gazta, ardoa eta ogia).

EGUENA

08

11:00 Otxandioko herritarrei ongietorria.

12:00 Meza Nagusia Dorletan.

16:00 Otxandioko lagunekin jolasak.

17:30 Swing ikastaro herrikoia.

19:00 Pintxo-potea.

EGUBAKOITZA

09

14:30 *Jin&Jan* kantu-bazkari herrikoia.

17:00 Skate erakustaldia frontoian.

18:30 Apar festa.

AGURRA

UDAL BATZORDEAREN AGURRA

Aurtengoan bost egunez, ilbeheran hasi, ilargia haziaz baina, eta amaituz ilbeheran, artizarra lagun iluntzean, dantzan itsasoa azpian duen herria, gatzduna eta euskalduna! Herri egarritz askatu da maite dugun iturria, librea, eta, gure esku dagoela, gogoan emaitza, bada motiborik: falta direnei keinu eta etorkizunari irribarre. Puntaik punta, jairik jai, basoik baso, soroik soro eta kaleik kale, auzolana legez, mila esker guztioi, Herrigintza! Errefuxiatuekiko zorra, errefusa hobeto bereizi beharra... Non haurren barre eta algar? makina bat saiakera... eskola itxi ez dezaten deiarra! Eta luiziak geratu nahia, eta kaletik ortozik ibiltzeko aukera, eta espaloiak libre gainera, eta beti umorez, zelan bestela! Egitekoa eta egitear daukaguna. Visca! Gora herria! Eta ingurukoei deia: gerturatu, gazitu eta gozatu! Gatzaz gatz!

19:30 Buruhandiak.

20:00 Meza, Dorletan

22:00 Kontzertuak. D-Skarga, Criminal Remains eta Arkada Social

23:00 Bolo Txapelketa.

ZAPATUA

10

KINTOEN EGUNA

12:30 Trikitilarien kalejira.

13:00 *ZirkunZirko*. Zirkua eta txotxongiloak.

16:00 Puzgarriak.

17:00 Mus eta Briska Txapelketak.

18:00 Kintoen arteko jolasak, elektrotxarangak girotuta.

21:30 Herri afaria.

23:00 Kontzertuak. Aldo Mila&Banda eta Fan&Go.

DOMEKA

11

09:00 BTT lasterketa (haurrak 10:00etan).

13:00 Herri kirolak.

13:30 Adarhots-en kontzertua.

17:30 Pilota partiduak.

19:00 Kale Block, *street boulder*-a.



GOIENA

HERRI KIROLAK | 2016-09-11 | GATZAGAKO PLAZA | 13:00
Aurten ere herri kirolek protagonismoa izango dute Leintz Gatzagako jaietan. Inazio Perurena eta Fausto Mugerza izango dira protagonista.



GOIENA

BTT LASTERKETA | 2016-09-11 | LEINTZ GATZAGA | 09:00
XIX. mendi bizikleta edo BTT lasterketa egingo dute aurten, Leintz Gatzagako mendietan barrena. Haurrena 10:00etan izango da.



"Leintz Gatzagako Udalak
Andramari jai zoriontsuak opa
dizkizue gatzagar guztioi"





Arkada Social taldeak Arrasateko San Juan jaietan emandako kontzertuan . | IMANOL SORIANO

Musika eskaintza zabala izango da aurten Leintz Gatzagako Andramari jaietan

Euskal musika tradizionala, afrikarra, rocka, ska, erromeria... besteak beste

IMANOL BELOKI | LEINTZ-GATZAGA

Gatzagako Andramari jaiak irailaren 7tik 11ra bitartean ospatuko dira, eta egitarau zabala prestatu dute gatzagarrek. Musika garrantzi handia izan du beti Gatzagako jaietan eta aurten ere ez dira atzean geratuko; izan ere, talde handiak eta estilo ezberdinetakoak izango dira bertan.

Gorputza mugituz hasiko dituzte Andramari jaiak gatzagarrek; izan ere, swing ikastaro herrikoia izango dute egunean, Paula de la Fuenteren eskutik. 17:30ean izango da ikastaroa, herriko plazan, eta pauso batzuk ikasi ondoren, dantza egingo dute animatzen diren herritarrek.

Talde handiak, herri txikian

Egubakoitzean, kontzertuen gaua izango da. 22:30ean hasita; D-Skarga, Criminal Remains eta Arkada Social taldeak izango dira oholza gainean. Aretxabaletako D-Skarga talde gazteak ska doinuak eramango ditu. Criminal Remains taldeak, berriz, grabatu berri dituen kanta eskainiko ditu lehen aldiz. Talde honetako partaideak ere aretxabaletarrak dira, baina bi gatzagar ere badaude taldean, biak gitarra-joleak. Jose Ayudarte eta Beñat Agi-

rreraurreta, hain zuzen ere. Amaitezeko, Arkada Social punk-rock taldea izango da gaueko talde izarra. Bailaran ezaguna den talde arrasatearrak *Sin mirar atras* tourreko azken kontzertuetako bat eskainiko du Gatzagan.

Zapatuan, berriz, Aldo Mila & Bandaren musika afrikar tradizionala entzuteko aukera izango da 23:00etan. Aldo Mila Angolako musikaria da, eta Gasteizko hainbat musikarirekin izango da herrian (Ricardo Urrutia gitarra-jolea, Nando de la Casa perkusioa, Txefe Ferroni Saxoa eta Alberto de la Casa Baxu-jolea). Gauari

amaiera emateko, berriz, Fan&Go Zarauzko erromeria taldea igoko da oholtzara.

Azken egunean, berriz, Adarhots taldea egongo da 13:30ean. Gasteizko taldea hama-bi lagunek osatzen dute, eta taldekide guztiek tronpak jotzen dituzte. Errepertorio osatua eramango dute Gatzagara: pelikuletako soinu bandak, euskal kanta tradizionalak eta musika klasi-kozko piezak joko dituzte besteak beste. Saioa herriko plazan hasiko dute, baina ondoren, Soran Etxea hotel aurrera joango dira kontzertuari amaiera ematera.

Hainbat berrikuntza egitarauan

Swin ikastaroaz gain, egubakoitzean, Jin&Jan kantu bazkari herrikoia egingo da frontoian, 14:30ean. "Bakoitzak bere bazkaria prestatuko du, baina arzoa oinarri hartuta egiteko eskatu diegu herritarrei. Izan ere, arrozarekin errezeta ezberdinak prestatzen dakitenak daude herrian, eta, hala, menu ezberdinak ikusteko eta egiten ikasteko erabaki dugu hala egitea" adierazi du Joanes Mendizabal kultura zinegotziak. Bazkaria alaitzeko, berriz, Sei Pistols eta Trabuko Bat taldea izango da oholza gainean.

Zapatuan, aldiz, kintoen arteko jolasak egingo dira elektrotxarangarekin animatuta. Hala ere, urte berekoekin edo kuadrillaka egin beharrean, hamarkadaka banatuko dituzte partaideak.

'Otxoa' eta 'Pequeño' buruhandiak Gatzagan izango dira umeen atzetik

Eugenio Otxoa eta Juan Mari Makazaga irudikatzen dituzte, eta jaietan aterako dituzte

I.B | LEINTZ-GATZAGA

Eguenean, irailaren 9an, buruhandiak izango dira Leintz Gatzagan, eta ez nolanahikoak, gainera. 19:30etan irtengo dira kalera, eta aspalditik herrian dauden arren, Eugenio Otxoa alkate ohia eta Juan Mari Makazaga *Pequeño* irudikatzen dituzten buruhandiak izango dira kaleetan zehar.

Udalean lanean urteak izan diren bi gatzagarrei 2000. urtean egin zizkieten beraien aurpegi figurak dituzten buruhandiak. "Eugenio Otxoak hiru legealdi bete zituen herrian alkate moduan, eta laugarrena hasita, Poloniara joan zen lan kontuengatik, alkatetza utzita. Horrekin batera, *Pequeño*, aldiz, erretiratu berri zegoen arren, Udal langilea izan da urte askoan. Hala, biak omentzeko egin ziren buruhandi hauek, afari batekin..." adierazi du Joanez Mendizabal kultura zinegotziak.

Gutxi erabiliak, pisuagatik

Gatzagan ospatzen diren san milixanak artisau ferian urtero izaten den Iruñeko artisau batek egindako piezak dira. "Garai hartan, Amaia Olabe zegoen kultura zinegotzi moduan, eta Iruñeko artisau ezaguna zenez herrian, bereziki eskatu zioten hari hauek egiteko".

"Oso ondo eginda daude buruhandiak, baina oso pisutsuak dira. Horregatik ez ditugu askotan erabili; izan ere, jantzi eta erabili dituztenek ezin izaten dute beraiekin... eta denbora askoz jantzita eramatea ez da erraza. Hori horrela, Aretxabaletako buruhandiak ekarri izan ohi ditugu".

Buruhandiak karteletako ikur

2014ko jaietako kartelean ikur moduan jarri zituzten Otxoa eta *Pequeñoren* buruhandiak (beheko argazkian ikusgai).

ESANAK

"Bi gatzagarrek omentzeko buruhandiak egin zitzaizkien, afari batekin..."

"Ez ditugu askotan erabili, eta jantzi dituztenek ezin izaten dute beraiekin"

JOANES MENDIZABAL | KULTURA ZINEGOTZIA



Otxoa eta 'Pequeño' irudikatzen dituzten buruhandiak. | GOIENA



sormen ood
industrial design

15 urte zuekin!!
2001-2016



Kale bloka Leintz Gatzagan, Puntaik Punta jaialdian. | GOIENA

Urtero moduan, kirol-ekintza ugari antolatu dituzte Gatzagako andramaixetarako

Pilota partiduak, herri kirolak, kale bloka, eta abar izango dira herriko jaietan

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ-GATZAGA
Beste hainbat ekintzarekin batera, kirol-ekintzek ere lekua izango dute Gatzagako jaietan.

Jaiei hasiera eman aurretik, domeka honetan, gaztetxoek pilota txapelketako finalak jokatuko dira herriko pilotalekuan. Zazpi urtekoetan, Larraioz-Murciego eta Segurola-Etxaniz. Zortzi urtekoetan, Lazkano-Artetxe eta Zubiaga-Etxabe. Bederatzi urtekoei dagokienez, Rekalde-Egileor eta Egiguren-Astigarraga. Hamar urtekoen mailan, Etxeberria-Santxez eta Babarro-Ibarlucea. 11 urtekoetan, Goikoetxea-Agosta

eta Rementeria-Bikandi. 12 urtekoetan, Telleria-Barandiaran eta Arrillaga-Zubizarreta. 13 urtekoetan, Olaizola-Berrueta eta Egiguren-Labaka. Azkenik, 14 urtekoetan, Azkoitia-Astigarraga eta Eizagirre-Beristain.

Bestalde, BTT edo mendi bizikleta lasterketa ere egongo da jaien azken egunean, bai nagusiendako baita haurrendako ere.

Gainera, kale bloka edo *street boulder* delakoan, kalean eskalada praktikatzeko aukera ere egongo da, Puntaik Punta jaialdian egin zen moduan. Domekan 19:00etatik aurrera izango da hori.

Horrez gain, kadete eta nagusi mailetakoko pilota txapelketako finalak izango dira irailaren 11n.

Irailaren 9an, egubakoitza, skate erakustaldia izango da frontoian eta gauean bolo txapelketa egongo da.

Azkenik, herri kirolak egongo dira. Inazio Perurena harri-jasotzaileak lau harrirekin egingo du lan eta 200 kilokoa esku bakarrarekin jasotzen saiatuko da. Bestalde, aizkoran, Fausto Mugerza arituko da, 7 metroko altueran moztuko ditu egurrak-estilo australiarrean- eta lurrean enbor handi bat moztuko du.

Josetxu Garaigordobil | Urtero etortzen da Gatzagara oinez

"Txikia nintzenetik urtero joaten naiz Gatzagara, tradizioa da guretzat"

Andramaixetan hainbat lagun urtero joaten dira Otxandiotik Gatzagara oinez, eguna pasatzera

E.A. | LEINTZ GATZAGA

Josetxu Garaigordobil otxandiarak 66 urte ditu eta urtero joaten da Gatzagara oinez, haurra zenetik. Tradizioa dela dio. **Noiztik joaten zara Leintz Gatzagara oinez?**

Ez dut gogoratzen noiz hasi nintzen, baina haurra nintzenetik urtero joaten naiz, tradizio bat da guretzat. Gogoratzen dut anaia nagusiarekin joaten nintzela, lagun talde handi batean. Bi urtean ezin izan nintzen oinez joan, baina urte haietan autoz joan nintzen.

Nolatan dute hain harreman ona Otxandiotik eta Leintz Gatzagarako?


Ez dakigu. Begira ibili gara, baina ez dugu ezer segururik aurkitzen. Litekeena da garai batean Otxandiotik herritarrak gatzaga, frutak edota haragia lortzeko Gatzagara joan izana, baina ez dakigu.

Hala ere, giro ederra daukazue zuen artean, ezta?

Zalantzarik gabe. Urtero, iritsi bezain laister, ongietorria egiten digute eta egun zoragarria igarotzen dugu elkarrekin. Udarekin eta herritarrekin oso harreman ona daukagu, betidanik, gainera.

Gatzagarrak Otxandiora joaten al dira?

Duela urte batzuk egin zen saiakera, baina pare bat urtez bai-



Josetxu Garaigordobil. | J.G.

no ez zuten egin, gero ez zuten ohiturarekin jarraitu. Guk, aldiz, ohitura mantendu dugu, eta ez da amaitzen, jendea oso gusturako dago.

Lagun asko elkartzeko zarete Gatzagarako bidea oinez egiteko?

Lehen guztiak 08:00etan irteten ginen eta lagun dezente izaten ginen. Gaur egun, ordea, nahiko nahastuta dago kontua eta ordu desberdinetan irteten gara. Nik 08:00etan irteten jarraitzen dut eta 10-12 bat lagun izaten gara, baina 09:00etan askoz jende gehiago irteten da. 10:30-10:45 alderako Gatzagan izaten gara, bi ordu eta erdi inguru behar izaten ditugu bertara heltzeko. Gainera, adin desberdinetako jendea elkartzen gara eta ederra izaten da.



ZirkunZirko taldearen emanaldi bat. | ZIRKUNZIRKO

Herriko haurrek ere izango dute non entretenitu

Zirkua eta txotxongiloak uztartzen dituen **ZirkunZirko** ikuskizuna izango da plater nagusia

E.A. | LEINTZ-GATZAGA

Haurrendako ekintzak ere ez dira faltako aurtengo jaietan. Buruhandiez gain, apar festa, puzgarriak

eta **ZirkunZirko** izeneko ikuskizuna izango dira.

Alde batetik, egubakoitz arratsaldean apar festaz gozatzeko

aukera izango dute. Bestetik, zapatuan, puzgarriak izango dituzte herriko plazan.

Horrez gain, zirkua eta txotxongiloak uztartzen dituen ikuskizuna ere egongo da zapatuan, **ZirkunZirko**.

Bertan, Zirkun eta bere lagun Tinaren bidaia bat kontatzen da. Bidaia horretan abentura ugari biziko dituzte eta hainbat pertsonaia dibertigarri ezagutuko dituzte, eta hauen bitartez bizitzaren gauza garrantzitsu asko ikasi.



Gaztainuzketa

Mendi Etxeak

Mendi-etxeek gain, jatebidea eta kafetegia ere badaukagu. Etorri etxeko sukaldaritza bikainaz gozatzen

Plater konbinatuak · Karta edo Menu bereziak · Gosariak, bazkariak eta afariak

Leintz - Gatzaga

Tel.: 943 71 51 64

·info@gaztainuzketa.net / gaztainuzketa.net

ELGETA

Antzokia kudeatzeko eskaintzak aurkezteko epea zabalik da

Interesatuak hilaren 12ra bitarteko epea dute proposamenak aurkezteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abuztuko etenaldiaren ostean Udalak gogorarazten du zabalik jarraitzen duela Espaloia kafe antzokia kudeatzeko eskaintzak aurkezteko epeak. Udalbatzak uztaileko osoko bilkuran onartu zituen esleipenaren baldintzak. Ikusgai daude *elgeta.eus* atarian.

Ostalaritza eta museoa

Ostalaritza zerbitzua eta museoa esleitu gura ditu Elgetako Udalak. "Kultura arloko proposamenak ere baloratuko ditugu, baina ez dira derrigorrezkoak", esan dute.

Alokairua eta ordutegia

Betebeharrean atalean hileko alokairua gutxienez berrehun eurokoa izango da, eta antzokiak zabalik beharko du barikutik domekara bitartean, jai egunetan eta jai bezperetan gutxienez 10:00etatik 22:00etara. Interesatuak udaletxean aurkeztu behar dituzte kudeaketa proposamenak.

Bost hilabete itxita

Bost hilabete darama itxita Espaloia kafe antzokiak; izan ere, indarrean zegoen kontratua eten eta apirilean utzi zuen aretoa

aurreko kudeatzaileak. Hilabeteotan ekintza puntualak egiteko zabaldu du kafe antzokia Udalak: Herrixa Dantzan saioak, zumba maratona, Perlak eta Gose taldeen kontzertua, ikasturte amaierako emanaldiak, umeen dantza ikastaroak...

Aretoa etapa berri baten arian da orain. Udalak parte hartze prozesu bat egin zuen non herritarren iritzia jaso zituen. Apirilean, berriz, mahai-inguru berezia egin zuten hiru kultura kudeatzailearen esperientzia eta iritzia jasotzeko.

OHARRAK

ERRETIRATUAK

Burgosera egingo dute irteera erretiratuek hilaren 13an. Interesatuak bihar, zapatua, eman behar dute izena Ozkarbi elkarteak, 11:00etatik 12:00etara. Prezioa da 30 euro.

IKASTURTE HASIERA

Herri Eskolan eguaztenean emango diote hasiera ikasturte berriari. Lehen bi egunetan jardunaldi trinkoa izango dute. Bestalde, musika irakasle Lorea Larrañaga musika gelan izango da gaur izen-emateetarako, 16:30tik 19:30era. Ludoteka eta zaintza zerbitzua hilaren 12an hasiko da. Astelehenetik aurrera zabalik da izen-emate epea.

ELGETA

Nazioarteko dantza ikastaro batean izan da Gaizka Morales

Ikasketa profesionalak egiten diharduen Madrilgo eskolak beka emanda izan da Pragan

L.Z. | ELGETA

Elgetarrak iaz hasi zituen dantza ikasketa profesionalak Madrilgo Danza180° akademian. Ikasturteko bigarren hiruhilekoan jaso zuen albistea: Pragako *Tanec Bez Hranic* formazio saioan parte hartzeko beka jasoko zuen. "Ez nuen inondik inora espero lehen ikasturtea nuelako eskolan", dio. "Esperientzia zoragarria izan da. Dantza gustuko duen jatorri ezberdinetako jende inguruta egon naiz, zer eta nola egiten duten ikusi dut, eta eskola onak jaso ditut", adierazi du.

Uztailaren 31tik abuztuaren 5era egin du Pragako ikastaroa Moralesek. "Ikastaroko parte-hartzaileak bakarrik geunden baso baten erdian eta laku baten ondoan zegoen hotel batean. Leku zoragarria da. Karpa bat zegoen dantza eskoletarako, eta eguneko bi orduko hiru saio egiten genituen. Hiru irakasle zeuden —bat nire dantza akademiakoa— eta bakoitzarekin gauza ezberdinak landu ditugu. Orokorrean jazz estiloa landu dugu, baina baita ere dantza garaikidea edo esperimentalak eta dantza lirikoak. Teknika landu dugu gehienbat".

Ikasturte berri baten atarian

Iaz hartu zuen Gaizka Moralesek dantza ikasketa profesio-



Gaizka Morales Pragan. | TANEC BEZ HRANIC

nalak egiteko erabakia. "Uste dut hartu dudak erabakirik onena dela", dio. Madrilgo Danza180° akademia aukeratu zuen. "Lau urteko formazio profesionala eskaintzen dute, eta bigarren ikasturtea hasiko dut astelehenean". Oso baliagarritzat jotzen du Madrilera joan izana. "Elgetatik gauzak beste modu batera ikusten dituzu, zailago moduan. Madrilera etorrira konturatzen zara aukera batzuk egon daitezkeela eta amets hontan saiatu behintzat egin behar dut", dio irribarrez. Gaizka Morales elgetarrak argi dauka: "Ahal badut dantzatik bizitzea nahi dut".

ELGETA



INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

Flandiarrak 'La Belga' ezagutzen

'La Belga' posizioarekin interesatuta Elgetan izan ziren abuztu erdialdean Greet Brauwers eta Raf Custers ikertzaileak. Ikus-entzunezko bat prestatzen ari dira gerra urteetan *Ce Soir* aldizkari berriemakile izandako Matthieu Cormanen inguruan. Intxortako fronteko 'La Belga' posizioaren berri eman zieten Intxorta 1936 kultur elkarte ordezkariek.

LEINTZ GATZAGA

Udalaren ehiza postuak lortzeko enkantea, zabalik

Oilagorrek ehizatzeke sei txartel edo baimen eta 22 uso-postu esleitu dira, urtebeteko eperako

ENKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak enkantera atera ditu oilagorrek ehizatzeke sei baimen eta 22 uso-postu, Gipuzkoako Foru Aldundiko

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren baimena jaso ondoren. Behin esleitura, urtebetetako izango dira baimen eta postu hauek. Oilagorrek ehi-

zatzeko baimen bakoitzak 2.272,73 euro balio du (BEZa barne) eta uso-postu bakoitzak, berriz, 22.800,02 euro (hemen ere BEZa barne).

Irailaren 14ra arte

Eskaintza aurkezteko azken eguna irailaren 14a izango da, 14:00etan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa, berriz, baldintza ekonomiko-administratiboen koardernon ageri dena da.

Udaletxeko erregistro sarrean aurkeztu beharko da informazio hori, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (irailaren 8an udaletxea itxita egongo da, herriko jaiak direla eta).

Tramitazioa arrunta izango da eta prozedura irekia.

Bermeak

Behin-behineko bermea oinarriko prezioaren %100 izango da, parte-hartzaile bakoitzak eskaera bat baino gehiago egitea saihe-

teko. Behin betiko bermea, berriz, esleipenaren %5.

Eskaintzaren gaineko informazio gehiago udala@leintzgatzaga.eus helbidera idatzita, 943 714746 telefonora deituta edota www.leintzgatzaga.eus webgunean sartuta.

Gaur egun, oilagorrek ehizatzeke 8 txartel edo baimen daude eta horietako sei dira orain enkantera atera direnak. Uso-postuei dagokienez, 45 dira eta horietatik 22 atera dira enkantera.

Soran Etxea Hotela Jatetxea

ondo ibili jaixetan!

10 logela zabal eta erosoak

Menu bereziak

100 lagunendako hiru jangela

Santiago kalea 3 • 20530 LEINTZ GATZAGA • Tel.: 943 71 53 98 • info@soranetxea.com • www.soranetxea.com



Udal ordezkariak jaioberriei jaietako zapiak jartzen joan den urteko jaietan. | GOIENA

Jaiak segidan dira aurten, eta aldaketak egongo dira

Atsolorra irailaren 24an egingo da, eta Herri Egun bezperan egin ohi den bertso saioa urriaren 7an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Irailaren 28tik urriaren 3ra bitarteko egunak festa egunak izango dira Oñatin. San Migel eta Erro-sario jaiak jarraian dira aurten eta horrek aldaketak ekarri ditu jaien egitarauan. Esaterako, bertso saioa Herri Egun bezperan izan ohi da beti, baina aurten San Migel biharamuna da egun hori, eta, hortaz, bertso saioa

urriaren 7an egitea erabaki dute. Kultura batzordeak datorren astean egingo duen bileran jaien egitaraua hizpide nagusia izango da. Ia erabat lotuta dago.

Umeendako menua

Irailaren 23tik aurrerako ekitaldiak jasoko ditu jaien egitarauak. Txosnagunea irailaren 24an, zapa-tua, zabalduko dute Egun Morea

ospatuz eta haurren danborrada ere egun horretan egingo da; baita atsolorra ere. "Jaiak segidan izateak gauza batzuk aurreratzea ekarri du eta horietako bat da atsolorra. Jaioberriei jaietako zapiak jartzen diegu lepoan eta jaien hasieran egin beharreko ekitaldia dela ulertzen dugu", azaldu du Nerea Zubiak, kultura zinegotziak.

Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa irailaren 25ean izango da eta aurten txosna bat egongo da; antolatzaileek eurek kudeatuko dute. Herri Eguneko talo tabernaz Oñatiko ezker abertzalea arduratuko da (eskaera bakarra jaso da) eta herri bazkaria catering-eko enpresak zerbitzatuko du, inor ez da aurkeztu-eta lan horretarako. Aurten, gainera, umeendako menua egongo da. "Nagusindako patatak txorizoa-rekin eta herriko abereen okela egongo da jateko eta umeendako arroza eta herriko okelarekin egindako hanburgesak. Barazki-jaleendako edo zeliakoendako menuak ere egongo dira, aurrez eskatuz gero", argitu du Zubiak.

Musika eskaintzari dagokionez, Atzeko kalean (MUKO ikasle batzuek kudeatuko dute hango txosna) eta Foruen plazan egongo dira agertokiak. Baita txosnagunean ere. Udalaren eta txosnagunearen eskaintzak egitarau baka-rrean joango dira aurten ere. Gazteen Eguna ere egingo da aurten baina non izango den eta zer egongo den erabaki gabe dute oraindik; irailaren hasieran egingo dute hori.

Haurren Eguna, bestalde, irailaren 18an izango da. "Aurten hamalau dantza talde etorriko dira, horietatik bi berriak: Bergarako Moises Azpiazu eta Tolosako Udaberri", azaldu du Oñatz dantza taldeko Maite Irizarrek. Egun horretako egitaraua prest du herriko dantza taldeak.

Haur zein nagusien danborradako entseguak ere datozen egunetan egingo dituzte. Haurrenean parte hartuko dutenen zozketa atzo, eguna, ziren egitekoak eta entseguak datorren astean hasiko dituzte, Eltzian. Txosnako konpainian parte hartzeko, Ongi, Ona, Arrano edo Luisena tabernetan eman behar da izena.

Ohiko ordutegira bueltatu dira udal zerbitzuak

Abuztua bukatzearekin batera ohiko ordutegira bueltatu dira udal zerbitzuak. Helduen liburutegia, adibidez, zabalik egongo da bihar eta astelehenetik aurrera baita haur liburutegia ere. Zubikoa kiroldegian ere neguko ordutegia dute atzotik, beraz, domeka goizean zabalik egongo da. Udaletxeko bulegoak goiz eta arratsaldean daude zabalik.

Umeendako antzerki taldea sortu gura dute Irazan-en

Irazan antzerki gunean 5 eta 7 urte arteko umeendako talde txo bat sortzea erabaki dute. Horren inguruko informazio zehatzagoa emateko, zer nolako proiektua izango den jakiteko eta edozein zailtasun argitzeko informazio bilera antolatu dute datorren aste-rako. Bilera irailaren 7an izango da Irazan-ek Eltzian duen lekuan, 17:30ean.

Heldutasunari buruzko hitzaldia egingo dute Pake Leku elkarteak

Heldutasunaren garai balio-tsua izeneko hitzaldia egingo dute datorren astean Pake Lekun. Irailaren 6an izango da, 17:30ean, eta Ana Perez psikologoa izango da hizlaria.

Irailaren 12tik aurrera Bartzelonara eta Gironara egingo duten bidaiak ere antolatuta dago eta laster hasiko dira ikasturte berriko ikastaroak prestatzen ere.

2016-2017ko igeriketa saioetako izen-ematea zabalik astelehenetik

Datorren ikasturtean igerilekuan egongo diren igeri ikastaroetako izen-ematea astelehenetan zabalduko dute. Kiroldegiko bulegoan bete beharko da orria, ordutegi honen barruan: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Irailaren 8ra arte dago zabalik izen-ematea. Irailaren 16an behin behinekoen zerrenda argitaratuko dute.

Posa bidezko botoa emateko bulegoa zabaldu du EAJk

Irailaren 25ean egingo diren Eusko Jaurlaritzarako hauteteskundeetarako posta bidezko botoa emateko bulegoa zabaldu du Oñatiko EAJk batzokian. Bulegoa astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik 11.30etatik 12.30era eta 18:00etik 19:00etara. Posta bidezko botoa egiteko azken eguna irailaren 15 da, egun hori barne.

Datorren astean hasiko dute ikasturtea ikasleek

O.E. | OÑATI

Udako oporrak pasata, datorren astean hasiko dute 2016-2017 ikasturtea herriko hiru ikastetxeek.

Txantxiku ikastolako ikasleak izango dira eskolara joaten lehenak. Astelehenetan, irailak 5, zaintza zerbitzua zabalduko dute eta hurrengo egunean, 6an, hasiko dira HHko eta LHko ikasleak; irailaren 16ra arte goizez bakarrik izango dituzte eskolak. DBHkoak ere 6an hasiko dira baina hiru egun egingo dituzte goizetik bakarrik.

Urgain herri eskolan eguaztenean, irailaren 7an, hasiko dituzte eskolak eta hilaren 28ra arte goizetik bakarrik izango dituzte.

Baita Elkar Hezin ere. Irailaren 7an hasi eta herriko jaiak bukatu ostean hasiko dira goizez eta arratsaldez.

Iturrigorriko egurra enkantean eros daiteke

O.E. | OÑATI

Iturrigorriko pagadian bakan-keta lanak egin behar dituzte eta hortik sortuko den egurra sutarako salduko du udalak.

Su egurra 20-60 zentimetro bitarteko diametroa duten bost metro inguruko zatitan emango da eta guztira, 13-15 tonako kamioikada-loteak salduko dira. Herritarrei, su egur kamioikada 680 eurotan erosteko aukera eskaintzen zaie. Garraioa eta zamatze lanak udalaren kontura izango dira eta kamioia eskatzailak aldeztu aurretik esandako tokian hustuko da.

Izena udal bulegoetan eman behar da irailaren 9a aurretik. Oñatin erroldatuta egotea da baldintza eta etxe bakoitzeko eskaera bat onartuko dute. Jasotako eskaera kopurua altua bada zozketa publikoan egingo da esleipena.

Juan Zelaiari eta Pedro Mari Igartuari, agur

O.E. | ELORTZA

Juan Zelaia eta Pedro Mari Igartua herritarrek hil dira abuztuan. Biak ala biak pertsona aski eza-gunak Oñatin.

Abuztuaren 11n egin zuten Juan Zelaiaren aldeko hileta elizkizuna. 96 urterekin hil zen Cegasa, Tuboplast eta Hidronor enpresetako presidente izandakoa. Enpresa munduan ez ezik, kulturegintzan eta euskalgintzan lan handia egin zuen Zelaiak. Ikastolen edo UZEIren (Unibertsitate Zerbitzuetaarako Euskal Ikastetxea) sorreran modu aktiboan hartu zuen parte, adibidez. Euskal literaturaren arloan, Juan Zelaia Saria atera zuen Pamiela argitaletxeak haren omenez. Horrez gain, kirolaren munduarekin ere lotura zuzena izan zuen, eta horren adibide da 1974an Ikurrina Everest mendatera igotzeko saiakeran egin zuen Tximist espedizioa. Euskal diasporarekin harreman estua izan zuen.

Euskal Herriko hainbat aurpegi ezagun joan ziren elizkizunera, tartean: Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapia, EH Bilduko lehendakari Arnaldo Otegi, Migel Lazpiur enpresaria, Sebastian Lizaso bertsolaria, Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzak sailko buru Jonan Fernandez, Jone Goirizelaia abokatua eta ezker abertzaleko kide Tasio Erkizia.

Igartua

Pedro Mari Igartuaren heriotza ere azkar zabaldu zen herrian. Gizon ezaguna zen, herrigintzan eta kulturegintzan lan handia egindakoa. Udal musika bandako kide urte askotan eta danborradako bultzatzaileetako bat. Abuztuaren 20an izan zen haren aldeko hileta elizkizuna. Bandako lagunek jotako hileta-martxarekin eta *Agur Jaunak* piezarekin agurtu zuten.



2012ko irailaren 5ean okupatu zuten herriko hainbat gaztek Antixeneko eraikina. | O.E.

Urteurren festarekin hasiko du gaztetxeak ikasturte berria bihar

Zuhaitz landaketa, bazkaria eta kontzertuak daude antolatuta Antixenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Laugarren urteurrena ospatuko du bihar, zapatua, Antixena gaztetxeak eta festa horrekin hasiko du, bide batez, datorren ikasturte berria.

Zabalik
Iraila Oñatin hilabete betea izaten dela-eta, aurtengo urteurreneko ospakizuna ere "nahiko xumea" izango dela adierazi dute gaztetxeko kideek, baina zehaztu

dute "sinpletasun horretan gauza desberdin asko" daudela. "Umore eta jai giroz" ospatu gura dute bihar Antixena gaztetxearen laugarren urteurrena. 444 gaztetxian bakalau leloa auke-

ratuko dute festarako eta 11:30ean hasiko dute eguna; lau zuhaitz landatuko dituzte Antixena parkean, urteko bat. Ondoren, gaztetxean bertan egiten duten Guardia Zibeer garagardoaren uzta berriarekin egingo dute topa eta poteoa egingo dute herriko kaleetan. Bazkaria 14:30ean izango da eta kantuan ere egingo dute, bazkarirako prestatu dituzten liburuxka batzuen laguntzarekin. Txartelak Ona, Arrano eta Ongi tabernetan daude salgai, hamar eurotan langileendako eta lau eurotan langabeendako.

Gaueko emanaldiak 21:30ean hasiko dira: *Bertxortan* ikuskitzuna, abesti ezberdinen bertsioak joko dituen Harakiri rock talde oñatiarra eta Oñati eta Getaria arteko kideez osatuta dagoen punk oi! talde hasi berriaren kontzertua.

Gaztetxeko kideek adierazi duten moduan, "jende berria gerturatu da gaztetxera eta belau-naldi ezberdinak elkarrekin inoiz baino gehiago lanean ari dira", eta horrela izaten jarraitzea gura dute. Hala, ospakizuna bezala, gaztetxea ere herritar guztiendako zabalik dagoela gogora arazi dute bertako kideek.

Kalakan taldeak parrokian joko du hilaren 23an

Doan da Ulma Fundazioak antolatu duen emanaldia, baina sarrera mugatua izango da

O.E. | OÑATI
Kalakan taldearen kontzertua egongo da San Migel parrokian irailaren 23an. Ulma Fundazioak lotu du emanaldia, taldearen 55. urteurrenaren ospakizunen barruan. Urteurren horren barruan, *Bidegorriak euskararentzat* izeneko programa antolatu du Ulmak eta egitarau horretako azken ekintza izango da Kalakan taldearen kontzertua. Irailaren 23an

izango da, baina aurretik beste ekintza batzuk ere egongo dira. 16:30ean Ulmako langile eta langile ohiak oinez, korrika, patinetan edo bizikletan joango dira Zubillagatik Foruen plazaraino. Han, Ulmako euskararen murla egingo dute 18:30ean eta 19:00etan Amaia DJ-k dantzan jarriko ditu herritarrak. Kalakan taldearen kontzertua 22:00etan hasiko da parrokian eta ordu eta hogeiei minutu iraungo du.



Kalakan taldeko kideak. | STEFANO MICCHIA

Malikian-ekin gozatua hartu dute Arantzazun

Duela lau urte Kepa Junkerarekin jo zuen Arantzazun, eta joan den astean bakarrik. Basilikako 1.200 eserlekuak beteta zeudela, ate nagusitik biolina eskuan zuela hasi zuen kontzertua Ara Malikian-ek eta ikus-entzuleak ezustean hartu zituen.



JOSU BILBAO

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA

Errudun garen galtzaileontzat

Zentzu bako guda, geurea. Galtzaile izanik, irabazle sentitzen diren ugari. Irabazle anitz, galtzaile direla jakin gabe.

Diruak ematen omen du irabazle izatearen saria eta honen faltak galtzaile izatearen zoria. Baina, aizue, ustezko irabazle, zein ustezko galtzaile, sistema berdinean dihardugu preso.

Ez gara inoren menpeko. Agian, horren errudun ez sentitzeko erabiltzen dugun arrazoa besterik ez da hori.

Ez gara geure buruaren menpeko baino, gure pentsatzeko zein jokatzeko moduen menpeko baino. Ez gara aske guk geuk lotzen dugulako goi-zero itotzen gaituen soka.

Eta askeago sentitu ohi gara sisteman gora egin ahal, baina ez dago hori baino kartzela zikinagorik.

Gure kartzela eraikitzen dihardugu ohartu ez arren.

Gu geu gara gure esklabo fidel, ikusi nahi ez duten begiak, askatasuna nahi baina horretaz geroz eta urrurago dauden tentelak.

Eta kexu gara bizi dugun sistemaz, eta kexu gara hone-tan preso gaudelako. Eta kexu gara, baina ezin oharturik gabiltza gure buruari gabiltzala kexuka. Ez dakigu noren aurka jo, guda noren aurka ireki. Ezjakintasunez moztortzen dugu guda geurekin izan beharko litzatekeenaren ideia.

Ohartu nahi ez dugun bitartean, zentzu bako guda, geurea. Galtzaile bakar-rak, gu.

Bidebarrietako jaiak ere egingo dira aurrerantzean

O.E. | OÑATI
Aurten egin dituzte lehen aldiz Bidebarrietako jaiak, eta, nola joan diren ikusita, aurrerantzean ere antolatzea pentsatu dute kale horretako herritarrek. "Duela urtebete hasi ginen jaiak antolatzeko lane-kin. Jairik ez zeukan aste bukaera bat topatzea izan da zailena", adierazi du antolaketaren Unai Otamendik. "Bidebarrietako jaien bidea hementxe hasten dugu", gehitu dute.

Aurtengo jaietan bereziki umeendako eta gazteendako ekintzak batu ditu egitarauak.

Erdi Aroko berunezko militarrek daude Arkupen

- Alex Mesa katalanak egindakoak dira eta gerrate askoren berri ematen dute
- Miniaturak ikusgai egongo dira erakusketa aretoan hilabetea bukatu arte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hilabetea estreinatzearekin batera jarri du abian Kultura Sailak iraileko egitaraua, eta dagoeneko ikusgai daude Erdi Aroan zeresana izan zuten militarren miniaturak. Berunezko soldadutxoak dira eta Tafallan bizi den Alex Mesa kataluniarrak egin ditu xehetasunik txikiak ere kontuan hartuta. Erakusketak Erdi Aroko gorabeheren berri ematea du helburu eta horretarako argibide panelekin osatu dute. Hurbil Kultur Gaiak-en bitartez ekarri dute erakusketa eta hilabetea bukatu artean egongo da Arkupen.



Arkupen dauden Erdi Aroko militarren miniaturak. | MIRARI ALTUBE

Goi mailako bertsolariak

Domekak neska-mutikoei eskaini gura dizkiete eta hiru ikuskizun izango dituzte. Hilaren 4an, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazo ezagunek *Supituki* emanaldia eskainiko diete (sarrera, 3 euro); hurrengo bietan, oster, txotxongiloen emanaldiak izango dituzte.

Helduek bertso jaialdia izango dute hilaren 16an punta-pun-

tako bertsolariekin: Amets Arzaillus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin. Eta gai-jartzaile lanetan jardungo du Saroi Jauregik (sarrera, 4 euro).

Hilaren 17an, Kuartangon (Araba) errodatutako *Algo más que morir* filma (2014, 74 min.) emango dute. Western horretako aktoreen artean Maite Marcos aretxabaletarra dago hain zuzen.

AMSOGRA elkarteko kide Inma Escribanok eta Iñaki Agirriak, oster, errefuxiatuen gainean egingo dute berba hilaren 13an. *Refugiados. Una vergüenza más del siglo XXI* hitzaldia eskainiko dute.

Eta 20an, martitzena, Kepa Akixo *Zigor* eskultore aretxabaletarraren *Silences* liburua aurkeztuko dute.

Bailarako hautagaiekin solasaldia egingo dute EH Bilduko kideek eguaztenean

M.A. | ARETXABALETA

Irailaren 25ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak gertatzen hasita daude EH Bilduko kideak eta datorren eguaztenean, hilaren 7an, aurrekanpaina ekitaldia egingo dute Durana kalean, 19:00etan, *Bailarako hautagaiekin solasaldia* lelopean.

EH Bilduko Debagoieneko hautagaiak sei dira: Pello Urizar eta Ander Rodríguez arrasatearrak; Larraitz Ugarte oñatiarra; Maider Otamendi eskoriatzarra; Pedro Iturbe antzuolarra; eta Rebeka Ubera elgetarra. Horietako hainbat izango dira Aretxabaletan herri-errekin berriekin.

Herriko kirol taldeek irailaren 15a arte dute udaletxean diru-laguntzak aurkezteko

Luzatu egin du Udalak kirol elkarteek diru-laguntzak eskatzeko jarritako epea. Aretxabaletan kirola sustatzeko jarduerak garatzen dituzten elkarte horiek irailaren 15a arte aurkez ditzakete eskaerak udaletxean. Argibideak –bete beharreko baldintzak, puntuazio banaketa eta aurkeztu beharreko agiriak– Udalaren webgunean daude (diru-laguntzen atalean): www.aretxabaleta.eus. Udalak kirol taldeen jarduera arruntentzat bideratu duen zenbatekoa da 16.365,17 euro.

Datorren eguenetik domekara bitartean ospatuko dituzte Agorreko andramaixak Areantza auzoan

Areantzako auzotarrak jai giroan sartuko dira datorren eguenean, hilaren 8an. Meza izango dute 19:00etan eta bukatutakoan tantaia jasoko dute, baita Martin Kabarrixa pertsonaia auzora ekarri ere, urtero legez. Egubakoitzean auzo-afaria egingo dute, baina egun nagusia zapatua izango da; hona hemen iragarritako ekitaldiak: meza; *Arientzarrok* kontzertua elizan; mokadutxo trikiti doinuek girotuta; eta jokoak. Domekan agurtuko dituzte jaiak Kurtzebarriko Egunaekin bat eginda.



Gas-hodiak sartzen Araba ibilbidean. | M.A.

Gasaren hodiak sartzeko lanak lehenbailehen bukatu gura dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Gas-hodiak sartzeko lanetan dabil EDP enpresa egunotan. Araba ibilbidearen bukaeran, Eskoriatzara bidean, hasi dituzte lanak eta horregatik semaforoa izan da egunotan herriaren hegoaldeko sarreran. Azkena tabernatik saihebidera artean zulatu dute errepidea hodiak sartzeko, eta gero bidegorritik Eskoriatzarantz egingo dute lanekin. "Saihebideta ez dute moztuko, errepide azpitik pasatuko dituzte hodiak", jakinarazi du Unai Elkorok alkateak.

Behin lanok bukatuta Aretxabaletako eta Eskoriatzako gas sareak lotuta geratuko dira. "Era-

IRAILEKO EGITARAUA

IRAILAK 4, DOMEKA

17:00 Pailazoak: Gari, Montxo eta Joselontxo.

IRAILAK 11, DOMEKA

17:00 Txotxongiloak: Panta Rehi taldearen *Auzokideak*.

IRAILAK 13, MARTITZENA

17:00 Hitzaldia: *Refugiados. Una vergüenza más del siglo XXI*. Amsogra GKEko kideak.

IRAILAK 16, EGUBAKOITZA

19:00 Bertso jaialdia: Amets Arzaillus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin.

IRAILAK 17, ZAPATUA

18:00 Zinema: *Algo más que morir*.

IRAILAK 18, DOMEKA

17:00 Txotxongiloak: *Pinotxo*.

IRAILAK 20, MARTITZENA

19:00 Aurkezpena: Kepa Akixo, *Zigor*, eskultorearen *Silences* liburua.

Udalbatzako hainbat kide joango dira Arantzazura

M.A. | ARETXABALETA

Sasoi bateko ohiturari jarraituz iraileko lehenengo astelehenean, hilaren 5ean, erro-mes joango dira hainbat aretxabaletar Arantzazura. Fraideek harrera egingo diete han eta Arantzazuko Amaren bederatziurrenarekin egingo dute bat. Meza nagusia, 12:00etan, entzun ostean, bazkaltzera geratuko dira asko.

Oinez ere bai

Udalbatzako hainbat kide elkartuko dira herritarrekin Oñatiko santutegian. Hala, Unai Elkorok alkateak iragarri du oinez joango dela beste hainbatekin batera, horien artean Jose Migel Uribarren, Mikel Uribeztebarria eta Karmele Uribarri zinegotziak. Beste batzuk meza entzutera joango dira zuzenean.

OHARRAK

ARALAR ALDERA DOAZ BASOTXOKOAK

Irailaren 22an, eguena, Aralar inguruak ezagutzera joango dira Basotxoko erretiratuak. Goiz partean joko dute San Migelen santutegira eta gero Lekunberrin bazkaldu. Arratsaldea, oster, Iruñean pasatuko dute. Irteerarako txartelak salgai dituzte Basotxoko bulegoan hilaren 16a arte (11:00-12:00); prezioa da 37 euro bazkideendako eta 47 bazkide ez direnendako.

ERDITZE OSTEKO ZALANTZAK KUKU MIKUN

Erditze ostean zer? hitzaldia egingo dute Kuku Mikun irailaren 16an Nahia Alkorta adituarekin, 18:00etan. Izena emateko helbidea hemen: info@sabeletikmundura.eus.

KANPAI-JOLEEN GAINEKO LEHIAKETA BUKATZEAR

Kanpai-joleen gaineke argazki lehiaketara lanak bidaltzeko epea irailaren 15ean bukatuko da. 18 urtetik gorako edozeinek parte har dezake eta lanak (gehienez hiru) bidali behar dira honako helbideren batera: kanpaijoleak@gmail.com edo kultura@aretxabaleta.eus. Arientzako kanpai-jole eskolak eta Kultura Sailak antolatu dute kanpaien atzean daudenak erakusteko.

MUSIKA ESKOLAKO IKASTURTEA HASTEAR

Leizarra musika eskolak datorren astelehenean, irailak 5, hasiko ditu eskolak. Instrumentuetako irakasleek ordu-tegien berri egun horretan emango dute.

Turismoa bultzatzeko 'Enekoren Gaztelua' ibilbidea prest dago

'Eskolore ibilbideak' proiektuaren barruan hainbat bide ezagutzeko aukera Eskoriatzan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA
Abuztuan bisita gidatuak izan dira Eskoriatzako hainbat leku ezagutzeko. Udalak antolatuta, Ibarraundi museoa, Zubiate labea, Elorretako errota eta Atxorrotzeko indusketak bisitatu ahal izan dira. Gainera, azken urteotan moduan, Iñaki Sagredo arkeologoaren gidaritzapean indusketak egiten izan dira Atxorrotxen, eta berari laguntzen hamahiru boluntario izan dira. Nahi izan duenak bere kabuz bisitatu ahal izan ditu indusketak, eta honekin batera, *Eskolore Ibilbideak* proiektuaren barruan, *Enekoren Gaztelua* izeneko ibilbidea egiteko aukera ere izan da.

'Enekoren Gaztelua' bidea
Atxorrotzeko gaztelua, lehen aldiz, Atarrabiako foruari buruzko 1184. urteko dokumentu batean aipatzen da, Aizorroç-eko Enecone de Oriz aipatzen denean. Eneco de Orizen gazteluak lurralde zabala kontrolatzen zuen, batez ere, merkataritzarako biderik garrantzitsuenak, baina baita espazio txikiak, larreak eta merkataritzarako bide txikiak ere. Bertan, zergak bildu, justizia administratu eta mugape hori defendatzen ziren. Burdinolak, mendiak eta gatzagak koroaren ondare ziren, eta Enecone de



Familia Eskolore ibilbideetako bat egiten. | ESKORIATZAKO UDALA

Orizen ardura zen horiek ondo administratzea. Testuinguru honetatik abiatuz, Udalak *Enekoren Gaztelua* bidea sortu du *Eskolore* proiektuaren barruan, beste hainbat bide ere seinalatuz.

Edozeinek egiteko modukoa
Eskoriatzatik Gatzagaraino doan bidea da *Enekoren Gaztelua*, 7,57 kilometrokoa dena, eta bi ordu eta 45 minutuan egin daiteke. Zailtasuna, berriz, erreza da, eta edozeinek egiteko modukoa.

Eskolore proiektuaren barruan, beste hainbat bide ere badaude egin daitezkeenak. *Latabide* da horietako bat. Eskoriatzako iparraldeko auzoak ezagutzeko parada ematen du, eta lau ordu eta hamabost minutuan egin daite-

keen hamabi kilometroko bidea da. Bertan, Apetzaga elizatean, San Migel parrokia eta hilerri zirkularra ikus daitezke, EAEko monumentu multzo izendatuta dagoena. Gellaon, Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia dago ikusgai, ate erromanikoa duena... besteak beste.

Egin daitekeen beste ibilbide bat *Mandobide* da. Hamabi kilometro dira eta hiru ordu eta erdian egin daiteke. Bolibar elizatean, San Migel parrokia ikus daiteke, XVIII. mendeko egurrezko bobeda duena. Mendiola elizatean, aldiz, San Joan Bataiatzailearen parrokia ere ikus daiteke... besteak beste.

Trenbide, aldiz, Eskoloreko ibilaldirik luzeena da, hogeita bost kilometrorekin, eta zazpi orduren bueltan egin daiteke. Mazmela elizatean, Andre Mariaren Zeruratzearen eliza dago. Marin elizatean, Santa Maria Magdalena parrokia eta estilo neoklasikoko hilerria. Zarimutz elizatean, aldiz, San Pedro parrokia eta gerra zibila amaitu ondoren eraikitako monolitoa... dau-de ikusgai, besteak beste.

Bide hauez gain, herriguneko *Eskolore bidea* edo *Tumuluen* ibilbidea ere markatuta daude. Informazio gehiago Eskoriatzako webgunean.



IMANOL SORIANO

Sanbartolomeak giro onean

Zapatuan, San Bartolome eguna ospatu zuten Mazmelako auzotarrek. Bertan, urteroko auzo-bazkaria egin zuten elkartearen, eta 40 lagun inguru batu ziren bertan. Menu ederraz disfrutatu aurretik, aldiz, gaztetxoek pilotan aritu ziren eliza azpiko frontoian, urtero lez. Tripa beteta, bazkalostea luzatu egin zitzairen askori, lagunarteko solasaldietan, eta, amaitzeko, festarekin herrian jarraitu zuten.

Hastear da Eskoriatzako areto futbol eskola

Irailaren 5ean eta 7an izango dira entrenamenduak Manuel Muñoz kiroldegian

I.B | ESKORIATZA
Areto futboleko denboraldi berria hastera doa, eta Eskoriatza eta Arizmendi kirol elkarteek antolatuta entrenamendu saioak egin-gin dituzte datorren astean. Hala, gaztetxoek kirola probatu eta gustuko badute, izena emateko aukera izango dute aurre-denboraldi honen ostean. Entrenamenduak irailaren 5ean eta 7an izango dira, eta deialdia 2003 eta 2008. urteen artean jaiotako haurrentzat zuzenduta dago. Entrenamenduak Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian egingo dira eta Aratz Kortazar izango da bertan entrenatzaile lanetan, haurrei areto futbolaren inguruko oinarritzako ezagutzak ematen. "Iaz, hainbat gaztetxo izan ziren entrenamendu haue-tan, eta urte osorako geratu zire-nak aurtan ere etorriko dira.

Hala eta guztiz ere, deialdia zabal-tzea nahi dugu, talde handiago bat osatzeko. Honekin batera, gaztetxoei aukera aproposa dute-la adierazi nahi diegu. Behintzat, areto futbola probatu dezaten nahi dugu, eta gustatuz gero den-

boraldi osorako geratu daitezten..." adierazi du Aratz Kortazar areto futbol eskolako entrenatzaileak. Entrenamenduen ordutegia, berriz, honako hau izango da: 16:45etik 18:00etara aipatutako bi egunotan (iraila 5 eta 7).

Entrenatzeko egin beharrekoa
Doako eskaintza izen arren, entrenamenduetara joan aurretik izena eman behar da; horretarako, 652 766 310 telefonora deitu beharko da irailaren 5aren aurretik entrenamenduetan parte hartzeko.



Iaz, areto futbol eskolako talde argazkia. | ESKORIATZA K.E

30-40 tortilla inguru batuko dira Kongori eta Senegali laguntzeko

M. A. | ANTZUOLA

Gaur, irailak 2, ospatuko dute Elkartasun festa antzuolarrek. Herriarren tortillak izango dira protagonista. "Ohitura da herriarrei borondatez patata-tortilla prestatzeko eskatzea. 30-40 bat tortilla inguru gertatuko dituzte; aurrez animatuko direnei, mila esker! Pintxoak guk banatuko ditugu. Aurten goa Kuban girotuta egongo denez, bertako musika eta jana-

ria banatuko dira", dio Anelkarreko kide Jabi Etxanizek.

Kubatar festa

19:30ean ekingo zaio Kubako kulturaren girotua egongo den festari, Zurrategin. Hala, Kubako janariaz gain, mojitoak eta musika zein dantzak izango dira. Batzen den dirua Kongon eta Senegalen Anelkarrek dituen proiektuak mantentzeko eta hobetzeko bideratuko da.



Iazko Elkartasun festa, Zurrategin. | JABI ETXANIZ

NIRE USTEZ

AMAILA RAMIREZ DE OKARIZ



Azaltzen zaila

Urduri nago. Urduri nago eta ez dakit zergatia. Goizean hartu dudana kafearen ondorengo kafe super doblea izan ote den erruduna pentsatzen hasia naiz; baina, keba, ezinezkoa da.

Buruari buelta eta buelta ibili naiz, arrazoia aurkitu nahian, eta momentu batez klak!

Udalekuetara noa, eta urdu-ri nago.

Sortu nahi dugun guztia bertan sortu genezakeela amesten dugu; ederra dena oraindik ere ederragoa bilakatuz;

irriak negar malko bihurtuz. Azal zein uler ezina izan ohi da askorentzako bertan sentitzen duguna. Finean, magia zer den azaltzea zaila da, ezta?

Familia berri eta handi bat sortzeaz, norbera benetan dena azaltzeaz eta beldurak uxatzeaz. Ume zein helduago ilusioz betetzeaz eta nahi dugun hori egiteaz.

Herri txiki polit bat gordetzen du Arabak, non abuztuan egin ohi diren Euskal Udalekuak. Ederra zara Bernedo...

Proiektu izugarriez eta noski, Euskal Udalekuez. Goñi, Abaigar eta Bernedo, hiru etxe eta mila momentu.

Egunero dantzatzuz, sorginak ezagutuz, indioak izanez edo lamiak salbatuz. Begirale, sukaldari, laguntzaile zein umeei esker askoren udak magiko bihurtuz.

Besterik gabe, eskerrik asko!

OHARRAK

BATZAR IREKIA

EH Bilduk, hauteskundeetarako planteamendua osatzeko helburuaz, batzar irekia egingo du irailaren 6an, martitzena. Orlanen 18:30etik 20:00era izango da herriar ororendako.

KORRIKA EGITEKO TALDEA

Irailean Udal gimnasioak korrika egiteko taldea izango du. Izan ere, herrian korrika egiteko zaletasuna hazi egin da.

Modu horretan, bakarrik korrika egin beharrean taldean korrika egiteko aukera eskaintzea dela helburua azpimarratu dute. Korrika egiten ikasteko ikastaroa martitzen eta eguenetan izango da, 17:45ean. Informazio gehiago 943 766 661 telefono zenbakian edo antzuelakogimnasioa@gmail.com helbidean. Horrez gain, beste hainbat zerbitzu ere izango dira gimnasioan irailetik aurrera.

Gaztetxo zein helduek gozatu dute ur-parkeaz

Hobekuntza lanak egin gura ditu Antzuolako Udalak, bereziki inguruko belardietan, urtea bukatu aurretik

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

"Hasiera batean gaztetxoak animatu baziren ere, abuztua aurrera joan den heinean, bikiniak, hamaka eta toalla hartuta ere ibili dira zenbait herriar. Jende dezente ibili da eta herriarrek zein kanpotik etorri direnek ere gustura hartu dute udan ur-parkea", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. "Igerileku giroa izan da bertan; jendea eguzkia hartzera ere etorri da tarteka, txorroetan freskatuz".

Bainu denboraldiari agur

Irailaren 15ean bukatuko da bainu denboraldia. Hala ere, urrian eguraldi ona eginez gero, automatikoki pizteko aukera ere izango dela dio alkateak. "Egunero, 11:30etik 19:30era dago martxan. Betiere, norbaitek jarri behar du. Urrian eguraldi ona eginez gero jarriko genuke martxan".

Hobekuntza lanak

Udalak, negua aldera, ingurua txukun mantentzeko hobekuntza lanak egiteko asmoa dauka. "Belardiak txukunduko ditugu eta garbitasunari dagokionez hobekuntzak ere egin gura ditugu". Kortabarriak azaldu du hasieran kezka bazuten arren, oso gustura daudela Antzuola moduko herri txiki bati ematen zaion aukerarekin.



Jaietan izan zuten lehenengoz ur-parkeaz gozatzeko aukera. | MAIDER ARREGI



IZASKUN FERNANDEZ
ANTZUOLA

"Igerilekurik ez daukagu eta horri irtenbidea emanez, bustitzeko eta ondo pasatzeko aukera izan dugu abuztuan".



IZARO ETA EKAIN
ANTZUOLA

"Askotarik disfrutatu dugu ur-parkean. Jendea bustitzen ibili gara eta barre asko egin dugu. Lagun asko joan gara bertara".



MALEN
ANTZUOLA

"Lagunekin joan naiz ur-parkera. Herrian ondo pasatzeko behar genuen. Askotarik aprobetxatu dut udan".



JABI ETXANIZ

Antzuolarren elkartasunari beste behin eskerrik asko!

KOMUNITATEA GOIENA | ANELKAR | ANTZUOLA

San Bartolome eguna ospatu genuen abuztuaren 24an laugarren urtez sardina-jana eginez. Baina, Kongoko eta Senegaleko proiektuei elkartasuna adieraztea ere bada jaiaren helburua. 519 euro batu ziren herriarren borondatez. 92 euro sardinak prestatzeko bideratu ditugu eta 427 euro Afrikan ditugun bi proiektuendako izango dira. Eskerrik asko!



Irudian Añai tabernako terraza. | GOIENA

Terrazak arautzeko ordenantza berritzeko asmoa du Udalak

Zirriborrea prestatzen ari dira 2002ko araudiaren hutsuneak estaltzeko

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO
Aramaioko Udal Gobernua lur publikotan dauden terrazen araudia berritzeko lanean ari da. Azken ordenantza 2002 urtekoa izanik, honek dituen hutsuneak osatzeko eta hainbat biztanleren kexei erantzuna emateko asmoz abiarazi dute ordenantza berria egiteko prozesua.

Biztanleen kexak
"Biztanleen kexak heldu zaizkigu eta horiek izan dira aldaketa eragiteko arrazoi nagusia" adierazi du Martin Arriolabengoa Hirigintza zinegotziak.

Biztanleek portaletara sartzeko zailtasunak izan dituzte, batez ere gurgil aulki edo umeak eramateko karrotxoekin. Terraza baten eraginez etxera sartzeko zailtasunak izatea ez da onargarria Udalaren ustez, eta horri

konponbidea bilatzeko zirriborrea prestatzen ari dira.

Iraila hasieran aurkeztuko dituzte zirriborroaren xehetasunak Hirigintza batzordean, eta ondoren herritarren eta tabernarien ekarpenekin osatzea da Udalaren asmoa. "Hirigintza batzordetik pasa bezain pronto zirriborrea herritarren eskura jarriko dugu webgunearen bitartez. Aramaioko biztanleei eta bertako tabernariei ordenantza berrian parte hartzeko aukera ematea egokia iruditzen zaigu" adierazi du Arriolabengoak.

Udazkenerako onartuta
Araudi berria udazkenean zehar onartzea aurreikusten du Arriolabengoak: "Ez dakit urrian edo azaroan izango den, baina ordu-rako legedi berria martxan egotea da gustatuko litzaigukeena".

Gaur egun Anboto, Eki eta Añai taberneak dituzte terrazak lur publikoan, baina etorkizunean jar daitezkeen terraza berriak ere arautuko lituzke ordenantza berriak.

Ordenantza zaharkituta
Biztanleen kexei erantzuna emateaz gain, badaude ordenantza aldatzeko arrazoi gehiago. Indarrean dagoen araudia 2002 urtekoa da, eta Udalaren ustez ez da gaur egungo errealitatera behar bezala egokitzen. "Duela 14 urteko araudiak dioen gauza bakarra terrazetako mahai bakoitzeko 15 euroko kanoa ordaindu behar dela da. Ez ditu kontuan hartzen hauen kokapenerako arauak edo tamaina ezberdineko mahaiak egon daitezkeela, eta hori behar bezala erregulatu nahi dugu".

Gorbeialdeko kuadrilla Zuiakoarenaren orde

Bi urteko iraupena izan du izen-aldatze prozesuak

X.G. | ARAMAIO
Aramaioko barne hartzen zuen kuadrillaren izena aldatu egin da. Orain arte Zuiako kuadrilla izan dena Gorbeialdeko kuadrilla izatera pasa da.

Duela bi urte inguru hasi zen kuadrillari izena aldatzeko prozesua. Hainbat biztanleren proposamenek bultzatuta Lierni Altuna alkatea izan zen egitasmoa kuadrillako batzar orokorrean aurkeztu zuena. "Aurreko legealdian ni nintzen kuadrillako lehendakaria, eta legealdi amaiera aldean jarri genuen prozesua

martxan. Gure ustez, Zuia herri bat izatean, kuadrillaren izenak ez zuen eskualdea bere osotasunean ordezkatzen. Beste estamentu batzuek antzerako izena zutela ikustean Gorbeialdeko kuadrilla izatea proposatu genuen, eta aho batez onartu zen".

Prozesua bi urtez luzatu izana honela azaldu du Altunak: "Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Sailak kuadrillaren gaztelerazko izena *Cuadrillas del Gorbeialdea* izatea proposatu zigun. Beraz, aldaketa horrek tramitazioa berriz hastea eragin zigun".

Gorbeialdeko kuadrillako argazki lehiaketa

X.G. | ARAMAIO
Gorbeialdeko Kuadrillatik bertako udalerrietan ateratako argazkien lehiaketa antolatu dute. Askotariko gaiak landu daitezke, betiere, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian edo Zuian aterata badaude. Lehen sariak 200 euroko dirusaria jasoko du, bigarrenak 150ekoa eta hirugarrenak 100ekoa.

Herri bakoitzeko argazki onenak 60 euroko saria izango du, baita Accesita erakundearen egutegirako aukeratzeko diren lau argazkiek ere.

Hiru mendi pista gehiago konponduko dira aurten

X.G. | ARAMAIO
Udal Gobernuak hiru mendi pista konpontzeko aurrekontuak onartu ditu.

Betikoz prozedurari jarraituz hainbat aurrekontu eskatu dira horietatik egokiena aukeratzeko eta oraingoan Julen Agirre Mugarzak aurkeztutakoak izan dira aukeraturakoak.

Untzilla eta San Adrian
Konpondu beharreko pistetako garestiena Untzilla eta San Adrian artean dagoena da. Pista garbitzeaz bat bertako urak bideratzea da Udalaren asmoa. Guztira 20.818,05 euroko aurrekontua izango du.

Bertako zatirik handiena, 11,708,57 euro, Arabako Foru Aldundiak finantzatzeko du. Aramaioko Udalak diru laguntzen deialdira bideratutako eskaera onartu eta gero.

Azkoaga eta Zarimutz
Beste pistetako bat Azkoaga eta Zarimutz artean kokatzen dena izango da, Kruzetatik Zarimutzeko ur biltzeiraino doana hain zuzen ere. Hemen ere bidea konpontzeaz gain, bertako urak hartuko dira. Lanek 10.493,36 euroko kostua izango dute, baina 5.902,81 euro Foru Aldundiak ordainduko ditu. Aurrekoan bezala diru laguntza eskaera onartu izanagatik lanen kostuaren %56a Foru Aldundiaren laguntzarekin ordainduko dira.

Arrikoiti
Hirugarren konponketa lanak Arrikoititik gora doan bidean egingo dira. Bertako hormigoizko arekak atera eta urak bideratuko dira eta 2.450,25 euroko kostua izango. Kasu honetan kostu guztia Aramaioko Udalak ordainduko du.



Konponduko duten mendi pistetako bat | ARAMAIOKO UDALA

Gaur, egubakoitza, Mike Hammer And The Taxi Drivers taldearen blues rock doinuak Sastiñan

Iraileko egubakoitz iluntze guztietan Aramaion zuzeneko musika izango da nagusi. Udalak askotariko estiloz osatutako debaldeko egitaraua prestatu du Sastiñan eta gaurko kontzertuarekin emango diote hasiera. Bertan, Barakaldoko Mike Hammer And The Taxi Drivers taldeak rock blues doinuak ekarriko ditu Aramaiora. Hitzordua Sastiñan, 19:30etan.

Dantzatzeko eta ondo pasatzeko aukera bikaina domekan Marixekako jaietako ekintzekin

Iraila heltzearekin bat hemen dira berriz Marixekako jaiak. Irailaren 4an, domeka, egongo da zer jan, zer edan eta zer dantzatu. Eguna hasteko, 11:00etan, salda, txorizoa eta edariak dantzatzeko aukera izango da. 12:00etan meza santua ospatuko ondoren, Aramaioko trikitilari eskolakoek bazterrak alaituko dituzte bazkalordura arte. 14:30 bazkaria egingo dute eta 17:00etan Gorriti eta bere animalien txanda izango da.

Hirugarren adinekoentzat mantentze gimnasia ikastaroan izena emateko epea zabalik da

Sasoian egon nahi duten adindunentzat mantentze gimnasia ikastaroa prestatu Aramaioko Udalak. Hitzorduak astelehenetan eta asteazkenetan izango dira kiroldegian, eta ordutegia 10:00etatik 11:00etara.

Izena eman nahi dutenek udaletxetik pasa beharko dute irailaren 11 baino lehen, eta ikastaroak ez du inongo kosturik izango. Irailaren 12an, astelehena, egingo dute lehen saioa.

FUTBOLA



Azkarate eta Sanchez, baloiagatik lehian, 2013ko Arrasate Hiria Torneoko artxibo erretratuan. | GOIENA

Udako torneoetan erakutsiko dute taldeek aurpegi berria

Arrasate Hiria, Jose Luis Agirreren omenezkoa eta Bergara Hiria, asteburuan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Lanean dabilta futbol talde denak. Gehienak abuztu erdi inguruan bueltatu ziren entrenamendu saioetara, eta dagoeneko denboraldiaurreko hainbat lagunarteko jokatu dituzte. Hala, liga txapelketak hasi aurretik –Ohorezko Erregionala irailaren 10ean hasiko dute, eta 17an Erregional Preferentea– bihar, hilak 3, udako hainbat torneo jokatu dituzte, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

Arrasate Hiria, bihar

Josu Zubiaren Mondra hilaren 15ean hasi zen lanean, eta jada Deustoren eta Mundararren kontra jokatu dute. Bihar, zapatua, Arrasate Hiria torneoa jokatu

dute, eta hiruko torneoora kategoria berean lehiatuko diren UDA eta Amaikak Bat taldeak gonbidatu dituzte.

Torneoa 16:30ean hasiko dute Amaikak Batek eta UDAk jokatu duten partiduarekin; 17:30ean Mondra eta Amaikak Bat izango dira aurrez aurre, eta 18:30ean Mondra eta UDA –45 minutuko partiduak izango dira–.

Taldeei dagokienez, Mondrak taldea indartzeko esfortzua egin du, eta sei aurpegi berri izango ditu: Ioritz Aginagalde, Asier Sanchez *Sancho*, Oihan Rodriguez, Ander Arroyo, Julen Etxaniz eta Julen Valle. Sei horietatik, gainera, lau arrasatearrak dira. Aretxabaletak, ostera, hiru fitxaketa egin ditu taldea indartzeko:

Mikel Femia (San Martin), Aritz Castro (Alaves) eta Rodrigo (Amurrio). Beheko taldetik, berriz, bost jokalarik igoko dituzte: Beñat Olabe, Markel Gordoa, Igor Murgioitio, Txomin Martinez eta Iker Arriolabengoa.

Jose Luis Agirreren omenez

Aloña Mendik uztail erdian hainbat lansaio egin ostean –besteak beste Gotzon Urzelai entrenatzailer berria taldekideei aurkezteko– bi aste hauetan hainbat lagunarteko jokatu dituzte –Orioko, Alaves, Ariznabarra eta Bergara–. Bihar, zapatua (17:00) Jose Luis Agirreren omenezko torneoan Eibarko Urko izango dute aurrean.

Taldeari dagokionez, erregional mailako taldetik Antton Agi-

rre, Jon Txapartegi eta Iñigo Barrena lehen taldera igoko dituzte, eta gazte mailatik beste bi jokalarik gora egingo dute.

Bergara Hiria

Bergarak, berriz, Mondrako eta UDAko bigarren taldeekin batera astebete gehiago izango du liga prestatzeko, hilaren 17an hasiko dute eta liga. Mahoneroek azkenera arte estutu zuten iaz, mailaz igotzeko, eta motibazio hori izango dute aurten ere. Hala, liga ondo hastea izango da lehenengo eginbeharra. Bihar, zapatua (18:00), Elgoibarren kontra jokatu dute Bergara Hiria torneoan, Agorrosinen. Eta ondoren, hilaren 7an Ermuaren kontra, eta hilaren 10ean Elorrioren kontra neurtuko dituzte indarrak –bi partiduak Agorrosinen–.

Taldea kanpoan egon diren bergararrekin indartuko dute, Markel Ilzarbe (UDA), Josu Diaz (Mondra) eta Christian Rodriguez (Reala) taldera itzuliko direlako. Eta, harrobitik Paul Valgañon, Martin Azpiazu eta Andoni Breña igoko dituzte.

Antzuola, taldea indartzera

Antzuola lehen erregionalera jaitsi izanak nolabaiteko iraultza ekarri du taldera. Aldaketak izan dira, iaztik 11 lagunek jarraitzen dute, baina garai batean futbola utzitakoek, edo kanpora joandakoek itzultzea erabaki dute. Hala, Markel Lete (UDA), bueltatu da, Oxel Apraiz (UDA) aurrelari arrasatearrak ere Antzuolan jokatu du, eta baita Julian Ramirezek ere. Eta, futbola utzita zeukaten Ander Arana eta Asier Longares ere entrenatzen dabilta. Eta hori gutxi balitz, gazte mailako zazpi jokalarik igo dituzte.

Irailaren 9an UDA B taldearen kontra jokatu dute, eta hilaren 13an Bergara B taldearen kontra.

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizarrek bertan behera utzi behar izan du Vuelta

X.U. | ARRASATE

Astelehenean, Covadongako lakuetan amaitzen zen etapa hasieran izan zuen erorikoa Markel Irizarrek (Trek Segafredo), abiadura bizian hasi zuten etapan. Oñatikoa Kevin Rezarekin (FDJ) eta Bartosz Huzarskirekin (Bora) batera joan zen lurrera, eta kolpe handiena aurpegian hartu zuen –hiru horts apurtu ditu.

Lasaitasun mezua

Oñatikoak sare sozialetan azaldu zuen ondo zegoela, nahiz eta kolpearen ondorioz ez zen oroitzen kolpea hartu zuen momentuaz, ezta ondorengoetaz ere: "Hiru horts apurtuta eta puntu batzuk aurpegian erorikoaren ondorioz. Zorionez beste dena ondo dago, beraz, gaitz erdi. Mila esker animo mezuengatik", idatzi zuen.



Irizar ospitalean. | M.I.

IRONMANA

Aritz Kortabarria: "Hawaiin lehiatzea tenisean Wimbledon jokatzeko bezala da"

Bergarakoak, abuztuan, Holandako Ironmanean lortu zuen sailkatzea

XABIER URZELAI | BERGARA

Urriaren 8an aspaldiko ametsa bete ahal izango du Aritz Kortabarria (Bergara, 1978). Hain zuzen, Kortabarria jaio zen urtean antolatutako zuten lehenengoz Hawaiin Ironman proba, irlan egiten zituzten hiru lasterketa batuta, eta mundu mailan erreferente bilakatu zen. Bada, hila-bete eta erdi barru irteera puntuan izango da.

25 egin ditu guztira

Aritz Kortabarriak distantzia luzeko triatloiak maite ditu: "Guztira 25 Ironman egin ditut, horietako bost Hawaiin egoteko helburuaz. Eta azkenean lortu dut".

Hawaiin mundu mailako triatleta onenak batzen dira, edonork ezin du parte hartu bertan. Sailkapen fase bat egoten da, aurretik beste Ironman proba batean



Aritz Kortabarria, Holandako Ironman probako podiumean. | A.K. / FACEBOOK

onenen artean egon beharra dago, eta bosgarren ahaleginean lortu du Aritz Kortabarriak txartela eskuratzea. Holandan izan zen, Maastricht-Limburgeko Ironma-

nean, abuztu hasieran: "Beste batzuetan baloiak langan jo du, beti izaten nuen arazoren bat. Minutu bateko aldean egon daiteke txartela lortzea ala ez lortzea,

eta oraingoan lortu dut", dio bergararrak.

Maastricht-Limburgeko Ironmanean guztira 40 txartel zeuden Hawaiira sailkatzeko. Eta, Kortabarriaren adin tartean bost onenak sailkatzen ziren: "Korrikako sektorean egindako lanari esker lortu nuen txartela. Orokorrean denborak ez ziren batera onak izan, batez ere bizikletako tartea ez zelako batera proposa, arriskutsu zegoen. Baina korrika tarte ona egin nuen, profesionalak kontutan hartuta 16. denbora onena egin nuen eta hor egon zen gakoa".

Urriaren 8an ametsa betetzera

Kortabarriak dagoeneko hasi du atzera kontaketa, hilabete eta erdi barru ostera ere distantzia luzeeneko proba izango duelako aurrean –3,6 km igeri, 180 km bizikletan eta 42 km korrika–. "Ettxerako lanak dagoeneko egin da daude, aurreko Ironmana prestatzeko egin nituen. Atsedean apur bat hartu ostean ostera ere hasi naiz entrenatzen. Eta, horrekin batera babesle bila, izenematea ez delako batera merkea, ezta bidaia ere".

Hala, Bergarakoak lan ona egi-tera joango da AEBetara: "Seguruenik atleta arinenetakoa izango naiz, gehienak gorpuzkera aldetik handiak izaten direlako. Bada, igeri egin ostean bizikletako tartean eusten ahalegindu beharko naiz, baina lehertu barik, jende indartsua egoten delako. Eta ondoren, korrikako tartean ahalik eta txukunen ibili, pisu gutxi izanda beste batzuen aldean abantaila izango dudalako".

Lehen debagoiendarra

Aurreratu moduan, Hawaiirako sailkatzea ez da batera erraza, eta horren erakusle da Aritz Kortabarria dela Hawaiin lehiatuko den lehenengo debagoiendarra. Duela urte batzuk Antxintxika Triatloi Taldeko atleta Xabi Lekue lehiatu zen –taldekideen laguntza izan zuen horretarako–, baina Lekue donostiarra da. Hala, Kortabarria izango da bailarako lehen ordezkaria: "Azken batean, Ironmanetan ibiltzen denak, behin behintzat, Hawaiin egon gura du. Txirrindularia izan eta Tourrera joatea bezala da, edo tenis jokalaria izan eta Wimbledon jokatzeko".

ESKUBALOIA



Bera Berako eta Zarauzko jokariak, Kilometroak 2016ko pankartarekin, talde erretratuan. | ENKO AZKARATE

Bera Bera Zarautz baino gehiago izan zen, Kilometroak 2016ren aldeko partiduan

Labegarietako harmailak bete egin ziren eguaztenean lagunartekoa ikusteko

ENKO AZKARATE | BERGARA

Gipuzkoako eskubaloia talde nagusiak nor baino nor gehiago aritu ziren eguaztenean Bergarako Labegarietako kiroldegian, Kilometroak 2016ren alde. 24-17 nagusi ziren donostiarrak –atsedaldian 14-8–, txapelketa ofizialak hasi aurreko azken lagunartekoan –400 ikusle batu ziren harmailetan partidua ikusteko–.

Denboraldia hasteko gertu

Bera Berakoek udan jokatu dituzten aurre-denboraldiko bost partiduetatik irabazi dituzte eta beste bi txapelketa poltsikoratu dituzte. Ligako eta Kopako txapeladunak Iruñeako Anaitasuna kiroldegian hasiko du ofizialki denboraldia, bihar, Superkopian, Barakaldo Zuazoren aurka. Eta, ostean, Txapeldunen Ligako sail-

kapen fasea jokatuko du irailaren 9an eta 10ean Donostiako Gasca kiroldegian. Hala, Liga irailaren 14an hasiko dute donostiarrak, Aula Culturalen aurka.

Zarauztarrak, bestalde, abuztu erdialdetik dabilta entrenatzen eta irail erdian hasiko dute Liga, iaz zilarrezko mailara jaitsi ostean. Aurreko denboraldian Ohorezkoan aritu ziren Bera Berarekin.

TXIRRINDULARITZA

Etorkizuneko Tourra lehiatu du abuztuan Jokin Etxabek

Azken orduan jaso zuen selekzioaren deia

X.U. | BERGARA

Entrenatzen zebilela, Espainiako selekzioaren deia jaso zuen Jokin Etxabe bergararrak Etorkizuneko Tourrean gaixo zebilen Enric Masen tokia hartzeko: "Ni nengoen lehenengoa erreserban eta parte hartzeko aukera nuela esan zidaten, eta baietz esan nuen. Esperientzia polita izan da. Zortea izan dut, eta, gainera, aukera aprobetxatu dut".



Jokin Etxabe. | REMI DALLOT

Sailkapenean 37. postuan

"Pena izan da etapa batzuetan aurreneko 20en artean ere sartzeko aukera edo gaitasuna izan dudalako. Baina profesionalak ez diren txirrindularien artean

5. gelditu naiz, eta pozik nago". Seguros Bilbao taldeko ziklistak han lortutako pedal kolpea baliatu gura du denboraldia aurrean amaitzeko, posible bada, lasterketa bat irabazita".

TXIRRINDULARITZA

Dorletako Amako Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte etzi

Domekan jokatuko dituzte, 09:30ean hasita, Gatzagan Dorletako Amako Pilota Txapelketako finalak –kategoria txikietako Euskadiko Txapelketa–. Hala, 8 urtekoen finalean bergararrak daude, eta 13 urtekoenean aramaioarrak.

ESKALADA

Ikastaroa antolatu dute Arrasate eta Aretxabaletan

Debagoieneko Eskalada Eskolak ikastaroa antolatu du Aretxabaletako eta Arrasateko rokodromoetan. Informazio gehiago Uarkapen irailaren 5, 6, 7, 12, 13 eta 14an, 18:00-19:00, eta Ibarren irailaren 20, 22, 27 eta 29an.

MondragonLingua, beste era batera egiten dugu dena, gure programa desberdina da, gure metodologia ere bai. Gure klaseak desberdinak dira, eta, agerikoa denez, gure emaitzak ere desberdinak dira.

mondragonLingua

Hizkuntzak funtsezkoak dira dagoeneko gure bizitzan. Horregatik, MondragonLingua pertsonaia garrantzitsuekin antolatu dituen TAILERRETAN ETA TOPAKETETAN parte hartzera gonbidatzen zaitu, praktikatzeko eta haien esperientzia profesionalak eta pertsonalak entzuteko.

Aste honetan, Arrasate eta Oñatiko zentroetan:

Learning with the iPad as a family.
(SICOS) Mintegia gurasoei zein seme-alabei zuzenduta. Arrasateko zentroan. 19:00etan, asteazkenean.

English is very very erraza.
ANITZ ANTZERKI TALDEA. Kaleko jolas-antzerkia. Arrasateko zentroan, 19:00etan, ostegunean.

STORYTELLING: Around the world in 60 minutes.
MONDRAGON LINGUA Ipuin-kontalaritzako tailerra. Oñatiko zentroan, 19:00etan, ostegunean.

ZATOZ GURE TAILER ETA TOPAKETETARA:

IZENA EMAN DUTENEN ARTEAN SARI BAT ZOZKETATUKO DA PLAZA MUGATUAK.
Informa zaitetz zure zentroan:

ARRASATE
Araba etorb. 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI
Motxon, 7. Tel. 943 71 60 00

Eta gainera...
Urriaren 21a baino lehen matrikulatzen bazara, bi pertsonarentzako **asteburu bat irabaz dezakezu** Londresen, Baztanen edo Hondarribian.*

* mIPLUS edo mIADAPTA ikastaroan matrikulatzen diren ikasleentzat. Kontsultatu baldintzak.

(SICOS)

Instagram

basque culinary center

Mikel Alberdi | Zumalakarregi museoko Dokumentazio arduraduna

"Erakusketak bidea ematen du Bergarako Besarkadaren beste irakurketa bat egiteko"

Donostiako Kultur Hiriburutzaren baitan dagoen Bake Ituna proiektuaren atal bat, Bergaran ikusgai

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Azaroaren 1era arte Laboratorium museoa ikusgai dago 1839. *Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa* erakusketak. Donostia 2016 ekimenak Ormaiztegi Zumalakarregi Museorekin elkarlanean egindakoa da. Erakusketako komisarioa da Mikel Alberdi, Zumalakarregi museoko Dokumentazio arduraduna.

Erakusketak zabaltzen berri, zelakoak dira jaso dituzun lehen iritziak?

Nik uste dut badagoela erakusketak ikusteko kuriositatea. Bitxia da, baina Bergarako Besarkadak ez du Bergaran fama onik. Kuriosoa da historian gertakizun batzuekin gertatzen dena. Kasu honetan, bergararrek ez dute harrotasunik herrian bertan sei urteko guda odoltsu bati amaiera eman zitzaiola.

lako. Iruditzen zait erakusketak honek bidea ematen duela horri buruz beste irakurketa bat egiteko. Bildumarekin, jendeak gaiaz hausnartzea da gure helburua. **Izan ere, guda gogorraren amaiera ekarri bazuen ere, Besarkadak euskaldunontzako irudi gazi gozoa du.** Karlistentzat, noski, *Besarkada* traizio bat izan zen; ondorioz, On Karlos atzerrira joan zen eta zenbait jarraitzaile bere atzetik joan ziren gero. Arazo dinastikoa ez zuten aipatu bake-akordioa sinatu zutenean. Foruak errespetatuko zirelakoan entregatu zituzten armak han zeuden karlistek. Azken finean, gertatu zena izan zen handik gutxira hasi zirela foruen aurkako neurriak hartzen, eta, batez ere, II. Karlistaldiaren ondoren, 40 urte geroago, erabat ezabatu zituzten foruak. Handik



Mikel Alberdi, Laboratorium museoa dagoen erakusketako komisarioa. | U. M.

hogei urte ingurura, euskal aber-tzaletasunaren mugimendua hasi zenean, Sabino Aranak esan zuen euskaldunon gaitz nagusienak Bergarako Konbenioarekin hasi zirela. Nire ustez, irakurketa hori egin daiteke, baina ezin zaio Bergarako gertakariari egotzi gero gertatuko zirenen errua, Marotok mahai gainean jarri zuena Foruak errespetatzea izan zelako. Euskal ikuspegitik, horrenbestez, ezin dugu esan planteamendua txarra izan zenik.

"Bildumarekin jendeak gaiaz hausnartzea da gure helburua"

Garai hartako Europako agintarien artean ere oihartzun zabala izan zuen Bergarako Konbenioak.

Europa guztian izan zen Karlislaldien inguruko jarraipen zuzena, hainbat herrialdek hartu zuten parte; izan ere, liberalismoa indarrean zuten herrialdeek euren interesak zituzten. Bakea lortzeko hainbat saiakera izan ziren aurretik; horien artean, erakusketan aipatzen den Eliot hitzarmena. Britainiarrek Lord Eliot enbaxadorea bidali zuten horren

"Bisita sakona edo arina egin daiteke dauden piezak ikusten gozatuz"

odoltsua zen gerra arintzeko asmoz; eta hark lortu zuen, ordu-ra arte ez moduan, zaurituak errespetatzen hasia eta harri-patutako pertsona guztiak fusilatu beharrean preso hartzea. Zoritxarrez, hitzarmen horren ondoren, beste lau urtez luzatu zen gerra.

Hiru zatitan banatuta dago erakusketak; ze nabarmenduko zenuke bakoitzetik?

Lehenengo zatian, bakerako bidean egindako saiakera ezberdinak daude jasota; Eliot hitzarmenarekin lotutako dokumentua, horien artean, baina baita Eliot enbaxadoreak Zumalakarregi jeneralari oparitu zion largabista ere. Bigarrenean, Bergarako hainbat besarkada jasotzen dira -ez baitzen besarkada bakarra izan-. Horiei buruzko argitalpenak eta dokumentuak daude. Eta, hirugarren zatian, berriz, *Besarkadaren* ospakizunekin lotutakoak ditugu. Juan Inazio Iztueta idazlea ekarri dugu gogora; bera izan zen antolatzaile nagusia.

Nori gomendatuko zenioke Laboratorium museora hurbiltzeko?

Publiko oso ezberdinarendako da aproposa. Kuriositatea da behar dena, eta, alde horretatik, merezi du. Material oso ezberdina dago; beraz, erraz ikusteko moduko erakusketak da. Bisita arina egin daiteke, dauden piezak bitxiak ikusten gozatuz. Era berean, gaian sakondu gura duenarentzako ere badago zer ikusi eta aztertu. Askotariko dokumentu interesgarriak daude irakurtzeko.

Kalitatezko musika musu truk entzuteko aukera Kultureteko areto nagusian

Aurreko edizioetako arrakastari eusteko asmoaz, zortzigarren 'Kulturete Akustikoak' zikloa iraileko lehenengo bi asteburuetan

A.A. | ARRASATE

Askotariko musika estilo eta jatorrietako sei kontzertu izango dira gaur, egubakoitza, hasiko den Kulturete Akustikoak musika zikloaren barruan.

Bi asteburutan banatuta, aste-buru bakoitzeko hiruna emanaldi antolatu ditu, zortzigarrenez, Udako Kultura sailak. Kontzertu guztiak Kultureteko areto nagusian izango dira, 20:00etan, dohainik.

Formatu txikian, kalitatez

Ohiko programaziotik kanpo gertatzen diren musika estilo eta formatuei tokia egiteko eta era berean Kulturateri beste erabilera bat emateko asmoarekin sortutako egitasmoa da. "Jarrita lasai entzuteko proposamenak dira aurtengoak ere. Euskal taldeekin eta Estatuko ezohiko eskaintzarekin osatu dugu egitaraua. Orain arteko edizioek harrera ona izan dute. Zaleek gustura hartzen duten eskaintza da. Urtean zehar antolatzen ditugun kontzertuetako publikoarekin alderatuz, kasu kasu betiere, baina ohikoa baino publiko helduagoa hurbiltzen da Kulturatera. Poztekoa da hori; hala ere, gure erronka gazteak ere animatzea da" azaldu du Karmelo Alberdik, Kultura teknikariak.

Irailak 2, egubakoitza



LOU TOPET

LOU TOPET Abesti bat gutxiago lan berria aurkeztuko dute zarauztarrek. AEBko kantu ezagunekin osatutakoa da. Rafa Rueda eta Joserra Senperena ere izango dira.

Irailak 3, zapatua



IGOR ARZUAGA

IGOR ARZUAGA Exkixurekin eta Mikel Urdangarinekin ibilita, bakarkako bideari heldu zion. Bost lan ditu. Nando eta Alberto de la Casa anaien ari da gaur egun.

Irailak 5, domeka



PAJARO

PAJARO Raimundo Amadorren eta Kiko Venenoren taldeetan ibilitakoa da Sevillako Andres Herrera, *Pajaro*. Aurtengo atera duen *He matado al Angel* lanarekin dator Arrasatera.

Irailak 9, egubakoitza



AMORANTE

AMORANTE Musikari askorekin ibilitakoa da Iban Urizar, *Amorante*. Oraingoan, baina, bakarrik dator, eta aldean dakartza, gitarra, ukelelea, tronpetak eta harmoniuma.

Irailak 10, zapatua



MORGAN

MORGAN Madrilgo Carolina de Juan, *Nina*, musikariaren kantuak musikatzen sortutako taldea da. Norah Jones eta Joss Stonen eraginarekin pop eta soul estilora jotzen du.

Irailak 11, domeka



AURORA BELTRAN

AURORA BELTRAN Garai bateko Tahures Zurdo taldeko kidea da. Bi lan argitaratu zituen geroago bakarlarri formatuan. Eva Radarekin izango da taularen gainean.

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 603 29 94 29 edo 634 07 99 70

Arrasate. Bi ume dituen bikote batek bi edo hiru logelako etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. 500 euro baino gutxiago ordain dezakegu hilean. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 603 29 94 29 edo 634 07 99 70

Arrasate. Bi ume dituen neska batek etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. Hilean 500 euro baino gutxiago ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 57 54 33

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 500 eurotik behera ordain dezaket hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Hilean 500 euro baino gutxiago ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Debagoiena. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelarekin nahikoa dugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Errentan hartu. Arrasateko neska bat naiz eta etxebizitza errentan hartuko nuke. Gehienez 400 euro ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 49 60 23 (Leire)

Etxebizitza bila. Aretxabaletako bikotea logela bateko, biko edo hiruko etxebizitza bila, bizitzen hasteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 82 68 37

Oñati edo Bergara. Oñatin ikasten dugun lau gazte gara eta irailetik abendura arte etxebizitza hartuko genuke errentan Oñatin edo Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 80 37 56

Oñati. Bi gazte oñatiar gara eta etxebizitza hartuko nahiko genuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 40 54

Oñati. Bikote oñatiar langile errentan hartzeko etxebizitza bila gabilta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 64 19 25

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigurean, sukalde, egongola eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifia ere bada. 603 14 28 89

Oñati. Ikasle batek logela hartuko luke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 30 81 38 (Unai)

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN

Arrasate. San Andresen, Kurtzetxiki plaza inguruan,

garaje bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 70 84 09

Oñati. Garaje bat errentan hartu nahiko nuke Euskadi etorbidetik gertu. Autoa gordetzeko garaje itxi bat. Deitu edo Whatsapp bidez idatzi. 688 69 51 89

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

AUKERA

Ederra taberna errentan ematen da. Arrasate. 688 63 01 82

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume eskalduna behar da goizez 6 orduz etxeko lanak egin eta 3 ume zaintzeko. Tel.: 699 26 76 20 edo 605 73 80 90

BERGARA

Sukalde laguntzailea behar da. 652 73 18 96

ESKORIATZA

Neska euskaldunak behar dira zerbitzari lanetarako. 685 73 60 57

402. ESKAERAK

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Asteazehar arratsaldetan orduka eta asteburuetan etxean bertan bizi izanda ere izan daiteke. 622 24 86 64 Interesatuok deitu zenbaki honetara:

Arrasate. Neska gertu orduka zaintza lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 29 94 29

Bergara. Kaixo! Magisteritza ikasketak dituen neska bat naiz. Irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Oso gustuko ditut eta bost urte daramatzat adin desberdinetakoa haurrak zaintzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 73 58 19

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95

Debagoiena. Baserri, atari, etxe eta abarrak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 86 22 08

Debagoiena. Emakume gaztea zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 39 60 04

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, garbiketak egin eta abarretarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Emakumea zaintza lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 04 17 30

Debagoiena. Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea garbiketa lanak egiteko gertu: etxeak, atariak, bulegoak, tabernak edota komertzioak. Autoa daukat. Whatsappez ere erantzun dezaket zenbaki honetan: 640 66 96 08

Debagoiena. Garbiketak egiten, zerbitzari moduan eta abarrean lan egingo nuke. Baita ordezkapenak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629 29 11 23 edo 632 70 52 82

Debagoiena. Gauetan edo egunez orduka zaintza

lanak egiteko gertu nago. Baita garbiketak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 672 98 20 91 edo 602 80 15 38

Debagoiena. Gauetan edo egunez orduka zaintza lanak egiteko gertu nago. Baita garbiketak egiteko ere. Gidabaimena dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 09 55 46

Debagoiena. Geriatria eta Alzheimerra duten pertsonak zaintzeko ikasketak dituen neska orduka nagusiak zaindu eta laguntzeko gertu. Garbiketak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 82 02 41

Debagoiena. Gizon gaztea pertsona nagusiak edota menpekotasuna daukaten pertsonak zaindu eta artatzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki

honetara: 631 32 88 77

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak, mandatuak etxera eramateko edo denetariako lanak. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 10 25 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 60 43 12

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 14 27 02

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. 616 35 54 96 (Carmen) Interesatuok deitu zenbaki honetara:

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauzez. Etxeak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 24 orduko prestasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

Debagoiena. Neska eta mutil arduratsuak lanerako gertu. Denetariako garbiketak, nagusiak eta umeak

zaintzen, zerbitzari edo sukalde laguntzaile eta abar. Autoarekin. Orduategi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 602 12 18 27 edo 631 05 97 32

Debagoiena. Neska gertu zerbitzari lanetan, nagusiak zaintzen edota garbiketan eritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654 11 15 14

Debagoiena. Orduka nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 29 94 29

Oñati. Neska euskalduna eta arduratsua behar da ume bat zaintzeko goizez, irailetik aurrera. Interesatuok deitu mugikor honetara: 679 45 36 42

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Goia Mailako heziketako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 26 24 62

7. ANIMALIAK

702. EROSI

Astoak. Baserrirako astoak gurako nituzke. Saltezko edo kentzeko baldin badituzu, deitu zenbaki honetara: 649 38 14 00 (Aitziber)

703. EMAN

Katakumeak. Katakumeak ematen ditugu opari, Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 73 68 07 edo 620 76 78 10

Katakumeak. Uztaillean jaiotako katakumeak ematen ditugu opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 09 63 46

704. BESTELAKOAK

Setterra galdu Zarimutzen. Abuztuaren 10ean Setter ingelesa galdu zen Eskoriatzan, Zarimutzen. Heldua dabaina tamaina txiki. Ernea da. Zuria, belarri gorriekin eta muturrean orban gorrixkak ditu. Lepokoa darma kontakturako telefono zenbakiekin. Aurkitu edo ikusibaduzu, eskertuko dugu telefono zenbaki hauetara deitzea: 616 53 79 78 edo 628 07 08 33

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Euskara irakaslea (errelebo-kontratoa) eta lan poltsa

Bergarako Udal Euskaltegiak euskara-irakasle bat kontratatu, eta lan poltsa osatu behar du lehiaketa-oposizio bidez.

Baldintzak

- Irakasle-agiria, unibertsitateko diplomatura, lizentziatura edo gradua.
- C2. Proba egiteko aukera egongo da.

Instantziak

Instantziak aurkezteko epea 2016ko irailaren 8an bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.

Oinarriak

Udal Euskaltegia, Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia).
http://www.bergara.eus/eu/Udala/Antolaketa/Euskaltegia

Informazioa

943 76 44 53 | euskaltegia@bergara.eus



ZORION AGURRAK



BERGARA
Oier eta Asier Garitano Agirre
Irailaren 7an eta 8an, 5 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak, bikote; primeran pasatu eguna! Patxo handi-handi bat etxeko danon eta, bereziki, Juleneren partetik.



BERGARA
Ane Mendia Beldarrain
Irailaren 7an, 5 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Sararen partetik.



ARETXABALETA
Alluitz Lazkano Gorostiza
Irailaren 2an, 9 urte. Zorionak, Alluitz! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta jarraitu beti bezain alai eta jator. Mila miloi muxutxo, etxeko danon partetik! Muak.



ARETXABALETA
Izar Zuazo Oianguren
Irailaren 2an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Jada 9 urte! Ondo-ondo pasatu eta muxu potolo bat aitaxoren, amaxoren eta Unaxen partetik!



ARETXABALETA
Haritz Garai Leturiaga Esnaola
Irailaren 2an, 9 urte. Zorionak, Haritz! Jadanik 9 urte. Urte askotarako! Egun ederra opa dizugu familia osoak; bereziki Iratik. Muxu handi-handi bat.



ANTZUOLA
Julen Gezalaga Esnaola
Irailaren 2an. Zorionak, Julen! Dagoeneko 10 urte. Zein azkar pasatu dan! Ondo-ondo igaro zure urtebetetze eguna lagunekin eta familiartekoein.



BERGARA
Malen Bardezi Kerejeta
Irailaren 1ean, 4 urtetxo. Zorionak, maittia! Horrenbeste amestutako egun ederra euki deizula! Patxo potolo bat, txiki! Lier, aitatzxo eta amaxxo.



OÑATI
Uxue Aramburu Moreno
Abuztuaren 31n, 5 urte. Zorionak, Uxue! Azkenean zure eguna heldu da eta ondo pasatzea baino ez duzu merezi. Asko maite zaitugu. Musutxoak.



BERGARA
Maidar Navajo Marquez
Abuztuaren 30ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo ospatu zure eguna. Muxu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Anerren partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA
Maddi Lamikiz Rementeria
Abuztuaren 29an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, *guapisima*. Patxo potolo bat etxeko eta, bereziki, Aimarren partetik.



BERGARA
Garazi Amesti Gomez
Abuztuaren 29an, 5 urte. Ondo pasatu eguna. Muxu handi bat etxeko eta lagun partetik. Bereziki Jokinen partetik!



ARRASATE
Aitor Salazar Sandoval
Abuztuaren 28an, 33 urte. Zorionak, nire bizitza! Oso ondo pasatu zure eguna eta urte askoratako. Maite zaut!



ANTZUOLA
Ainhize Azkarate Vazquez
Abuztuaren 28an, 6 urte. Zorionak, Ainhize! Egun politta euki, etxeko partetik.



ARRASATE
Iraia Prol Barbero
Abuztuaren 27an, 6 urte. Zorionak, maittia. Etxeko partetik, egun zoragarria pasa dezazula ospakizunean. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Ander Lana Martinez
Abuztuaren 27an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ane Lasagabaster Arrieta
Abuztuaren 27an, 4 urte. Zorionak etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Inge Narbaiza
Abuztuaren 26an, urtebete. Zorionak, Inge zure lehenengo urtebetetzean! Ze azkar pasatu dan! Muxu handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Unairen partetik!



BERGARA
Axier Bardezi Etxarri
Abuztuaren 26an, urtetxo bat gehixau. Zorionak, aitatzxo! Egun zoragarria euki eta preparatu milaka patxo potolo jasotzeko! Asko maitxe zaittugu! Lier, Malen eta Nerea.



ARRASATE
Jon De Andres Garai
Abuztuaren 26an, 24 urte. Zorionak, Jon! Aurten ere urrin ospatu duzu, baina espero dugu ondo ospatu izatea. Muxu eta besarkada handi-handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Ibai Diaz de Antoñana Sanchez
Abuztuaren 26an, urtebete. Zorionak, Ibaixxo! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat, lagun eta familiaren partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
Unax Gallastegi Agirrezabal
Abuztuaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu potolo bat gure konpartsero txikiantzako, Amaiurren partetik.



ARETXABALETA
Manex Amozarrain
Abuztuaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Manex! Patxo potolo-potoluak!



OÑATI
Ekain Olalde
Abuztuaren 24an, 7 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu, politta, zure familia guztixaren partetik.



OÑATI
Enaitz Aranburu
Abuztuaren 24an, 10 urte. Zorionak, Enaitz! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko partetik.



BERGARA
Mikel Zaitegi Fernandez
Abuztuaren 24an, 6 urte. Zorionak, Mikel! Patxo potolo bat, maitte zaittugun danon partetik!



OÑATI
Ander Urtaza Ronda
Abuztuaren 24an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Joxe Anjel Urkia Goitia
Abuztuaren 23an, 63 urte. Zorionak eta urte askotarako, familia osoaren partetik! Disfrutatu eguna!



ARRASATE
Irati Uria Mendieta
Abuztuaren 23an, 9 urte. Zorionak, polit hori! Besarkada bat, etxeko partetik!



BERGARA
Unax Anakabe Iturbe
Abuztuaren 23an, 5 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, maittia. Bost patxo handi, zure lagun eta familaxoen partetik.



ARETXABALETA
Aner Villar Pastor
Abuztuaren 22an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta txoko-marrubizko patxo potolo pila bat Beñaten, Enaitzen eta Nahiaren partetik! Muak!



ARAMAIO
Ilargi Bengoa Gomez de Segura
Abuztuaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Ilargi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu oin arte bezain alai eta jator! Patxo handi-handi bana, Hegoaren, aitaxoren eta amaxoren partetik!



OÑATI
Lide Lazkano
Abuztuaren 20an, 3 urte. Zorionak, potxoli! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu potolo bat, familaxa osoaren partetik!



ARAMAIO
Maddi Lizarralde Errasti
Abuztuaren 19an, 6 urte. Zorionak, polit hori. 6 urte ja! Ze aguro pasatu dan, Maddi! Patxo handi-handi bat danon partetik! Eta segi gu danok pozketan!



ANTZUOLA
Izadi Sodupe Larrea
Abuztuaren 19an, 7 urte. Zorionak, polit hori! Segi orain arte bezalako irribarretsu eta alaia izaten! Patxo potolo pila bat Iratiren, aitaxoren eta amaxoren partetik!



OÑATI
Peru Gezalaga Rodriguez
Abuztuaren 18an, 5 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat, familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Gorka Garai eta Arantza Ibañez de Opakua
Arantzak abuztuaren 16an eta Gorkak abuztuaren 19an. Zorionak, bikote! Muxu eta besarkada handi-handi bat, familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Ibon Agirre Sanabria
Abuztuaren 15ean, urtebete. Zorionak, poxpolintxo! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea eta jarraitu hain alaia izaten! Mila muxu potolo amaxoren, aitaxoren eta etxeko guztien partetik!



ARRASATE
June Marcos Avila
Abuztuaren 15ean, 3 urte. Zorionak! Alaitasun horrekin jarraitu, maittia! Muxu handi bat, familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
Aroa Garro Diaz de Garayo
Abuztuaren 14an, 10 urte. Zorionak! Primeran pasatu zure egunean. 10 urte, 1.000 muxu. Aitaxoren eta amaxoren partetik.



ARRASATE
Nahia Alvarez Fuentes
Abuztuaren 14an, 9 urte. Zorionak eta muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



ARETXABALETA
Oinatz Urkia Berezibar
Abuztuaren 11n, 7 urte. Zorionak, Oinatz! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Ibairren partetik.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Oier Aranegi Leturiaga
Abuztuaren 9an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Muxu eta besarkada
handi-handi bat, familia
osoaren partetik. Segi
hain mutil alai-alai
izaten.



ARRASATE
Nerea Baena Gorosabel
Abuztuaren 5ean, 32 urte.
Zorionak, *amore!* Oso ondo
pasatu eta ganoraz ospatu
urteak, txiki! Bueltan nahi
duzun moduan ospatuko
dugu-eta. Maite zaut. Zure
Txupitxuski, Oyi.



ARETXABALETA
Iraide Larrañaga Ormaetxea
Abuztuaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Zelako
ederki pasatu duzun zure
eguna oporretan. Segi
neska jatorra izaten. Muxu
erraldoia familixakuen eta,
bereziki, Jonen partetik.



ARETXABALETA
Alazne Leturiagaeta Jabi Aranegi
Jabik abuztuaren 5ean eta Alaznek abuztuaren 31n.
Zorionak, bikote! Zorionak handi-handi bat gure
partetik. Egun ederra pasa ezazueta. Muxu eta
besarkada handi bat.



BERGARA
Danel Goikoetxea Blanco
Abuztuaren 4an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu zure
egunien. Patxo handi bat
familia guztiaren eta,
bereziki, Eleneren eta
Maialenen partetik.



ARRASATE
Aner Martin Ayani
Abuztuaren 3an, 7 urte.
Zorionak, *guapo* hori,
zure zazpigarren
urtebetetzian! Edarto
ospatu eta muxu
pila-pila, familia
guztiaren partetik.



BERGARA
Xabat Unamuno Etxeberría
Abuztuaren 3an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Primeran pasatu zure
urtebetetze eguna.
Besarkada handi bat,
familiako guztion
partetik.



BERGARA
Unax Barrenetxea Gamba
Abuztuaren 3an, 3 urte.
Zorionak, txapeldun! 3
urte, ze handi! Ondo
pasatu zure eguna eta
jarraitu danok alaitzen!
Etxeko danak eta, batez
ere, Iker, Sare, Peru eta Eki!



ARRASATE
Liher Gracia
Abuztuaren 3an,
urtebetetzea. Zorionak!
Oso-oso ondo pasatu
zure egunean. Muxu
handi bat, betikuen
partetik!



BERGARA
Irati eta Enara Urrutia Retegi
Iratik abuztuaren 3an, 5 urte eta Enarak abuztuaren
6an, 3 urte! Zorionak, bikote, eta patxo handi bat
etxekoan partetik!



OÑATI
Ixone Guridi Urteaga
Abuztuaren 2an, 8 urte.
Zorionak, matra! Ondo
pasatu zure urtebetetzia
eta hain zoragarria
izaten jarraitu. Muxu
potolo bat, etxeko
guztione partetik.



ARRASATE
Itziar Ezkurra
Abuztuaren 1ean,
urtebetetzea. Zorionak!
Oso-oso ondo pasatu
zure egunean. Muxu
handi bat, betikuen
partetik.



OÑATI
Oihan Aramendi Fuente
Uztailaren 31n, urtebete.
Zorionak, *txikitin*. Ondo
pasatu zure lehenengo
urtebetetze egunian.
Muxu asko etxeko danon
eta, bereziki, Eleneren
eta Ioneren partetik.



OÑATI
Eider Erostarbe, Joane Arriaran eta Martin Arregi
Oporrekin batera,
badatoz ospakizunak!
Uztailaren 31n, Eiderrek
7 urte eingo dittu,
abuztuaren 3an,
Martinek 3 eta
abuztuaren 12an,
Joanek 4 urte. Zorionak
hiruroi eta muxu bana,
familixakuan partetik!



ARRASATE
Urko Txakon Hernandez
Uztailaren 31n, 2 urte.
Urte bi, karrazmarro!
Zorionak eta patxo
potolo handi bi,
aitatxoren eta amatxoren
partetik! Segi horren
felixiano, maittie!



ESKORIATZA
Zoe Silva Martins
Uztailaren 29an, 2 urte.
Zorionak, polit hori! Oso
ondo pasatu zure
urtebetetze eguna.
Muxu handi bat, zure
lehengusu Ibanen,
Aimarren, Enderren eta
Julenen partetik.



BERGARA
Iker Olabarria Vicente
Uztailaren 29an, 9 urte.
Zorionak, artista!
Asko-asko disfrutatu eta
mila muxu, familiaren
partetik!



OÑATI
Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, 5 urte.
Dagoeneko etxeko
txikiñak be 5 urte.
Zorionak eta ondo-ondo
pasatu zure urtebetetze
eguna!



OÑATI
Peio Axpe Elkoroiribe
Uztailaren 27an, 9 urte.
Zorionak, *guapo*!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze egunian eta
disfrutatu topera.
Muxuak, etxeko danen
partetik.



BERGARA
Mikel Olabarria Vicente
Uztailaren 27an, 3 urte.
Zorionak, gure txikitxo!
Asko-asko disfrutatu eta
mila muxu, zure
familiaren partetik!



OÑATI
Victoriana Goitia Larrañaga
Uztailaren 27an, 88
urte. Zorionak eta urte
askotarako, familia
guztiaren partetik.



BERGARA
Naroa Gullon Iñarra
Uztailaren 26an, 7 urte.
Zorionak, Naroa! Ondo
pasatu zure eguna eta
muxu potolo bat,
etxekoan partetik.



muxu handia!
OÑATI
Oinatz Urzelai Aizpeolea
Uztailaren 25ean, 5 urte.
Zorionak, Oinatz! Gure
mutikoak dagoeneko 5
urte!Ondo pasatu eguna
eta muxu handi bat,
familixaren eta, bereziki,
Auritzen partetik.



OÑATI
Usua Fuente Lopez
Uztailaren 26an, 28 urte. Zorionak, Usua! Ondo
pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat,
zure etxekoan aldetik.



ARRASATE ETA
ESKORIATZA
Soraya Barbero eta Maria Gallego
Sorayak uztailaren
25ean, 38 urte eta
Mariak uztailaren
30ean, 16 urte.
Zorionak, bikote. Ondo
pasatu zuen egunetan.
Familiaren partetik,



ARRASATE
Iker Avila Legorburu
Uztailaren 25ean, 6 urte.
Zorionak Iker! Alaitasun
horrekin jarraitu, artista!
Muxu handi bat, familia
osoaren partetik; bereziki
Anerena.



BERGARA
Shere Moreno
Uztailaren 23an,
urtebetetzea. Zorionak
eta urte askotarako,
amatxo! Ondo ospatu
eguna eta asko
disfrutatu! Asko maitte
zaittugu. Patxo potolo
bat, Kenarren eta
Alaineren partetik.



BERGARA
Oier Gantxegi Gallastegi
Uztailaren 23an, 3 urte.
Zorionak, *guapo*!
Etxekoan eta, Enekoren
partetik bereziki. Muxu
asko.



ARRASATE
Miren Zabaleta
Uztailaren 22an, 96
urte. Zorionak etxeko
erreginari, familiako
guztione partetik! Mila
muxu!



ARETXABALETA
Eñaut Betegi Jausoro
Uztailaren 22an, 9 urte.
Zorionak, Eñaut!
Ondo-ondo ospatu zure
urtebetetze egune!
Patxo handi bat, familixa
danaren partetik!



ARRASATE
Juliana Roca Montaño
Uztailaren 22an, 13 urte.
Zorionak, Juliana, zure
13. urtebetetzean!
Gurasoen eta anaia
Hugoren partetik, patxo
eta besarkada estuak!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion
agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena
paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitzez Goienaren ordezkaritza batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean argitaratuko
ditugu.

ASTEA GOIENAN



MAIDER ARREGI

Erreportaje berriak ikusgai, egunero

Debagoiena zuzenean saioaren atal berrietan egunero bi erreportaje eta elkarrizketa bat jasoko dira, orain artean egin izan den bezala, eta esaterako, martitzeneko saioan ezia nola batzen den ikusi ahalko da erreportajetako batean.

'Debagoiena zuzenean'
Astelehena, 20:00



ENEKO AZKARATE

Hauteskundeak berbeta gai

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina hastear dagoen honetan, Goiena telebistan hauteskunde horiei buruzko mahai-ingurua eskainiko da eguaztenean. Bergaran bizi den Elena Laka abokatua izango da saio horretako gidaria.

'Mahai-ingurua'
Eguaztena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 2	ZAPATUA, 3	DOMEKA, 4	ASTELEHENA, 5	MARTITZENA, 6	EGUAZTENA, 7	EGUENA, 8
10:00 Kantari	09:00 Kantari	09:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
10:30 Berriak	09:30 Platopic	09:30 Platopic	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Ibilean	12:30 Mahaingurua: Hauteskundeak 2016
11:00 Jaiak: Andramaixak 2016	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Korapilo	13:00 Platopic	13:30 Kantari
12:00 Debagoiena zuzenean	10:30 Kantari	10:30 Kantari	14:30 Berriak	13:30 Kantari	13:30 Korapilo	14:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Ur eta lur	15:00 Ibilean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
13:00 Erreportajea: Makiniatxo bat lan	11:55 Astea iruditan	11:30 Hurbilean	15:30 Oinein	14:30 Berriak	14:30 Berriak	15:00 Mahaingurua: Hauteskundeak 2016
13:30 Galdegazte	12:00 Ibilean	12:15 Barruak astintzen	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	15:00 Ur eta lur	15:30 Hurbilean
14:00 Debagoiena zuzenean	12:30 Erreportajea: Ordoki 4x4	13:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	15:30 Oinein	15:30 Hurbilean	16:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	13:30 Debagoiena zuzenean	13:55 Astea iruditan	17:00 Erreportajea: Ordoki 4x4	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:30 Berriak
15:00 Erreportajea: Barruak astintzen	14:25 Astea iruditan	14:30 Erreportajea: Ordoki 4x4	18:00 Zaindu zaitetz	16:30 Berriak	17:00 Harmailatik	17:00 Ikusi irratia
16:00 Ibilean	14:30 Barruak astintzen	15:30 Korapilo	18:30 Berriak	17:00 Ur eta lur	17:30 Ikusi irratia	18:00 Ibilean
16:30 Berriak	15:15 Debagoiena zuzenean	16:00 Platopic	19:00 Galdegazte	17:30 Erreportajea: Ordoki 4x4	18:30 Berriak	18:30 Berriak
17:00 Pedalka	15:55 Astea iruditan	16:30 Kantari	20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	19:00 Harmailatik	19:00 Mahaingurua: Hauteskundeak 2016
17:30 Txantxariak	16:00 Platopic	17:00 Korapilo	20:30 Berriak	19:00 Korapilo	19:30 Ibilean	20:00 Debagoiena zuzenean
18:00 Korapilo	16:30 Kantari	17:30 Kantari	21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
18:30 Berriak	17:30 Dokumentala: Makinatxo bat lan	18:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
19:00 Kantari	18:00 Hurbilean	19:00 Hurbilean	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
19:30 Debagoiena zuzenean	18:45 Zaindu zaitetz	19:45 Zaindu zaitetz	22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Amaia DJ
20:00 Pedalka	19:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Kantari	23:00 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Mahaingurua: Hauteskundeak 2016	22:30 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	19:55 Astea iruditan	20:30 Debagoiena zuzenean	23:15 Debagoiena zuzenean	22:00 Ibilean	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak
21:00 Mahaingurua: Reyes Prados eta Gemma Zabaleta	20:00 Kantari	21:25 Astea iruditan	23:30 Harmailatik	22:30 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	23:30 Mahaingurua: Hauteskundeak 2016
22:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Dokumentala: Makinatxo bat lan	21:30 Hurbilean	23:55 Astea iruditan	23:00 Berriak	00:00 Ibilean	00:30 Debagoiena zuzenean
22:30 Berriak	20:30 Dokumentala: Makinatxo bat lan	22:15 Erreportajea: Ordoki 4x4	00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Harmailatik	00:30 Berriak	01:00 Zaindu zaitetz
23:00 Erreportajea: Makiniatxo bat lan	21:00 Erreportajea: Ordoki 4x4	22:55 Astea iruditan	00:30 Berriak	00:00 Debagoiena zuzenean	01:00 Berriak	
23:30 Berriak	22:00 Debagoiena zuzenean	23:45 Zaindu zaitetz		01:00 Ibilean		

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean hasitako zuzeneko irratsaioetan izan diren hainbat protagonisten elkarrizketak berreskuratuko dira asteburuan 10:00etan irratian. Gaur, egubakoitza, hasiko den Kulturate Akustikoei buruz hitz egingo du, tartean, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak.

Astelehenean, Arrasate Hiria txapelketa hizpide

Astelehenean 11:00etan, *Uda giroan* irratsaioeko elkarrizketen tartean, Mondra taldeko entrenatzaile Josu Zubia izango da 107.7ko uhinetan, asteburuan jokatuko den Arrasate Hiria txapelketa nolakoa izan den kontatzen. Xehetasun guztiak izango ditu berbeta gai protagonistak.

GUARDIAKO FARMAZIAK


ARRASATE			
Egubakoitza, 3	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Zapatua, 4	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Domeka, 5	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 6	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
Martitzena, 7	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Eguaztena, 8	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Eguena, 9	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
BERGARA			
Egubakoitza, 3	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 4	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 5	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 6	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 7	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 8	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 9	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
OÑATI			
Egubakoitza, 3	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 4	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 5	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 6	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 7	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 8	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 9	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofigipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA		EUSKAL HERRIA	
	Max. 34° Min. 17°		Max. 30° Min. 15°
ZAPATUA, 3 Udako giroa izango da zapatuan; eguzkia gailenduko da egun guztian zehar zeruan eta tenperatura altuak izango dira.		DOMEKA, 4 Nahiz eta tenperatura zertxobait jaitsi, orokorrean eguzkia nagusituko da, nahiz eta tarteka hodei batzuk izango diren.	

Hego ukituko haizea izango da zapatuan, iparraldetik finkatzen joango dena.





Rosario eta Juan Jose

Juan Jose Gorosabelek eta Rosario Azurmendik urrezko ezteiak bete zituzten uztailaren 30ean. "50 urte ezkondu zinetik. Zorionak familia guztiaren partetik!"

ESKER ONA



M. Luisa Uribesalgo Irazola

2016ko abuztuaren 24an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
*Gure mundutik urruti dauden izarren argiekin heldzen dira marinelak portura.
Mari lu, zure argi politxa ere gurekin dator goazen lekura.*

Arrasaten, 2016k irailaren 2an.

ESKER ONA



Hilaria Arizaga Garaikoetxea

Antonio Alberdiren alarguna

2016ko abuztuaren 24an hil zen, Donostian, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez, etxeakoak.

Bergaran (Osintxu), 2016ko irailaren 2an.

ESKER ONA



Jose Ignacio Zanguitu Alberdi

'Mugarri'
Mari Puy Aretxagaren alarguna

2016ko abuztuaren 29an hil zen, 71 urte zituela.


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, beti izango zara gure bihotzetan.

Bergaran, 2016ko irailaren 2an.

HILDAKOAK

Juana Lete Ugarte. Arrasaten, uztailaren 16an. 82 urte.
Esteban Cuesta Dominguez. Arrasaten, uztailaren 18an. 59 urte.
Ramon Tena Quintana. Bergaran, uztailaren 20an. 72 urte.
Tiburtzio Arruti Izeta. Oñatin, uztailaren 21ean. 69 urte.
Antonio Diaz Nuñez. Arrasaten, uztailaren 22an. 86 urte.
Juan Domingo Perez Esteve. Arrasaten, uztailaren 23an. 76 urte.
Luz Abad Formoso. Arrasaten, uztailaren 23an. 87 urte.
Patricia Susana Ferrero de Villanueva. Arrasaten, uztailaren 23an.
Felisa Alejo Rubio. Arrasaten, uztailaren 24an. 91 urte.
M. Concepcion Lasaga Larrañaga. Arrasaten, uztailaren 26an. 88 urte.
Amelia Menendez Tapia. Arrasaten, uztailaren 28an. 84 urte.
Maria Luisa Navarro Sanchez. Arrasaten, uztailaren 31n. 90 urte.
Justo Etxebarria Ugarte. Arrasaten, abuztuaren 2an. 100 urte.
Eduardo Blanco Paz. Arrasaten, abuztuaren 2an. 68 urte.
Lucia Zabala Arruabarrena. Arrasaten, abuztuaren 2an. 89 urte.
Isabel Zubia Zubia. Arrasaten, abuztuaren 3an. 99 urte.
Pedro Maria Igartua Arrue. Oñatin, abuztuaren 7an. 74 urte.
Juan Amozarrain Vitoria. Arrasaten, abuztuaren 8an. 87 urte.
Juan Amozarrain Vitoria. Arrasaten, abuztuaren 8an. 88 urte.
Jose Gabriel Lainsa Arnaiz. Arrasaten, abuztuaren 9an. 70 urte.
Mateo Mezquita Vicente. Arrasaten, abuztuaren 11n. 92 urte.
Isabel Goenaga Arantzabal. Bergaran, abuztuaren 11n. 91 urte.
Carmen Zubizarreta Arregi. Arrasaten, abuztuaren 12an. 83 urte.
Josefa Iparragirre Alberdi. Arrasaten, abuztuaren 13an. 96 urte.
Dominica Urkidi Gandiaga. Arrasaten, abuztuaren 13an. 94 urte.
Celestino Ugalde Lezeta. Arrasaten, abuztuaren 14an. 90 urte.
Lucio Ugarte Aizpeurrutia. Oñatin, abuztuaren 15ean. 82 urte.
Juana Aldazabal Lizarralde. Bergaran, abuztuaren 15ean. 86 urte.
Miren Zubia Zabala. Aretxabaletan, abuztuaren 17an. 93 urte.
M. Angeles Untzurruntzaga Arratibel. Oñatin, abuztuaren 17an. 92 urte.
Jose Pose Barros. Bergaran, abuztuaren 19an. 70 urte.
Esteban Irurtzun Otamendi. Arrasaten, abuztuaren 20an. 54 urte.
Ana Vacas Torralbo. Bergaran, abuztuaren 21ean. 86 urte.
Rufina Garay Echave. Oñatin, abuztuaren 23an. 91 urte.
M. Luisa Uribesalgo Irazola. Arrasaten, abuztuaren 24an. 87 urte.
Hilaria Arizaga Garaikoetxea. Osintxun, abuztuaren 24an. 90 urte.
Esteban Etxabe Arregi. Arrasaten, abuztuaren 25ean. 89 urte.
M. Luisa Uribesalgo Zuazua. Aretxabaletan, abuztuaren 26an. 95 urte.
Rufino Agirre Altzelai. Oñatin, abuztuaren 26an. 88 urte.
Basilio Betelu Cantero. Oñatin, abuztuaren 26an. 82 urte.
Camilo Vara Anton. Arrasaten, abuztuaren 27an. 95 urte.
Mari Carmen Boyer Luna. Bergaran, abuztuaren 27an. 73 urte.
Agustin Zabaleta Agirregabiria. Eskoriatzan, abuztuaren 28an. 89 urte.
Jose Ignacio Zanguitu Alberdi. Bergaran, abuztuaren 29an. 71 urte.
Antonia Tarragona Calvo. Arrasaten, abuztuaren 30ean. 100 urte.
Ana Maria Blazquez Sanchez. Oñatin, abuztuaren 30ean. 94 urte.
Josefa Lamas Vila. Arrasaten, abuztuaren 30ean. 89 urte.

ESKER ONA



Rufina Garay Echave

Vicente Mugarzaren alarguna

2016ko abuztuaren 23an hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 3an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko irailaren 2an.

OROIGARRIA



Arrate Bengoa Gorosabel

2015eko abuztuaren 20an hil zen.

Erein zenuen haziak, gure bihotzean jarraituko du betiko.
Maite zaitugu

Zure familia.
Bergaran, 2016ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Patricia Susana Ferrero de Villanueva

(Carlos Iankidearen emaztea)

2016ko uztailaren 23an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

batu-banatu
banaketak neurria

Arrasaten, 2016ko irailaren 2an.

MEZA

Pedro Maria Igartua Arrue

2016ko abuztuaren 7an hil zen, 74 urte zituela.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 3an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.


Kalezaharra
elkartea

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, Kale Zaharra Elkartearen izenean.
Oñatin, 2016ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

M. Luisa Uribesalgo Zuazua

2016ko abuztuaren 26an hil zen, 95 urte zituela.

*Zueik sortutako 5 kimuetatik 11 adar zabalduz doiaz eta kimu berriak sortzen jarraituko zure onduen bizitakua gogoratuz.
Eskerrik asko, amama.*

Izaro eta Xabi, Done eta Jokin, Illart eta Ziortza, Nerea eta Jon, Enaitz eta Nerea, Ahinitze eta Alex, Maier eta Aitor, Xabier, Aitor eta Ana, Asel, Lide eta Jon.
Birbilobak: Oxel, Laida, Ekain, Intza.
Aretxabaletan, 2016ko irailaren 2an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Arantzazu eta Iban

Arantzazu eta Iban oñatiarrak irailaren 3an ezkonduko dira Asentzioko ermitan. Ondoren, Zumarragako Etxeberri jatetxean ospatuko dute familiarekin eta lagunekin batera. "Familiakoen eta kuadrillakoen partetik, zorionak, bikote, muxu handi bana eta ondo igaro eztei-bidaia Amerika aldian!".



Lourdes eta Iñaki

Lourdes Irasuegi aramaioarrak eta Iñaki Oria abartzuzarrak (Nafarroa) abuztuan ospatu zituzten urrezko ezteiak Lizarran. Ondo pasatu zuten familiarekin. Besarkada bat, bikote!



GOIENA

ARETXABALETA Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak

Supituki ikuskizuna eskainiko diete neska-mutikoei. Kontzertua hastera doa eta pailazoek kontratatu duten tronpeta-jotzailea ez da heldu. Garik, orduan, magia erabiliz dantzan ipiniko ditu ikusleak. Sarrerak, hiru euro. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

OÑATI Gaztetxearen laugarren urteurrena

Zuhaitz landaketa (11:30), poteoa (12:30), bazkaria (14:30) eta musika saioa (21:30) egingo dituzte. Azken horretan Bertxortan, Harakiri eta Hortzaka (irudian) taldeek parte hartuko dute. *Lau, lau... gaztetxian bakalau* leloarekin egingo dituzte ekintza guztiak. Bihar, zapatua, aipatutako orduetan, gaztetxean.



ANTIXENA

MUSIKA**BERGARA Euskadi Brass**

Kultura Kalean egitarau barruko kontzertua. Askotariko doinuak eskainiko dituzte. Gaur, egubakoitza, Arizuriaga parkean, 19:30ean.

BERGARA Musika klasikoa

Marta Urbietta sopranoa, Jose Manuel Diaz baritonoa eta Mario Larena pianista. Eguraldi txarra egiten badu, osoko bilkuren aretoan. Bihar, zapatua, Errekalde parkean, 19:30ean.

ARRASATE Igor Arzuaga

Exkixu taldearekin hasi zen bakarlaria, Kometa Urdinak taldearekin dabil orain. Nando eta Alberto de la Casa musikariekin egingo du Kulture Akustikoari dagokion kontzertua. Bihar, zapatua, Kulturaten, 20:00etan.

BERGARA Loreto Fernandez

Stoltz-Freres organoaren aldeko kontzertua. Sarrerak, bost euro. Batzen den dirua organoa konpontzera bideratuko da. Etzi, domeka, Santa Marinan, 19:00etan.

ARRASATE Pajaro

He matado al Angel diskoa aurkeztuko du Kulture Akustiko barruan. Bluesa du oinarri. Etzi, domeka, Kulturaten, 20:00etan.

OSPAKIZUNA**ANTZUOLA Elkartasun festa**

Anelkarren festak kubatar kutsua izango du aurtien: dantzak, musika eta mojitoak egongo dira. Pata-tortillak ere ez dira falta izango. Jasotzen den dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuetara bideratuko da. Gaur, egubakoitza, Zurrategin, 19:30ean.

JAIK**ARRASATE Zarugaldeko jaiak**

Zapatuan ospatuko dituzte jaiak: 12:00etan txupinazioa eta haurrendako jolasak; 13:00etan triki-bertso poteoa; 16:00etan mus txapelketa; 19:00etan bonba japo-

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

IRAILA 2
IRAILA 8

niarrak; 19:10ean buruhandiak; 19:30ean txistulariak; 21:30ean afaria; 23:00etan erromeria; 00:00etan zezensuzkoa; eta 00:15ean erromeria. Bihar, zapatua, Zarugalden, aipatutako orduetan.

BERGARA Kofradixak Osintxun

Aste bukaeran ospatuko dituzte. Egubakoitzean mozzorro desfilea, Soraluzera irteera eta musika taldeen edo bakarlarien lehiaketa egingo dituzte, besteak beste. Zapatuan: koadrilen arteko bazkaria, sukaldaritza lehiaketa, poteo herrikoia eta erromeria Honat taldearekin, besteak beste.

Domekan: meza, zezenak eta pilota partiduak. Informazio gehiago Bergarako orrietan. Aste bukaeran, Osintxun.

ERAKUSKETAK**BERGARA Joseba Leturiaren argazkiak**

Arkitektura garaikidea da protagonista Bergarako argazkilarien erretratutuan. Azken hamar urteotan egindako 30 argazki bildu ditu. Irailaren 11ra arte, Aroztegi aretoan.

BERGARA '1839. Bergarako Besarkadaren aurrean, keinua eta interpretazioa' erakusketa

I. Karlistaldiaren amaiera ekarri zuen Esparteroren eta Marotoren besarkadak. Hainbat partikularrek eta erakundek lagatako 65 pieza bildu dituzte, *Bake-ituna* delako proiektuan kokatzen den erakusketan. Azaroaren 1era arte, Laboratoriumen.

ARETXABALETA Erdi Aroko militarren miniaturretak

Alex Mesaren piezak ikusgai. Irailaren 30era arte, Arkupen.



IMANOL SORIANO

BERGARA Emon, Moittuai! eta Generacion 3

Azken asteak lanean pasa ostean, Bergarako Emon taldeak etxean hasiko du kontzertu bira. Lehen kontzerturako Generacion 3 katalanak eta Moittuai! taldea izango dituzte lagun. Euren

diskoetako kanturik ezagunenak joko dituzte hiru taldeek. Hori horrela, askotariko doinuen fusioa egongo da gaztetxean. Sarrera doakoa izango da. Irailaren 8an, gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE 'Dinbi, danba mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen omenezko bilduma. Harresi aretoan.

IRTEERA**ARRASATE Artzaintzaren ibilbidearen 5. etapa**

GR-282 ibilaldiaren Izarra-Villalba de Losa tarte egingo dute. Etzi, domeka, Garibain.

DEIAK**ARRASATE Akroyoga tailerra**

Goizean yoga tailerra egingo dute eta arratsaldean akroyoga tailerra eta erakustaldia. Izena emateko: gloria@acroyoga.org edo 609 55 62 10. Gaur, egubakoitza, Monterronen.

BERGARA San Martineko danborradaren entseguak

Irailaren 5ean, 6an, 7an, 12an, 13an eta 14an egingo dituzte entseguak. 19:00etan haurren danborradarena eta 20:00etan helduena. Aipatutako egunetan eta orduetan, seminarioko karpan.

BERGARA Ikasturte hasiera musika eskolan

Ikasle guztiek hasiko dute ikasturtea irailaren 5ean. Oraindik matrikula bete ez dutenek hilaren 21era arteko tarte dute, musika eskolako idazkaritzan. Aipatutako egunetan, musika eskolan.

ANTZUOLA EH Bilduren batzar irekia

EH Bilduren hauteskundeetarako planteamendua osatzeko batzarra egingo dute. EH Bilduren proiektuarekin bat egiten duten antzuolarrak deitu dituzte. Irailaren 6an, Olaranen, 18:30ean.

HITZALDIA**OÑATI 'Heldutasunaren garai baliotsua'**

Ana Perez psikologoaren hitzaldia, Pake Lekuk gonbidatuta. Irailaren 6an, Pake Lekun, 17:30ean.



ARRASATE Kulturate Akustikoak: Lou Topet banda
Bandarekin batera Harkaitz Cano idazlea eta Rafa Rueda eta Joserra Senperena musikariak batu dira. Wilco, John Hiatt, Will Oldham eta Billy Bragg musikarien piezak sartu dituzte *Abesti bat gutxiago* delako liburu-diskoan. Horren aurkezpena egingo dute. Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 20:00etan.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA Kanpai joleen argazki lehiaketa
Entzun bakarrik egiten diren kanpai hotsen alderik gizatiarre-na erakutsi beharko da erretra-tuetan. Lanak irailaren 15a bai-no lehen entregatu behar dira *kanpaijoleak@gmail.com* edo *kultura@aretxabaleta.eus* helbi-deetan.
Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

DEBAGOIENA Udako argazkiak
Udako argazkien XII. Goiena lehiaketan parte hartu gura dute-nek *argazkiak@goiena.eus* hel-bidera eta Goienaren egoitzara eraman behar dituzte erretratuak. Irailaren 18ra arte jasoko dira argazkiak, eta irabazleak urria-ren 14an jakinaraziko dira. Lau sari banatuko dituzte.
Lanak entregatzeko epea, irailaren 18a.

IKASTAROAK

ARRASATE Biodantza ikastaroa
Esther Fernandez irakasleak hila-ren 12an hasiko du ikasturtea. Izena emateko 685 75 42 94 tele-fonora deitu behar da.
Hilaren 12an, La Merced ikastetxean, 19:30ean.

BERGARA Kontserbak egiteko
Barazkiak, frutak, haragiak eta arrainak potetan nola kontser-batu erakutsiko du Maite Angoi-tiak, hilaren 12an, 13an eta 15ean. Izena emateko azken eguna irai-lak 8: 943-76 93 94 edo *info@bizi-kasi.com*.
Izen-ematea aipatuko lekuetan.

OÑATI Erretiratuendako
Bitxingintza, dantzak, euskara, informatika, irakurketa, marra-keta, memoria lantzeko, orratz lanak, solfeoa eta yoga ikastaroak egingo dituzte. Izenak, Pake Lekun, hilaren 23a baino lehen.
Izen-ematea aipatuko lekuan.

IZEN-EMATEA

ELGETA Irteera Burgosera
Bihar, zapatua, eman behar da izena, 11:00etatik 12:00etara arte, 30 euro ordainduta. .
Bihar, zapatua, Ozkarbin, aipatutako orduan.

SALMENTA

ARRASATE Operarako sarrerak
Etzi, domeka, ipiniko dituzte salgai *El barbero de Sevilla* ope-

ra ikusi ahal izateko sarrerak: Kutxabanken, Amaia antzokian, *ozenkielkartea@hotmail.es* helbi-dean eta Udalaren webgunean, 30 eurotan. Opera emanaldia urriaren 18an izango da.
Salmenta, aipatutako lekuetan.

AZOKA

BERGARA Eguaztenetako azoka
Baserritarren eta bertako pro-dukten salmenta.
Hilaren 7an, Oxirondon, 18:00etan.

KIROLA

ARRASATE Arrasate Hiria
Mondrak, UDAk eta Amaiak Batek jokatuco dute hiruko fut-bol txapelketa.
Bihar, zapatua, Mojategin, 16:30ean.

OÑATI Agirreren omenezkoa
Aloñak Eibar Urkoren kontra jokatuco du Jose Luis Agirreren omenezko partidua.
Bihar, zapatua, Azkoagainen, 17:00etan.

BERGARA Bergara Hiria
Bergarak Elgoibarren kontra jokatuco du futbol txapelketa.
Bihar, zapatua, Agorrosinen, 18:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ BOULEVARD Ben Hur Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 19:00, 21:00. Ben Hur 3D Zapatua eta domeka: 16:20. No respires Egubakoitzetik eguaztenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Zapatua: 00:30. Eguena: 16:00, 18:00, 20:30, 22:45. Lejos del mar Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:10.	Criminal Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:45. Siete vidas, este gato es un peligro Egubakoitzetik eguenera: 16:45. Egubakoitzetik eguaztenera: 20:10. Cuerpo de elite Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30. zapatua: 00:35. Bridget Jone's baby Eguena: 20:00. Kubo y las dos ruedas magicas Egubakoitzetik eguenera: 16:05, 18:15.	Cafe society Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:30. Heidi Egubakoitzetik eguenea: 16:10. Peter y el dragon Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:05. Jason Bourne Egubakoitzetik eguaztenera: 22:15. Zapatua: 00:35. Nerve, un juego sin reglas Egubakoitzetik eguenera: 22:35. Zapatua: 00:40. Escuadron suicida Egubakoitzetik eguenera: 17:00,	19:30, 22:00. Zapatua: 00:30. Mascotas Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 18:00, 19:0, 20:00, 22:00. Al final del tunel Zapatua: 00:00. Nunca apagues la luz Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 20:45, 22:45. Zapatua: 00:45. Stra Trek: mas alla Egubakoitzetik eguenera: 21:00. Zapatua: 23:30. Cazafantasmas Egubakoitzetik eguenera: 20:25, 22:45.
--	--	--	--

KRITIKA



Amodiaren alde iheskorra

Ez dago gaizki denboraldiari hasiera emateko Woody Allenen film bat izatea. Estreinatu berri dagoen *Cafe Society* XX. mendeko hirugarren hamarkadako Hollywooden eta New Yorken kokatzen da. Amestutako bizitzak eta eguneroko bizitzak topo egiten dute. Filma komedia erromantikoa bada ere, ez ditu hainbeste momentu barregarri. Mutil protagonistaren familia agertzen denean —*Dias de radio* gorara ekartzen digu— eta gangsterren mundua azaltzerakoan, badira barregarri diren elkarrizketak. Hala eta guztiz, *Cafe Society* barreak sortzeaz baino gehiago, pertsonaien arteko amodiozko harremanak eta sentimenduak azaltzeaz arduratzen da. Idatzitako elkarrizketak dira, baina istorioan tonu erromantikoa nabarmentzen da. Woody Allen dramen barneratzen ez denez, filmak duen tonu lirainean, melankonia kutsua agertzen da.

New Yorkeko zuzendariaren filmetan amodiozko harremanek garrantzi handia dute. *Annie Hall*, *Manhattan*, *Hannah y sus*

CAFE SOCIETY ★★★★★
Zuzendaria: Woody Allen.
Herrialdea: AEB.
Aktoreak: Jesse Eisenberg, Kristen Stewart, Steve Carell.

hermanas, Maridos y mujeres pelikuletan agertzen da gizakien arteko amodiozko harremanek duten efektu aztoratzailea: ezkutuko harremanak, sortzen eta bukatzen diren harremanak, traizioak, sentimenduen nahasketak eta minduta sentitzen diren pertsonaiak. Allenek ulertzen ditu pertsonaien nahasketak eta ahuleziak, eta pertsonaien egoera emozionala azaltzen ahalegintzen da. Pelikulan oso esku ona erakusten du amodio istorioak azaltzeko. Amodioaren sormena, harremanetan ematen diren zailtasunak eta bihotzak duen alde apetatsua agertzen dira. Kasu askotan gauzak aldatzen joaten dira eta eskuetatik ihes egiten dute zergatia jakin gabe. Filmak amodioak duen alde iheskorra harrapatzen du. Eta bukaera heltzen denean, ia ohartu gabe, amodio istorioen zirrara igartzen dugu.

ANTONIO ZABALA

MAHAI-INGURUA

EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK 2016 AURKEZLEA ELENA LAKA
IRAILAK 7 EGUAZTENA, 22:00

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Santa Ana jatetxean
prestatutako
txerrikume hezurgabea



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-09-02

BUKATZEKO

"Lasai banago, errekorra lor dezaket"

- Irailaren 7an ahaleginduko da Markel Uriarte gorpil bakarraren gainean Guinness errekorra ontzen
- Anoetako belodromoan egingo du saiakera; dagoeneko hainbat entrenamendu saio egin ditu han

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

Tourmalet gorpil bakarraren gainean igo eta jaistea, Hiru Haundiak mendi zeharkaldia bizikleta gainean egitea... Azken boladan Markel Uriartek egin dako erronketako batzuk dira, eta eguaztenean, hilak 7 (15:30ean hasita), aspalditik buruan daukan Guinness errekorra ontzen aha-legenduko da: orduko errekorra gorpil baten gainean egitea.

Egun, suitzar batek dauka marka, 24,2 kilometrotan, eta Uriartek gaindi dezakeela uste du: "Anoetako belodromoan egin ditudan saiakeretan gustura geratu naiz. Oso garrantzitsua izango da egunean bertan lasai egotea, urduritasunak baztertea eta probako bigarren zatian, nekea sumatzen hasten naizenean, kontzentratuta jarraitzea". Hala, belodromoan egiteak hainbat abantaila ditu -eguraldiaren menpe ez egotea-, baina baita desbantalak ere. Esaterako, zuzenguneak motzak dira, eta ia etengabe joan beharko da kurba hartzen.

Entrenamenduak bateratuta

Tourmaleteko igoera moduan, orduko errekorra egiteko bereziki entrenatu da: "Baina entre-



Markel Uriarte Anoetako belodromoan entrenatzen; abuztuan hainbatetan joan da Donostiara. | ARITZ GORDO



Babak eskuetan. | ARITZ GORDO

namendu ezberdinak dira. Tourmaletetako iraupen proba izan zen, eta orain abiadura ere landu behar izan dut". Eta horrekin batera, enduroko lasterketak ez ditu baztertu; esaterako, asteburuan Asturiasko Devan lortutako laugarren postuari esker EnduroAstur Openeko sailkapen orokorrean bigarren postua ziurtatu du.

Errekorra, ofiziala

Aretxabaletako Guinness errekor ofiziala izan dadin ziurtatzeko lanean ibili da: "Normalean, hiru hilabeteko epea behar da Guinnesskoen oniritzia jasotzeko. Hilabeteen eman didate onarpena, baina hainbat baldintza bete behar ditut; besteak beste, epaile ofizial baten testigantza eta errekorra bidez grabatzea".

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Lehengo lepotik burua

Abuztuaren hasieran, oporrak hartuta, eten bati ekin genion. Oporrek egunerokotasunarekin apurtu eta bizimodua aldatzeko aukera eskaintzen dute. Bueltan, lehengo arazoak eta koskak desagertuta egongo direlakoan eta proiektu berriak abiatuko ditugulakoan hasten dugu abuztua.

Irailean, lehengo lepotik burua. Udan ez dira gauzak gehiegi aldatu. Madrilen, hirugarren hauteskundeak izango ote diren da zalantza, Erkidegoan Arnaldok hautagai izateko aukera legalik izango ote duen dugu kolokan... Iraila iritsi da eta berriz gaude hauteskunde zurrumbiloan sartuta. Hamabost hilabetetan 4 hauteskunde eta 2 galdeketa izan ditugu Gasteizkoak kontatuta.

Eta arazoek eta koskek bere horretan darraite. Raxoyk argi erakutsi du Españaren batasuna dela beraien lehentasuna, egoera sozio-ekonomikoak gainbeheran jarraitzen du, emakumeen aurkako eraso matxistak areagotu egin dira udan, jaien testuinguruan; errefuxiatuen aferak ez du etenik, Gazteluk milaka kilometrora jarraitzen du dispersatuta...

Bada, oporrak pasatuta, zakua bete lan daukagu hasi berri dugun ikasturterako. Beste atsedenaldirik bat etorriko da urtebete barru eta bitartean ekin lanari sendo, ez dugu besterik egoera aldatu nahi badugu.



EROSKI

ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



IRAILAK 3
80 €-tik gorako erosketetan
PRODUKTU GUZTIEN
BEZa*
oparituko dizugu

Bazkideentzat
bakarrik



Zure EROSKI club
txartelean itzuliko
dizugu hurrengo
erosketetarako.

* Kutxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen BEZa EROSKI Club txartelean. Adibidez: %21eko BEZa daukan 100€-tik gorako erosketak batengatik 17,35€ sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean.
- Sustapenetik kanpo daude testu-liburuak, esperientzia-sortak, telefono-errekarguak, E-pay txartelak (aurreordainketak), errebelatze digitala eta Bidasoa sustapeneko produktuak.